

OROITIDAZKIA



Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren Txosten Adierazgarrienak



Datuak Babesteko
Euskal Bulegoa
Agencia Vasca de
Protección de Datos

Edizioa:

© Datuak Babesteko Euskal Bulegoa

Argitaratzailea: Datuak Babesteko Euskal Bulegoa

Internet: www.avpd.es

Jabego Intelektualaren Eskubideak babesten du lan hau. Gordeta daude Legeak babesten dituen eskubide guztiak, bai eta itzultzeko, berriro inprimatzeko, irratiz, telebistaz edo internetez (web orria) hedatzeko, fotomekanikaren bidez edo beste edozein eratarik kopia egiteko eta datuak prozesatzeko instalazioetan gordetzeko eskubideak ere, nahiz eta lanaren zati bat izan.

Aurkibidea	Orrialdea
1. PROFESIONALEN ELKARGO BATEKO GOBERNU-ORGANOAK HAUTATZEKO HAUTESKUNDEAK. ELKARGOKIDEEN DATUAK LAGATZEA HAUTAGAIEI.	4
2. DATU PERTSONALAK BILTZEA MATRIKULA-ORRI BATEAN. KALITATEAREN PRINTZPIOA	8
3. KORPORAZIOKO KIDEEK SARBIDEA IZATEA UDALEKO SARREREN ETA IRTEEREN ERREGISTROAN	11
4. OUTLOOK-EKO AGENDAN IDENTIFIKATZEA ELKARREN ARTEAN EUSKARAZ KOMUNIKATU NAHI DUTEN LANGILEAK	18
5. UDAL BEREKO BESTE SAIL BATEK SARBIDEA IZATEA ERROLDAKO DATUETAN	22
6. FAMILIA UGARIAREN TITULUA DATU PERTSONALA OTE DEN	26
7. KIROL FEDERAZIOETAKO FITXATEGIAK	29
8. UDALBATZARREKO AKTAK UDAL WEB-ORRIAN ARGITARATZEA ETA ETXEZ ETXE BANATZEA	34
9. GRABAKETAK ADINEKO PERTSONENTZAKO EGUNEKO ZENTROETAN	39
10. UDAL ESKUMENEN ZERBITZUAK EMATEKO AZPIKONTRATATUTAKO ENPRESEK UDAL ERROLDAN SARBIDEA IZATEA	44
11. ADMINISTRAZIO PUBLIKOEI ZERGA-DATUAK LAGATZEA	48
12. HILDAKO PERTSONEN DATUAK TRATATZEA	53
13. UREZTATZAILEEN ELKARTE BATI UDAL ERROLDAKO DATUAK LAGATZEA	58
14. ZERGA-DATUAK ATZITZEKO ESKUBIDEA. HELMENA.	63
15. UDALBATZARRETAN AZTERGAI DIREN GAIEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA POSTA ELEKTRONIKOZ BIDALTZEA	70
16. ADMINISTRAZIO BATEAN FITXATEGI BAKARRA SORTZEA	80
17. UDALERRIKO ARLO BATEN GARAPENAZ ARDURATZEN DEN SUSTATZAILEARI UDAL ERROLDAKO DATUAK LAGATZEA	88
18. ERIZAINEN ELKARGO OFIZIAL BATEK OSASUN ERAKUNDEETAKO PLANTILLETAKO ERIZAINEN ZERRENDETAN SARBIDEA IZATEA	95
19. URAREN KANONA. ENPRESA HORNITZAILEEK DATUAK LAGATZEA	100

1. PROFESIOALEN ELKARGO BATEKO GOBERNU-ORGANOAK HAUTATZEKO HAUTESKUNDEAK. ELKARGOKIDEEN DATUAK LAGATZEA HAUTAGAIEI.

INDUSTRIAKO PERITUEN ETA INGENIARI TEKNIKOEN XXXXX-KO ELKARGO OFIZIALAK ONDOKO GAIARI BURUZ EGINDAKO KONTSULTAREN GAINEKO IRIZPENA: "EA HAUTAGAIAK EGINDAKO ESKAERA ONARTZEA BIDEZKOA DEN ETA EA INDUSTRIAKO PERITUEN ETA INGENIARI TEKNIKOEN XXXXX-KO ELKARGO OFIZIALAREN 2008KO HAUTESKUNDEETAN GOBERNU BATZORDEKO KIDEAK ETA KARGUAK HAUTATZEKO ARAUDIAREN 12. ARTIKULUA BAT DATORREN INDARREAN DAGOEN GAINONTZEKO LEGEDIAREKIN."

CN08-001

AURREKARIAK

LEHENENGOA. 2008ko urtarrilaren 22an Industriako Perituen eta Ingeniari Teknikoen XXXXXXko Elkargo Ofizialaren XXXXXXXXaren idazki bat jaso genuen Datuak Babesteko Euskal Bulegoan. Idazkiak Elkargoko XXXXXXaren oniritzia zuen eta goian adierazitako kontsulta egiten zuen.

BIGARRENA. Kontsulta-idazkian honakoa adierazten da:

Elkargoa hauteskunde prozesu batean sartuta dagoela bertako Gobernu Batzordeko kargu eta kide batzuk berritzeko.

2007ko abenduaren 11ko Gobernu Batzordean helburu horretarako onartu zen Erregelamenduaren 12. artikulua honakoa xedatzen duela:

Gobernu Batzordeak, hauteskondeekin zerikusia badu, elkargoko kideei buruzko informazioa eman beharko die hautagaiei, beti ere horretarako dauden baliabideak kontuan hartuta.

Elkargoko idazkari teknikoa den XXXXXX jaunak, idazkari kargurako hautagaia izanik, urtarrilaren 7ko NRE-33 sarrera zenbakia eman zion berak burofaxez bidalitako idazkiari. Idazki horren bitartez elkargokideen zenbakiaren arabera ordenatutako paperezko zerrenda bat eta Exceleko fitxategi elektronikoa eskatu zituen. Hori guzti hori Elkargoak erabili ohi duen datu basea kudeatzeko sistema integratutik (SIG) aterata eskatzen zuen.

Behean izenpetzen duen XXXXXXak adierazten duenez, Gobernu Batzordearen arabera, elkargokideek ez dute haien datu pertsonalak lagatzeko adostasunik adierazi, are gutxiago hauteskunde helburuarekin egindako eskaera baterako.

Gaur egun Elkargoak ez du lanbide-gidarik, eta aurreko paragrafoan adierazitako arrazoiak badu horretan zerikusia.

Urtarrilaren 15ean egindako Gobernu Batzordean, aho batez eta XXXXXXaren proposamenez, onartu zen Elkargoko iragarki-oholean jarritako datuak (hautesle zerrenda) baino ez ematea, hau da, elkargokide zenbakia, izena eta abizenak bakarrik ematea, harik eta gaiaren gaineko kontsulta egin arte Datuak Babesteko Euskal Bulegoari.

HIRUGARRENA. Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17.1 artikuluko n) idatz-zatiak honako eginkizuna esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

"Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkioten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderei erantzutea."

Beraz, goiko arau hori kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egin diguten galderari erantzuteko txostena egitea.

KONTUAN HARTZEKOAK

I

Lehendabizi, kontsulta egin duen Elkargoak gauzatu nahi duen jarduera datu pertsonalak babesteko araudiaren ikuspuntutik kalifikatu behar da, batez ere, goian aipatzen den pertsonak egindako eskaerari erantzun behar bazaio.

Datu pertsonalak babesteko araudia kontuan hartuta, jarduera horri kalifikazio hau dagokio: datu pertsonalak lagatzea edo komunikatzea.

Datu pertsonalak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren (aurrerantzean DBLO) 3 i) artikulua eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 3 h) artikulua xedatzen dutenez, datu lagatzea edo komunikatzea da:

“interesduna ez den beste pertsona bati datuak erakustea”

Kalifikazioa egin ondoren, datu lagatze edo komunikazio horien lege erregimena aztertu behar da. Horretarako, DBLOren 11. artikulura jo behar da.

DBLOren 11.1 artikulua honakoa xedatzen du:

Tratatu beharreko datu pertsonalak hirugarren bati komunikatu ahal izateko, ezinbestekoa izango da lagatzailearen eta lagapen-hartzailearen eginkizun legitimoekin lotuta dauden helburuetarako izatea, hau da, bakar-bakarrik horretarako izatea, eta interesdunaren alde aurreko adostasuna beharko da.

Bestalde, zentzu horretan interesekoa izan daiteke DBLOren 11.2 artikulua xedatzen duena. Hona:

Aurreko paragrafoan aipatutako adostasuna ez da beharrezkoa izango honelako kasuetan:

a) Lege batek baimentzen badu lagapena.

Kontsulta egiteko bidali zen idazkiaren 4. puntuak dioenez, idazkariaren arabera, eta idazkia egin zuen egunera arte behintzat, elkargokideek ez dute momentuz adierazi haien datu pertsonalak lagatzeko adostasunik, are gutxiago hauteskunde helburuarekin egindako eskaera baterako.

Datuen titularren baimenik (adostasunik) egon ezean, badirudi eskatzen den datu lagatzeak ez duela DBLOren 11. artikuluko lehendabiziko puntuan ezarritakoa betetzen. Beraz, hurrengo urratsa da begiratzea ea adostasuna ematea beharrezkoa den ala ez, eta, horretarako, 11. artikuluko bigarren atala hartuko da kontuan.

II

Konstituzio Auzitegiaren STC 292/2000 Epaiaren zuzenbideko hamaikagarren oinarrian xedatutakoaren arabera, datu babeserako eskubidea ez da mugagabea; izan ere, Konstituzioak ez dizkio berariazko muga zehatzak jartzen edo ez die botere publikoei agintzen muga horiek ezartzeko, beste oinarritzko eskubideekin egiten duen bezala. Mugak horiek aurkitzeko, Konstituzioak babesten dituen gainontzeko oinarritzko eskubideak eta ondasun juridikoak hartu behar dira kontuan, horrela agintzen baitu Konstituzioaren batasunerako irizpideak. Era berean, bidezkoa da gogora ekartzea Konstituzioaren 36. artikulua honakoa xedatzen duela: “Legeak lanbide-elkargoaren araubidea ezarri eta tituludun lanbideen jarduera arautuko du. Elkargoaren barne-egiturak eta jardunbideak demokratikoak izan beharko dute”.

Konstituzioaren agindu hori kontuan hartuz gero, aztertzen ari garen kasuan honako lege eta arauak hartu beharko dira aintzat hurrenez hurren:

Lanbide Elkargoei buruzko otsailaren 13ko 2/1974 Legea. Lege horren 6. artikulua xedatzen du elkargoen Estatutu Orokorrek arautu behar dituztela besteak beste honakoak: Batetik, c) idatz-zatiak dioenez, elkargoen gobernu organoak zeintzuk diren eta nola eratuko diren eta funtzionatuko duten; berariaz adieraziz organo bakoitza independentea dela, nahiz eta elkarrekin koordinatu daitezkeen, eta debekatuta izango dute gai-zerrendan jasota ez dauden gaiak onartzea. Bestetik, e) idatz-zatiak xedatzen duenez, Gobernu Batzordeko kargu guztiak askatasun osoz hautatu ahal izateko araubidea.

Tituludun lanbideei eta profesionalen elkargo eta kontseiluei buruzko azaroaren 21eko Eusko Legebiltzarraren 18/1997 Legea. Lege horren 33. artikulua xedatzen duenez, "Elkargoen barruko egitura eta funtzionamendua demokraziaz antolatu behar dira". Horretaz gain, estatutuetan derrigorrean zer arautu behar den ere xedatzen du: "Gobernu organoen izenak, osaera eta aukeratzeko sistema eta organo horietako partaide izateko baldintzak".

Elkargoaren Estatutuak. 2004ko ekainaren 14an egin zen Aparteko Batzar Nagusiak onartu zituen Estatutuak eta eskuragarri daude honako helbide elektronikoan: <http://www.XXXXXX.org>. Estatutuen 65. artikulua xedatzen duenez, Gobernu Batzordeak elkargoko kideei buruzko informazio guztia emango die hautagaiei, baldin eta hauteskondeekin zerikusia badu, beti ere horretarako dauden baliabideak kontuan hartuta. (Kontsulta-idazkian aipatzen den Erregelamenduaren 12. artikuluan xedatutakoak ere gauza bera dio hitzez hitz).

III

Aurreko arau multzoa ikusi ondoren, Bulego honek uste du Elkargoak ez duela datu pertsonalen babesaren arloko araurik urratzen hautagaiak egindako eskaera onartzeagatik, nahiz eta elkargokideen adostasunik ez izan. Izan ere, eskatu eta ematen den informazioa DBLOren 11.2a) artikuluan aurreikusitako salbuespenetako bat da.

Ondorio hori indartzeko, hauteskunde arau orokorra dago; izan ere, arau orokor hori DBLOan jasota ez dagoenari ezartzeko ordezkio araudi moduan erabil daiteke.

Ordezko araudi moduan erabil daitekeela diogu, Elkargoko Estatutuen 1.2 artikulua honakoa xedatzen duelako: Industriako Perituen eta Ingeniari Teknikoen XXXXXXko Elkargo Ofiziala gobernatzeko, Estatutu hauetan ezarritakoa, etorkizunean onar daitekeen erregelamenduetan ezartzen dena eta, oro har, indarrean dauden legezko xedapenetan ezarritakoa bete beharko dira.

Hauteskunde arloan indarrean dagoen lege-xedapena Hauteskundeei buruzko 5/1985 Lege Organikoa da, egin zaizkion aldaketak barne. Baina bereziki aipatu behar da, aztertzen ari garen gaiari buruzkoa izateagatik, martxoaren 10eko 1/2003 Lege organikoaren 41. artikuluko 5. idatz-zatian ezarritakoa:

Kandidatura bakoitzeko ordezkariak haiei dagokien barrutiko erroldaren kopia bat jasoko dute kandidaturaren aldarrikapena egin eta hurrengo egunean. Errolda mahaien arabera ordenatuta egongo da, tratamendu informatikoa egin ahal izateko moduko euskarrian egongo da eta Lege honetan jasotako helburuetarako baino ezingo da erabili. Ordezkari orokorrek ere haien alderdi, federazio edo koalizioek kandidaturak aurkezten dituzten barrutietan indarrean dagoen errolda jaso ahal izango dute, eta aurreko baldintza berberekin jasoko dute. Era berean, zonako hauteskunde batzorde bakoitzak bere esparruko hauteskunde erroldaren kopia erabilgarri bana izango du.

Beraz, zentzuzkoa dirudi ondorioztatzea araudi orokorrarentzat bidezkoa bada hautesleen datu pertsonalak, haien adostasunik gabe, kandidaturen ordezkariak lagatzea, berdin izan behar dela bidezkoa hemen aztertzen ari garen kasuan, arazoaren muina bera delako, hau da: benetan baliatu ahal izatea antolamendu politikoaren legitimazio demokratikoaren oinarrian dagoen botoa

emateko eta hautagai izateko eskubideaz; izan ere, horrela egin ezean, Elkargoak ezin izango luke bete Konstituzioaren 36. artikulua xedatutako betebeharra, gorago adierazi duguna.

ONDORIOAK

1. Industriako Perituen eta Ingeniari Teknikoen XXXXXXko Elkargo Ofizialaren Gobernu Batzordeko kideak eta karguak hautatzeko araudiaren 12. artikulua bete egiten du datu pertsonalei buruzko araudia.
2. Elkargoak hautagaiaren eskaera onartzen badu, nahiz eta elkargoko kideen adostasunik ez izan, ez du, oro har, datu pertsonalen babeserako araudiaren aurka jotzen.

2. DATU PERTSONALAK BILTZEA MATRIKULA-ORRI BATEAN. KALITATEAREN PRINTZIOA

XXXXXXKO UDALAK ONDOKO GAIARI BURUZ EGINDAKO KONTSULTAREN GAINEKO IRIZPENA: EA ZEINTZUK DATU JASO DAITEZKEEN LANBIDE HASTAPENETARAKO IKASTEGI BATEKO FITXATEGIAN.

CN08-002

AURREKARIAK

LEHENENGOA. Datuak Babesteko Euskal Bulegoak XXXXXXXKO Udalaren idazki bat jaso zuen. Idazki horren bidez, goiburuan adierazitako gaiari buruzko txostena egiteko eskatzen zuen:

“Udal honek Lanbide Hastapenatarako Ikastegi bat du eta ikastegiaren helburua da zenbait lanbideren gaineko prestakuntza ematea Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH) bukatu ez duten adin gabeko guztiei.

Ikasleentzako matrikulazio orrian behean adierazten ditugun datuak eskatzen dira, eta ez gaude seguru horiek eskatzean lehen aipatu dugun 2/2004 Legearen 5. artikulua urratzen den, gehiegizkoak direlako eskumena gauzatzeko, hau da, hezkuntza arloan dugun eskumena gauzatzeko.

Hona hemen eskatzen diren datuak:

Ikaslea: izena, abizenak, jaiotze data, NAN, helbidea, herria eta P.K.

Gurasoak: izena, abizenak, helbidea, lanbidea, adina, ikasketa maila, ezkondata, banatuta ala dibortziatuta dauden, alargunak diren eta ea ikaslearekin bizi diren ala ez.

Anai-arrebak: anai-arreba kopurua, adina eta zer jarduera egiten duten.

Senideak: etxean senide gehiago bizi diren (aitona-amonak, izeba-osabak ...)

Horren gainean, adierazi nahi dugu ikastetxeko arduradunek uste dutela ikasleen familiari buruzko gorabeheren berri izatea ezinbestekoa dela, eginkizun pedagogikoa asko errazten duelako.”

BIGARRENA. Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17.1 artikuluko n) letrak honako eginkizuna esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

“Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkioten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderei erantzutea.”

Beraz, goiko arau hori kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egin diguten galderari erantzuteko txostena egitea.

KONTUAN HARTZEKOAK

I

Kontsultaren xedea da argitzea ea irizpenean zati batean jaso dugun kontsulta idazkian aipatzen den Lanbide Hastapenatarako Ikastegiaren matrikulazio orrian eskatzen diren datuak bat datozen datu babesaren arloko araudiarekin, bereziki Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 5. artikuluan xedatutakoarekin.

Hasteko, 2/2004 Legearen 5. artikulua dioena ekarri behar dugu hona. Hona hemen:

“5. artikulua.– Datu pertsonalak biltzea

Lege honetako 2.1 artikuluan aipaturik dauden herri- administrazioek eta gainerako erakunde, korporazio eta entitateek beren aginpideak gauzatzeko egokiak, beharrezkoak eta neurrikoak dituztenean baino ezin ditzakete bildu, tratatzeko asmoz, datu pertsonalak. Legez bestelakorik agintzen ez bada behinik behin, datu horiek biltzeko ez da tartean direnen adostasuna eskatu behar, baina biltzerakoan datu horiek zituzten helburu jakin, zehatz eta zilegiatarako bakarrik erabili behar dituzte, nahiz eta gero helburu historiko, estatistiko edo zientifikoetarako erabil daitezkeen, aplikatu beharreko legeen arabera.”

Artikulu horretan datuen kalitatearen printzipioa jasotzen da. Printzipio hori eta informazioaren eta adostasunaren printzipioak datu pertsonalen babeserako funtsezko zutabeak dira. Printzipioz Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoaren 4.1 artikuluan ere jasota daude, ikusi bestela 4.1 artikulua dioena:

“Datu pertsonalak jaso eta tratatu ahal izateko ezinbesteko baldintza da datu horiek egokiak, bereizleak eta neurrikoak izatea, datu bilketaren eremuarekiko eta datu bilketaren helburu zehatz, esplizitu eta legitimoekiko”.

Datuen kalitatearen printzipioaren xedea ez da datu-tratamenduari mugak jartzea, datu pertsonalen tratamenduan proportzionaltasuna behar dela argi uztea baizik. Zentzu horretan, horri buruz dagoen jurisprudentzia guztiaren artetik, hona ekarri dugu Auzitegi Nazionalaren Administrazioarekiko Auzietarako Salaren 2001eko martxoaren 9ko epaiak xedatutakoa:

“Datu pertsonalen tratamendu automatizatuari buruzko legediaren oinarrian dagoen printzipioetako bat datuen kalitatea da. Printzipio horren ondorioz, besteak beste, datuak beharrezkoak eta bereizleak izan behar dute datu-bilketa edo datuak erregistratu beharra ekarri zuen helburuarekiko.”

Kontsultaren funtsa kontuan hartzen badugu, nahitaez lotu behar ditugu datuen kalitatearen printzipioa eta lege ordenamenduak adin txikikoei aitortzen dien babes berezia.

Horren inguruan, Haurren Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 1/08 Laneko Dokumentua onartu berri dute. Dokumentua 29. artikuluko Lan Taldeak egin du (Lan Talde horretan daude bilduta estatu kideen datu babesari buruzko araudia berrikusteko ardura duten Europako Agintaritzak). Bestalde, Laneko Dokumentuaren xedea da haurren datu pertsonalen babesari buruzko printzipio orokorrak aztertzea eta azaltzea ea beharrezkoak diren ala ez berariazko arlo kritiko batean, adibidez, ikastetxeetako datuen arloan.

Laneko Dokumentu horrek honako dio datuen proportzionaltasuna dela eta:

“ez dira datu gehiegi eskatuko: adibidez, beti ez dira beharrezkoak izango gurasoen titulu akademikoak, lanbidea edo lan egoera. Tratamendu kontrolatzaileek ondo aztertu beharko dute ea benetan beharrezkoak diren. Kontu handiz jokatu behar da, horrelako informazioek diskriminazioa eragin dezaketelako.”

Datuak Babesteko Espainiako Agentziak Laneko Dokumentu horri buruzko informazio ohar bat argitaratu du eta bertan honako baieztapena egin du:

“Zentzu honetan, 29 LTaren dokumentuak gomendio bat egiten die ikastetxeei, hau da, adin gabekoen familiei buruzko edo osasunari buruzko datu sentisibleak helburu jakinekin baino ez ditzaten bildu, adin gabekoen pribatutasuna babestu nahi badute. Adibidez, ikastetxeei esaten die ikasleei buruzko fitxetan ez dela datu pertsonal gehiegi agertu behar, eta nahitaezkoa dela datu bilketaren helburuari buruzko eta datu horiekin egingo diren erabilerei buruzko informazioa ematea adin gabekoen ordezkari, eta, hala badagokio, adin gabekoei ere bai.

Eta ez hori bakarrik, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa garatzeko abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuaren 13.2 artikulua ere (aurreikusita dago Errege Dekretu hori apirilaren 19an sartuko dela indarrean) honako xedatzen du:

“Inoiz ere ezin izango zaio adin gabekoari familiako gainerako kideei buruzko informazioa lortzea ahalbidetuko duen daturik eskatu, edo familiaren ezaugarriei buruzko daturik eskatu, esate baterako gurasoen jarduera ekonomikoari buruzko datuak, informazio ekonomikoa, datu soziologikoak edo beste edozein, baldin eta datu horien titularrek horretarako baimenik eman ez badute. Dena den, aitaren, amaren edo tutorearen identitateari eta helbideari buruzko datuak eskuratzeko modua egongo da, baina soilik aurreko paragrafoan aurreikusten den baimena eskuratzeko.”

II

Aurreko atalean kontuan hartutako guztia ikusita, esan dezakegu XXXXXko Lanbide Hastapenerako Ikastegiaren matrikulazio orriak eskatzen dituen datu batzuk gehiegizkoak direla, eta, beraz, urratu egiten dutela 2/2004 Legearen 5. artikulua eta Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoaren 4. artikulua jasotzen duten datuen kalitateari buruzko printzipioa.

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak ezin du erabaki matrikulazio orrian zeintzuk datu jaso daitezkeen eta zeintzuk ez, eta kontu handiz jokatu beharra du kontsulta egilearen eskumenekoak diren kontuetan esku-sartzerik ez egiteko. Baina bada, erakunde honen eginkizuna, ordea, kontsulta egileari irizpide batzuk ematea behar bezala batera ditzan bere eskumenak eta datu pertsonalen babeserako eskubidea, horixe baita irizpen honen xedea.

ONDORIOA

XXXXXXko Udalaren kontsultan aipatzen den Lanbide Hastapenerako Ikastegirako matrikula orriak datu pertsonalen babesaren arloko araudia urratzen du, datuen kalitatearen printzipioa hausten duten datuak jasotzen dituelako; izan ere, gehiegizkoak dira bilketaren helburuarekiko.

3. KORPORAZIOKO KIDEEK SARBIDEA IZATEA UDALEKO SARREREN ETA IRTEEREN ERREGISTROAN

XXXXXXKO UDALAK ONDOKO GAIARI BURUZ EGINDAKO KONTSULTAREN GAINEKO IRIZPENA: EA ERREGISTROKO SARRERAK ETA IRTEERAK LAGA AHAL ZAIZKIEN KORPORAZIOKO KIDEEI.

CN08-003

AURREKARIAK

LEHENENGOA. Datuak Babesteko Euskal Bulegoak Xxxxxxko Udalaren idazki bat jaso zuen. Idazki horren bidez, Aldundiak goiburuan adierazitako gaiari buruzko txostena egiteko eskatzen zuen.

BIGARRENA. Eskaera idazkian honako adierazten da:

- Udal hau, datu pertsonalen babesari buruzko araudia betetzeko asmoz, toki administrazio honek berak kudeatzen dituen fitxategietan jasota dauden datu pertsonalen segurtasuna bermatzeko urratsak ematen ari da gaur egun.
- HORI DELA ETA, SARREREN ETA IRTEEREN fitxategiaren tratamendu kontrolatzaileek honako zalantza hau dute :
- Udalak sarrerren eta irteeren erregistroaren zerrenda osoa ematen die korporazioko kideei eta, horretaz gain, eskatzen duten edozein agiriren kopia ere ematen diete, korporazioko kideek uste dutelako ezinbestekoa dela haien eginkizunetarako eta beharrezkoa dela Administrazioak izapidetzen duen guztiaren berri izateko.
- Hori egitean datu pertsonalen babesaren inguruko araudia betetzen den jakiteko txosten eskatzen da.

HIRUGARRENA. Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17.1 artikuluko n) letrak honako eginkizuna esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

“Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkieten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkieten galderei erantzutea.”

Beraz, goiko arau hori kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egin diguten galderari erantzuteko txostena egitea.

KONTUAN HARTZEKOAK

I

Xxxxxxko Udalak bidali digun kontsulta-idazkiak planteatzen duen bezala, bene-benetan erantzun behar den galdera da ea oinarritzko bi eskubideen arteko “gatazka” ote den, hau da, politikan parte hartzeari buruzkoa (Konstituzioaren 23. artikulua) eta datu pertsonalak babesteari buruzko eskubidea

Jarraian galderari erantzuten ahaleginduko gara eta, horretarako, ez dugu joko hainbeste eskubide bat bestea baino “garrantzitsuagotzat” jotzen duen bidetik (Valentziako Auzitegi Nagusiaren 2005eko ekainaren 1eko Epaiak erabili zuen izendapena erabilita), baizik eta bide interpretatiboago batetik, aurreko hori gainditzea eta eskubide biak bateratzea edo orekatzea ahalbideratzen duena, eskubide bien titularrei horietaz baliatzeko aukerari kalterik egin gabe.

II

Beraz, erantzuten saiatzeko egin daitekeen lehendabiziko gauza da gogora ekartzea zinegotzien informaziorako eskubidearen edukiaren gainean Auzitegi Gorenak eman duen doktrinaren osagai garrantzitsuenak izan daitezkeenak.

Gai honetaz arduratu diren epai mordo bat dago (1998ko ekainaren 27ko, 1998ko maiatzaren 8ko, 1999ko azaroaren 9ko, 2002ko urriaren 11ko, 1989ko uztailaren 19ko, 2000ko azaroaren 17ko, 1999ko maiatzaren 5eko, 1997ko apirilaren 21eko edo 2000ko martxoaren 14ko Auzitegi Gorenaren Epaiak). Beraz, epai horietatik ondo finkatutako jurisprudentzia ondoriozta daiteke.

Zinegotzien informaziorako eskubidea dela eta, bat etor gaitezke esatean honako hauek direla doktrina horren funtsezko oinarriak:

1.- Informaziorako eskubidea funtsezkoa da zinegotziak duen ordezkaritza eginkizuna behar bezala gauzatzeko. Beraz, informazio eskubidea Konstituzioaren 23. artikuluan xedatzen den politikan parte hartzeko oinarriko eskubidearen funtsezko edukia da, batez ere artikuluko horren bigarren puntuarena; izan ere, karguetara heltzeko eskubidea era arbitrarioan kaltetu edo murriztuko balitz, beharrezko informazioa ukatuz, Konstituzioak ere eraginkortasuna galduko luke.

2.- Hainbat legetan jasota dagoen eskubidea da. Eskubide horren araubide juridikoa honako lege hauetan dago jasota: Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen (TAOL) 77. artikuluan, Toki-korporazioen Antolaketari, Funtzionamenduari eta Lege-erregimenari buruzko Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 14., 15. eta 16. artikuluetan eta udal bakoitzeko erregelamendu organikoan.

3.- Lege-erregimen horren arabera (eta batez ere TAOLen 77.1 artikulua eta AJAren 14.1 artikulua xedatutakoaren arabera), zinegotzien informaziorako eskubidea “haien eginkizuna burutu ahal izatearekin” guztiz lotuta agertzen da, batez ere, TAOLen 22. 2 a) artikulua xedatutakoa kontuan hartuz gero, hau da “gobernu organoen kontrolatzeko eta fiskalizatzeko” eginkizuna. Izan ere, eginkizun horrek “informaziorako eskubidea babesteaz gain, agintzen du datuak jakin egin behar direla, udalbatzaren osoko bilkuran ezer proposatu, eztabaidatu eta onartu aurretik” (1988ko abenduaren 7ko AGE), informazioa eskatzearen funtsa zinegotziek gobernuaren egintza kontrolatzeko duten berezko eginkizunean dagoelako (1988ko ekainaren 27ko AGE).

Beraz, zinegotzi diren aldetik, eskubidea dute udal kudeaketa behar bezala ezagutzeko beharrezkoak diren aurrekariak, datuak eta txostenak eskuratzeko, baldin eta haien eginkizunen artean dauden gaiei buruzkoak badira eta gobernuaren jardura fiskalizatzeko eta kontrolatzeko eginkizunerako badira, eta aurrekari, datu eta dokumentu horiek eskuratzeko ezinbestekoa bada haiei dagokien fiskalizazioa gauzatzeko. Gainera, “Korporazioari dagokio zinegotziak duen helburua informaziorako eskubideaz baliatzea izan beharrean, beste bat dela frogatzea (1995eko abenduaren 5eko AGE, 1997ko maiatzaren 28ko AGE eta 1998ko maiatzaren 7ko AGE).

Ezinbestekoa da Kanarietako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko auzien Salaren (Kanaria Handiko Las Palmaseko Sala) ildo bereko 2003ko azaroaren 24ko Epaiak, epaitzaren oinarrian arrazoi berberak ematen dituelako eta aztertzen duen gaia ere aipagarria delako; izan ere, zinegotziek “Gizarte Gaietako zinegotzigoak irailean eman zituen laguntza guztien espedienteak” eskatu zituztelako.

4.- Baina zinegotzien informaziorako eskubideak ere mugak dauzka. Muga horiek ere lehen aipatu ditugun TAOL eta AJAko artikuluetan aurreikusitako lege-erregimenean jasota daude.

Muga horietako bat da gorago esan dugunaren atzealdea edo. Hau da, informaziorako eskubidea zinegotzien eginkizunak gauzatu ahal izateko onartzen da eta ez “informazioa bildu eta hedatzeko edo jakin minagatik edo esamesaka aritzeko edo bestelako gezurrezko helbururen baterako”. (Kanaria Handietako Auzitegi Nagusiaren 2003ko apirilaren 24ko Epaiak).

Modu berean, “korporazioetako kideei onartzen zaien eskubide hau arrazoitua izan beharko da, eta arrazoitua izan beharko da hori ukatzen duen ebazpena” (Andaluziako Auzitegi Nagusiko Granadako Salaren 1988ko uztailaren 30eko Epaia), eta zentzu horretan “udal gaien ingurukoa baizik ezingo da izan” (2000ko azaroaren 17ko AGE).

III

Bestalde, Konstituzioaren 18.1 artikulua eta 4. artikulua jasotzen dituzten oinarritzko eskubideak (intimitaterako eskubidea eta datu pertsonalen babeserako eskubidea hurrenez hurren) direla eta, horien gainean konstituzioak ezarri duen doktrina guztia birpasatu beharrik gabe, esan daiteke lehendabiziko eskubidea finkatutzat eman zuela honakoak:

“Konstituzioaren 18.1 artikulua aitortu zuen norbanakoen intimitaterako eskubidea norberaren nortasunarekin guztiz uztartuta dagoen oinarritzko eskubide moduan eratu zen, Konstituzioaren 10.1 artikulua aitortzen duen pertsonaren duintasunean du jatorria eta “norbere esparru propioaren beharra dakar, besteen jardueretatik eta ezagutzatik at dagoena, eta, gure kulturaren arauen arabera, ezinbestekoa dena gizakiaren bizitzak gutxieneko kalitatea izan dezan”. (urriaren 14ko 170/1997 KAE,, 4. arrazoibidea; abenduaren 1eko 231/1988 KAE, 3. arrazoibidea; urriaren 17ko 197/1991 KAE, 3. arrazoibidea; otsailaren 28ko 57/1994 KAE, 5. arrazoibidea; maiatzaren 9ko 143/1994 KAE, 6. arrazoibidea; abenduaren 16ko 207/1996 KAE,, 3. arrazoibidea; eta azaroaren 8ko 202/1999 KAE, 2. arrazoibidea, beste askorekin batera). urriaren 18ko 156/1990 KAE”

Konstituzioaren agindu horren 4. atala dela eta, azaroaren 30eko KAEk berariaz ezartzen du honakoa:

“Datu babeserako eskubidearen bidez norbanakoei datu horietaz baliatzeko ahalmena bermatzen zaie. Berme horrek, alde batetik, debekatu egiten die botere publikoei datu horien iturri izatea, baldin eta horretarako nahikoa berme ez badute, eta bestetik, derrigortu egiten ditu arriskuei aurrea hartzea, gerta daitekeelako informazio hori behar ez bezala erabiltzeagatik informazioa bidegabe atzitzea edo zabaltzea. Baina norbera norbere datu pertsonalez baliatu ahal izateko boterea alferrik da, ukituak ez baldin badaki zeintzuk datu dauzkaten hirugarrenek, nortzuk dauzkaten eta zertarako.

...

Horrela izanik, datu babeserako oinarritzko eskubidea ez da bakar-bakarrik pertsonaren datu intimoetara mugatzen, baizik eta edozein motatako datu pertsonaletara, intimoa izan ala ez, kontuan izanik, hirugarrenek horien berri izanez gero edo horiek erabiliz gero, datuen jabearen eskubideei kalte egin diezaieketela, oinarritzko eskubideak izan ala ez, bere helburua ez delako bakar-bakarrik norbanakoaren intimitatea, norbanakoen intimitatea babesteko Konstituzioaren 18.1 artikulua baitago, baizik eta datu pertsonalen babesa. Ondorioz, datu pertsonal publikoak ere harrapatzen ditu; izan ere, edonork eskuratzeko modukoak badira ere, ukituak baino ez du haietaz baliatzeko ahalmena, ukituak datu babeserako duen eskubideak horrela izan dadin bermatzen duelako. Horregatik hain zuzen ere, datuak pertsonalak direlako, pertsonaren bizitza pribatuari edo intimoari buruzko datuez gain, pertsona identifikatzen duten edo identifikagarri egiten duten datu guztiak daude babestuta, hau da, pertsonaren arraza, profil ideologikoa, sexuala, ekonomikoa edo beste edozein profil osatzeko balio duten datuak edo egoera jakin batzuetan norbanakoentzat kaltegarriak izan daitezkeen bestelako helburuetarako erabilgarriak izan daitezkeen datuak.

Orain arteko jurisprudentzia guztia gogora ekartzeak garrantzi handia badauka, beste hainbeste du, txosten honen ondorioetarako, behin eta berriz aipatzen ari garen eskubideek zenbaitetan izan ditzaketen mugak, eta muga horiek araututa daude.

Beraz, ez dago gaizki gogora ekartzea Europako Parlamentuaren datu pertsonalen tratamenduaren arloan pertsona fisikoak babesteari buruzkoa eta datu horien zirkulazio libreari buruzko 1995eko urriaren 24ko 95/46/CE Zuzentarauak eskubide horri zenbait muga jartzeko

aukera aurreikusten duela. Une honetan 13.1 artikuluan aurreikusitakoa hartuko dugu kontuan. Hona:

“Estatu kideek lege aldetik hartu beharreko neurri guztiak hartu ahal izango dituzte, 6. artikuluko 1. paragrafoan, 10. artikuluan, 11. artikuluko 1. paragrafoan eta 12. eta 21. artikuluetan jasotako betekizun eta eskubideen irispena mugatzeko, baldin eta mugapen hori ezartzea beharrezkoa bada honako hauek babesteko:

6.- kontrolatzeko, ikuskatzeko edo arautzeko funtzioak, baldin eta, aldian behingoa izanda ere, agintaritza publikoen zereginekin zerikusia badu, c), d) eta e) idatz-zatietan jasotako egoerei dagokienez.”

Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziara jotzen badugu berriro, han ere muga horiek definitzen aritu dira. Eta, honako hau ezarri du behin eta berriz:

“Honakoa ere Epaitegi honen doktrina da: “intimitaterako eskubidea ez da erabatekoa, oinarritzko gainontzeko eskubideak ere ez diren bezala, eta Konstituzioaren arabera garrantzi handia duten zenbait interes haien gainetik jar daiteke, eskubidea murriztea ezinbestekoa bada lortu nahi den helbururako, proportzionala bada, eta eskubidearen funtsezko edukia ez badu urratzen» (Konstituzio Epaitegiaren 57/1994 Epaia 6. arrazoibidea eta 143/1994 Epaia 6. arrazoibidea eta gainontzekoak).”

Lehen aipatu dugun 292/2000 KAEk ere honakoa xedatzen du:

“norbere datu pertsonalak bildu eta tratatu ditzaten adostasuna adierazteko eskubideak (DBLOren 6. artikulua) ez du esan nahi datu horiek hirugarrenei lagatzeko baimena ematen denik; izan ere, norbere datuak hirugarrenei lagatzeko baimena datu babeserako oinarritzko eskubidearen edukia barruko ahalmen berezietako bat baita: Beraz, datu bilketa egitean zegoen helburua ez den beste helburu bat duen tratamendu baterako laga nahi badira, nahiz eta helburuak bateragarriak izan (DBLOren 4.2 artikulua), horrek esan nahi du beste batek izango dituela datuak eta beste erabilera bat egingo dela, eta horretarako, interesdunaren adostasuna beharko da. Adostasunaren ahalmenak duen muga bakarra dira konstituzioaren arabera funtsezkoak diren eskubideak eta ondasunak. Beraz, arrazoitua eta proportzionala izan behar du eta legez ezarria, datu pertsonalen babeserako oinarritzko eskubideak ez duelako bestelako mugarik onartzen”.

IV

Horrela bada, oinarritzko eskubide bi horiek zedarritu ondoren, eta ikusirik, DBLOren 11.2 a) artikulua arabera, lagapena lege batek baimentzen badu ez dela beharko interesdunaren adostasunik, ondoriozta daiteke Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 77. artikulua dela udaletako zinegotziei datua lagatzeko baimena ematen duen lege-araua. Beraz, oro har horrela egindako datu komunikazioak ez du 18.4 artikuluan jasotako oinarritzko eskubidea urratzen laga behar diren datuen titularren kasuan.

Hala eta guztiz ere, planteamendu orokor hau kasu bakoitzari aplikatu behar zaio eta kasu bakoitzeko baldintzak kontuan hartuta. Baldintza horiek kontuan hartuta eta goiko interpretazio hori gainditzen duen erantzun bat lortu nahian, esan behar da erantzunak zinegotzien parte hartze politikorako eskubidea ahalbideratzeaz gain, ez diola funtsezko kalterik egin behar herritarrek datu pertsonalen babeserako duten oinarritzko eskubideari.

Horrek eskatzen du, gure ustez, mahai gainera ekartzea irizpide orokor hau: datuak garrantzitsuak izan behar direla korporazioko kideei egiten zaien datu komunikazioaren helburuekiko. DBLOren 4. artikuluko 1. eta 2. paragrafoan dago jasota printzipio hori, eta horren arabera:

“1. Datu pertsonalak jaso eta tratatu ahal izateko ezinbesteko baldintza da datu horiek egokiak, garrantzitsuak eta neurrikoak izatea, datu bilketaren eremuarekiko eta datu bilketaren helburu zehatz, esplizitu eta legitimoekiko.

2. Tratatu beharreko datu pertsonalak ezin izango dira erabili datu horiek biltzeko ezarri ziren helburuekin bateraezinak diren helburuetarako.

Datu pertsonalen babeserako lege-araubide guztiek oinarrian duten irizpide hori kontuan hartuta, AJAn dagoen dokumentuen erregistroaren erregulazioa hartu behar da kontuan.

Hori horrela, Antolakuntza eta Jarduerari buruzko Araudiaren (AJA) 151. artikulua ezartzen du Erregistro Nagusiaren helburua dela “sartzen diren dokumentuen sarrera eta behin betiko bidali direnen irteera argi eta garbi jasotzea”.

Araudi horretako 152. artikulua asmoa da bermatzea “toki erakundeak jasotzen dituen edo bidaltzen dituen dokumentu guztien sarrera eta irteera jasotzen dela”.

Azken finean, ezin dela alde batera utzi erregulazio hori jasota dagoela “Administrazio Prozedurari” buruzko kapituluaren 160. artikulua honakoa agintzen diola Erregistroaren arduradunari: “... bulegoetan banatu behar dituela eta han Erregistro lagungarrian jasoko dituztela eta aurrekarietara batuko dituztela, halakorik egonez gero, edo bestela espedienteak hasi edo ireki beharko dela, eta izapidetu”.

Horrekin esan nahi dena da Erregistroa eta udalean izapidetzen diren administrazio prozedurak oso lotuta daudela eta, ondorioz, erregistroaren xederik garrantzitsuenetako bat dela lagungarria izatea prozedura horiek behar bezala izapidetu daitezkeen.

Zalantzarik gabe, Erregistroaren beste helburu bat da udal jardueraren kontrola ahalbideratzea.

Ondorioz, txosten honetan jasotzen den jardunbidea datu pertsonalen babesari buruzko araudira egokitzeko, ezinbestekoa izango zen informazioa eskatu duten zinegotziei komunikatzen zaizkien datuak egokiak, bereizleak eta neurrikoak izatea lortu nahi duten helbururako, hau da, kontrol eta fiskalizazio eginkizunak gauzatzeko edo zinegotziek legez esleituta dauzkaten bestelakoetarako.

Kontrara, komunikazioak ez du datu babesaren arloko araudia beteko, baldin eta datu pertsonalak korporazioko kideei komunikatzen bazaizkie eta datuak ez badira garrantzizkoak eta neurrikoak zinegotziek esleituta dauzkaten eginkizunetarako.

Honako hau da Auzitegi Gorenak gai honen inguruan egindako jurisprudentziatik atera daitekeen konponbidea.

Hori horrela, hona hemen 1998ko otsailaren 9ko AGEk dioena:

Gaiaren muinean sartuz, parte hartzaileetako batek ere ez du zalantzan jartzen udaletako kide diren aldetik, zinegotziek dituzten erabakitze, kontrolatzeko eta fiskalizatzeko eskumenak, ez eta eskumen horietaz baliatu ahal izateko Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 77. artikulua eta Antolaketari, Funtzionamenduari eta Lege-erregimenari buruzko Erregelamenduen 14. artikulua aitortzen dieten eskubidea ere; izan ere, eskubide horren arabera, Korporazioetako kide guztiek dute korporazioko zerbitzuen esku dauden aurrekariak, datuak edo argibideak eskuratzeko eskubidea. Bestalde, hori guzti hori Konstituzioaren 23.1 artikulua barruan dago. Horregatik guztiagatik, ebatzi beharreko gaiaren alderik larriena da Alkatezaren errekurso honen jatorrian zegoen eskaera ukatzeko erabilitako idazkietan eman dituen arrazoiak: Funtzio Estatistiko Publikoari buruzko maiatzaren 9ko 12/1989 Legean ezarritako irizpideak aipatzen dituelako eta irizpide horien artean sekretu estatistikoa arautzen duten 4.2 eta 13. artikulua daudelako eta sekretu horren xedea izatez da intimitaterako oinarritzeko eskubidea babestea, Erroldan jasotako datu pertsonalak direla eta.

Azken finean, ikusten dugu auziaren giltzarria dela gai izatea bi eskubide hauen arteko mugak finkatzeko: batetik, Konstituzioaren 23.1 artikulua zinegotziei aitortzen dien eskubidea gai publikoetan parte hartzeko, eta bestetik, Konstituzioaren 18.1 artikulua herritar guztiei aitortzen dien intimitaterako eskubidea.

Toki Araubideak ez digu gai honi buruzko erantzun zehatzik ematen, nahiz eta Errolda dokumentu publikoa dela aldarrikatu, dokumentu publikoa izan arren Erroldako sarbidea ez delako edonolakoa eta are gutxiago Errolda osatzeko aurrekarietarako sarbidea.

Erantzunik ezean, Funtzio Estatistiko Publikoari buruzko Legeak gai honi buruz jasotzen dituen irizpideetara jo dezakegu inspirazio bila. Hortaz, Lege horretan sekretu estatistikoa bermatzea da helburua, eta sekretuaren xedea da zerbitzu estatistikoetako informatzaileengandik zuzenean jasotako datu pertsonalak helburu estatistikoak ez diren bestelako helburuetarako ez daitezela erabili (14.3 artikulua). Horretarako xedatzen du estatistika arloko langile guztiek dutela estatistika arloko sekretu gorde beharra betetzeko obligazioa (17. artikulua). Bestalde, 4.4 artikulua estatistika zerbitzuei agintzen die, espezialitatearen irizpidea kontuan hartuta, estatistikak egiteko jasotako datu pertsonalak datu horiek eskuratzeko orduan ezarrita zeuden helburuetarako baino ez erabiltzea.

Estatistika eremuko langileen izaera eta udalerri mailan zinegotziek duten herritarren ordezkari izaera ezin diren arren parekatu, egia da zinegotziek legearen babesa dutela, edo alkatearen egintzak kontrolatuz edo fiskalizatuz edo egintzok onartuz, Udal Errolda egiten parte hartzeko. Eta legearen babesa dute, batez ere, Errolda osatzen duten udalerriko egoiliarak eta pasadizokoak benetako egoera islatzen duten ala ez ziurtatzeko. Beraz, zentzu horretan, errekurtsio egileek Alkateari egin zioten Errolda aztertzeko eskaera guztiz bat dator zinegotzien ordezkari izaerarekin, haien asmoa zelako ziurtatzea ea han jasotakoa eta benetako egoera bat zetozen. Nahiz eta, horrek ez duen esan nahi behin haien eginkizuna burutu ondoren, aztertu diren datuen titularren intimitaterako eskubidea kalteku dezaketen datu pertsonalen gaineko sekretu gorde beharra betetzetik salbuetsita daudenik.”

Aipamena luzea izan bada ere, merezi du hona ekartzea, kontsultan planteatzen diren gaiak eta han landutakoak antzekoak direlako eta orduko auzia ebatzeko erabili ziren elementuak gorago ere aipatu direlako.

Beraz, zinegotziek dituzten “erabakitze, kontrolatzeko eta fiskalizatzeko ahalmenetatik” abiatuta, “parte hartze politikorako eskubidearen eta intimitaterako eskubidearen artean dauden mugak ezartzeko”, datuak “zertarako erabiliko diren” hartzen da aintzat. Ondorioz, horrek esan nahi du zinegotziek aurkeztutako errekurtsioa onartu egin behar dela eta zinegotzi errekurtsio egileei aitortu egin behar zaiela eskatu duten informazioa jasotzeko eskubidea.

Eskaerako helbururako datu garrantzitsuak zeintzuk diren behar bezala balioestea lortuz gero, horrek bera emango zuen bidea, Bulego honen ustez, halako oreka moduko bat lortzeko zinegotziek politikan parte hartzeko duten eskubidea behar bezala gauzatu dadin eta datu pertsonalen babeserako pertsonen eskubidea ere funtsean babestuta egon dadin.

Zentzu honetan, kontuan hartzekoa izango zen zinegotziek ere antzeko emaitzak lortzeko aukera izan dezaketela pertsonak izenetik identifikatzeko beharrik gabe, horretarako, DBLOren 11.6 artikulua ezarritako “disoziazio prozedura” erabiliz, hau da, datu pertsonalak tratatzea datu disoziatuak lortzeko moduan. Datu disoziatutzat ulertuko da interesduna edo ukitua identifikatzen uzten ez duen datua.

Edozelan ere, eta azken ohar bezala, gogora ekarri behar da zinegotzien sekretu gorde beharra.

V

Beste alde batetik, erraz ondoriozta daitekeenez, Bulego honek ezin du alde zuzenetik zehaztu zeintzuk kasuak izango den nahitaezkoa zinegotziei datuak komunikatzea, eta lan hori erakunde bakoitzak egin beharko du. Aurreko guztia bere horretan mantenduz, esan daiteke zentzuzkoa eta arrazoizkoa dela baieztatzea ez dirudiela nahitaezkoa denik dokumentuen sarrera eta irteera erregistro liburuko inskripzio guzti-guztiak eta oso-osorik ematea bere horretan. Izan ere, horrelako komunikazio indiskriminatuak egitea ohikoa bada, gehiegikeriaz jokatzeko dela esan beharko zen,

eta beraz, datu pertsonalen babesaren arloko araudiaren kontra ari direla, otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 22. artikuluan aurreikusitako arau-hausteen erregimenaren menpe geratuz.

Legeak Bulegoari aitortzen dizkion eskumenak kontuan hartuta, ordea, Bulegoak egiten diren komunikazioen gaineko kontrola egin dezake gerora, edo eskatu diren arren, egiten ez direnen gaineko irizpena eman.

ONDORIOAK

- 1.- Korporazioko kideei dokumentuen sarrera eta irteeren erregistro liburua modu sistematikoan emanaz gero, ez da betetzen datu pertsonalen babesaren arloko araudia.
- 2.- Zinegotziei datu pertsonalak komunikatu ahal zaizkie, haien kontrol eta fiskalizazio eginkizunak nahiz legez dituzten bestelakoak gauzatzeko eskubideaz baliatu daitezten, hala xedatzen baitute Toki Araubidearen Oinarriak ezartzen dituen Legearen 77. artikulua eta Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 11.2 a) artikulua.
- 2.- Zinegotziei bakar-bakarrik komunikatu ahal izango zaizkie, esleituta dituzten helburu jakinetarako egokiak, beharrezkoak eta neurrikoak diren datu pertsonalak.
- 3.- Datu horiek zeintzuk diren zehaztea eta eskaeraren betekizunak betetzen diren ala ez erabakitzea Udaleko dena delako organoaren zeregina da eta ez beste inorena.
- 4.- Dena delako datu komunikazioa egiten bada, komunikazioak bete egin beharko ditu Udalak segurtasun arloan ezarrita daukan protokoloak (DBLOren 9. eta 20. artikulua eta Datu pertsonalak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa garatzeko abenduaren 21eko Errege Dekretuaren —apirilaren 19an sartu zen indarrean— VIII. titulua: “Datu pertsonalak tratatzeko orduan bete beharreko segurtasun-neurriak”).
- 5.- Edozelan ere, komunikatzen diren datu pertsonalen lagapen-hartzaileak edo lagapen-hartzaileak DBLOren 10. artikuluan xedatutako sekretu gorde beharra bete beharko dute.

4. OUTLOOK-EKO AGENDAN IDENTIFIKATZEA ELKARREN ARTEAN EUSKARAZ KOMUNIKATU NAHI DUTEN LANGILEAK

EUSKO JAURLARITZAKO XXXXXX ZUZENDARI JAUN/ANDREAK EGINDAKO KONTSULTA HONEN GAINEKO IRIZPENA: "OUTLOOKEKO AGENDAN IDENTIFIKATZEA HARREMANAK ESKARAZ IZAN NAHI DITZUTEN LANGILEAK".

CN08-005

AURREKARIAK

LEHENENGOA: 2008ko otsailaren 1ean Eusko Jaurlaritzako XXXXXX zuzendari jaun/andrearen idazki bat jaso genuen Datuak Babesteko Euskal Bulegoan. Idazki horren bidez, goian aipatzen den gaiari buruzko txostena eskatzen zen.

BIGARRENA: Kontsulta idazkian honakoa adierazten da:

Honekin batera bidaltzen dut harremanak euskaraz izan nahi dituzten langileak outlookeko agendan identifikatzari buruzko XXXXXX zuzendari jaun/andrearen idazkia, proposamena azter dezazuen datu pertsonalak babesteari buruzko legearen ikuspuntutik.

Xxxxxx zuzendariak Informatika eta Xxxxxxx zuzendariari bidalitako idazkiak honakoa dio:

Esan bezala, Outlookeko zerrendan markaren bat jarri nahi dugu, Outlookeko zerbitzuaren bidez euskaraz komunikatzea nahiago duten langileak identifikatzeko.

Euskara erabiltzeko planak jarri ditugu abian ia sail gehienetan eta koordinazio lanak Xxxxxxtik egiten ditugu. Sailetak arduradunek eskatu digute planetako ekintzetako bat izan daitekeela identifikatzea komunikazioak batez ere euskaraz egin nahi dituzten pertsonak.

Identifikazioa egiteko, zehatz beteko dira arlo horretako araudia eta finkatzen diren prozedurak, esate baterako, interesdunari idatziz eskatuko zaio adostasuna, eta horrela bete egin nahi dugu Datu pertsonalak babesteari buruzko Legeak xedatutakoa eta zuen Bulegoak ematen digun edozein gomendio.

Ekintza hau martxan jartzeko gogo handia dugu, uste dugulako oso baliagarria izan daitekeela euskaraz egiten diren komunikazioak ugaltzeko eta aukeran euskaraz komunikatzea nahiago duten euskaldunei ere lagundu egin ahal zaie.

HIRUGARRENA: Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17,1 artikuluko n) letrak honako eginkizuna esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

"Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkioten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderei erantzutea."

Beraz, goiko arau hori kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egin diguten galderari erantzuteko txostena egitea.

KONTUAN HARTZEKOAK

I

Hasteko, Jaurlaritzaren Lehendakariordetzako eta Ogasun eta Herri Administrazio Saileko eta sail horri atxikitako erakunde autonomoetako datu pertsonalei buruzko fitxategiak arautzen dituen Jaurlaritzaren lehendakariorde eta Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2004ko

martxoaren 2ko agindua aldatzeko den Jaurlaritzaren lehendakariorde eta Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2008ko urtarrilaren 15eko Agindua aipatu behar dugu. Agindu horren bidez, honako fitxategia sortu zen: “EJASK - Eusko Jaurlaritzaren Administrazioako Sare Korporatiboaren zerbitzuen erabilerari buruzko datuen fitxategia”.

Hona hemen aurreikusitako helburuak eta erabilerak: “Eusko Jaurlaritzako posta elektronikoko zerbitzuen eta informazio sistemen erabiltzaileak administratzea”.

Honako pertsona edo talde hauen datuak jasoko dira: “Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren langileak, EJASKera eta bere zerbitzuetara sarrera dutenak”.

Azkenik, fitxategiaren oinarritzko egitura dela eta, fitxategian dauden datuak honakoak dira: identifikazio datuak, enpleguari buruzko xehetasunak eta transakzioei buruzko datuak.”

Fitxategi hori aipatu dugu, pentsatu behar delako kontsultan aipatzen den aukerak, hau da, — aukeran euskaraz komunikatzea nahiago duten langileak “Outlookeko agendan” identifikatzeak— fitxategia aldatu beharra ekarriko lukeela, eta fitxategiaren egituran beste datu pertsonal bat gehitu beharko litzatekeela. Gehitu beharreko datu hori aukera horretaz baliatu nahi duten pertsonen gainekoa izango zen.

II

Bestalde, datu hori fitxategian gehituz gero, horrek datuaren tratamendua ekarriko du. Izan ere, Datu pertsonalak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 3 c) artikulua datu tratamenduari buruz ematen duen definizioari begiratzen badiogu, datu bat jaso, grabatu eta gordetzea ahalbideratuko duen operazio bat egingo da.

DBLOren 6.1 artikulua honakoa xedatzen du:

Datu pertsonalen tratamenduak interesdunaren adostasun garbia beharko du, legeak besterik xedatu ezean.

Xxxxxxxko zuzendariaren idazkia ikusirik, eta idazki hori da kontsulta honen jatorria, erraz ondoriozta daiteke (laugarren paragrafoa) aurreikusitako tratamendu egiteko, titularren adostasuna eskatzeko asmoa dagoela.

Beraz, hori horrela bada, datua gehitzeko era hori ondo lotzen da DBLOren 6.1 artikuluan xedatutakoarekin.

III

Azkenik, ikusita XXXXXXXXXko Zuzendaritzak Bulego honen eginkizuna den gaiak agertzen duen interesa edo jakin mina, Bulegoak ere zehatz erantzun nahi dio, eta horretarako, proiektatutako operazioan bereziki kontuan hartzekoak diren datu babesaren arloko irizpideak ekarri nahi ditu gogora.

Hori horrela izanik, gure ustez, informazioari buruzko printzipioa argitzea da interesatzen zaien lehendabiziko puntua. Hori ulertzen dugu Zuzendaritzak honakoa esaten duenean: “... idazkian Datu pertsonalak babesteari buruzko Legea aipatu nahi dutela”.

Konstituzio Epaitegiaren jurisprudentziak printzipio horri buruz duen funtsezko iritzia adierazi du, oinarritzko eskubide hori behar bezala bermatuta egon dadin.

Konstituzio Epaitegiaren azaroaren 30eko 292/2000 Epaiaren arabera:

Informazioa jasotzeko eskubideaz modu egokian baliatzea bermatzen duten legezko betekizunik ez balitz egongo (DBLOren 5. artikulua), dudarik gabe kaltetuta aterako litzateke interesdunek haien datu pertsonalez baliatzeko eta datu horiek kontrolatzeko duten eskubidea; izan ere, horren eraginez eragozpenak izango litzuketelako oinarritzko eskubide hori osatzen duten beste eskumen batzuez baliatzeko.

Horren ganean gure Bulegoak uste du guztiz komenigarria izan daitekeela “Datu pertsonalak babesteari buruzko Legearen” aipamena egitean, DBLOren 5. artikuluko 1. atalean xedatzen diren puntuei buruzko informazioa ematea idatziz, zehatz eta argi.

Eta hori adostasunaren printzipioarekin guztiz lotuta dago, adostasuna baita aurrera eraman nahi den proiektu honen funtsa eta ardatza. Beraz, 3 h) artikuluan xedatzen den definizioa kontuan hartzen bada, adostasunak askea, argia, berariazkoa eta informatua izan behar du.

Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren doktrinak behin eta berriz dioenez, informazioak honelako izan behar du:

Tratamendu mota eta tratamenduaren helburuari buruzko informazioak osoa eta zehatza izan behar du, eta adostasuna ukatzeko edo ezeztatzeko eskubideari buruzko ohartarazpenarekin. Informazioa horrela eratuta dagoenez, horrelakoa izatea ezinbesteko premisa da interesdunaren borondate adierazpena baliokotzat jotzeko.

Beraz, beharrezko osagai guzti horiek ez dauzkan informazioak proiektu guztia jarriko luke arriskuan, hori ematen du behintzat goiko doktrinari begiratuta, osagai horiek gabe egindako borondate adierazpena ez litzatekeelako behar bezala eratuta egongo.

Horregatik da hain garrantzitsua fitxategian jaso nahi diren datuen titularrari informazio egokia ematea eta Datu pertsonalak babesteari buruzko Legediarekin lotuta ematen den informazioa zehatza izatea eta irizpen honetan jasotako baldintzen arabera izatea.

Azkenik, DBLOren 4.2 artikulua xedatzen duen helburuaren printzipioa aipatu behar dugu:

Ezer baino lehen, pentsatu behar da egin nahi den datu tratamendua egokia, beharrezkoa eta neurrikoa dela lortu nahi den helburuarekiko (datuen kalitatearen printzipioa), eta horrekin batera, ondorio horietarako, ezin da ahaztu Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko Oinarrizko Legearen 5. artikuluko 2. paragrafoan xedatutakoa. Hona hemen:

“Euskal Herriko herritarrei honako funtsezko hizkuntza-eskubide hauek aitortzen zaizkie:

d) Lanbide-jarduerak, langintza, politikagintza eta sindikatu-jarduerak euskaraz egiteko eskubidea.”

Ikusirik datua beharrezkoa dela eta DBLOren 4. artikuluko 1. atalaren arabera dela, ezin da gogora ekarri gabe utzi, bien arteko harremana ikusita, artikulua bereko bigarren atalean xedatutakoa. Hona hemen:

Tratatu beharreko datu pertsonalak ezin izango dira erabili datu horiek biltzeko ezarri ziren helburuekin bateraezinak diren helburuetarako.

Beraz, datuaren tratamendua beharrezkoa izan behar bada lortu nahi den helbururako eta tratamenduaren helburua zehaztuta egon behar bada, nekez aurki daiteke datuaren “bestelako” erabilerarik 4.2 artikulua xedatutakoa urratu gabe, nahiz eta artikulua horretan erabilera “bateraezinak” aipatzen dituen gauza bera adierazteko.

Konstituzio Epaitegiak ere ondorio bera ateratu zuen azaroaren 30eko 292/2000 Epaian xedatzen duenez:

Datu pertsonala biltzeko eta tratatzeko adostasuna adierazteko eskubideak ez du esan nahi datu horiek hirugarrenei lagatzeko baimenik eman behar denik... Eta, beraz, datu horiek ezin zaizkio hirugarren bati laga datu biltzeko egin zeneko helburua ez den beste baterako, nahiz eta helburuak bateragarriak izan, hori eginez gero, beste batek izango dituelako datuak eta erabilera ere beste bat izango delako, eta horretarako, interesdunaren adostasuna behar da.

Audientzia Nazionalaren 2005-06-15eko 15/06/2005eko Epaiaren 669/2003 errekurtsioak honakoa dio:

“...DBLOren 4. artikulua arabera badirudi datu bilketaren helburuaren eta tratamenduaren helburuaren artean ezberdintasun txiki bat dagoela, hau da, datu bilketa bakar-bakarrik helburu jakin, esplizitu eta legitimoekin egin behar bada, bilketa osteko tratamenduaren helburuak datu bilketako helburuekin bateragarriak izan behar dute. Beraz, 1995eko urriaren 24ko 95/46/CE Zuzentarauaren 1 b) artikulua arabera (DBLOren 4.2 artikulua Zuzentarauaren testuan oinarrituta dago), datu bilketa helburu jakin batzuetarako egiten bada eta datu horiekin geroago egiten diren tratamenduek beste helbururen bat badute, esan behar da helburuak ez dira bateragarriak edo bateraezinak direla. Beraz, testuinguru horretan helburuak desberdinak edo bateraezinak direla esaten denean, gauza behar esan nahi da”.

Ondorioz, datuak ezin dira tratatu datu bilketako helburuak ez diren beste helburu batzuetarako, hori datuen erabilera berri bat izango litzatekeelako eta interesdunaren adostasuna beharko litzatekeelako.

Horrela agerian jarri nahi da datua goiko baldintza horien arabera tratatu behar dela eta tratamendu kontrolatzaileak arretan handia jarri behar duela datuen erabilerak ere helburuaren araberrak izan daitezkeen eta ez daitezkeen beste ezertarako erabili, nahiz eta beste erabilera hori guztiz legezkoa izan; izan ere, beste zer edo zertarako erabiliz gero, beste tratamendu bat izango zen, eta, horretarako, datuen titularraren adostasuna beharko zen berriro.

Aurreko arrazonomendua berez lotzen da 4. artikuluko 1. atalean xedatzen denarekin, hau da, datua harremanetarako ez den beste helburu baterako erabiliz gero, erabilera hori ez litzateke egokia eta beharrezkoa izango eta gehiegizkoa izango zen fitxategia sortzeari buruzko Aginduan deklaraturako helburuarekiko, azken finean, fitxategiaren izaera aldatuko lukeelako.

Azkenik, Bulegoak argi eta garbi utzi nahi du datua pentsatutako moduan jasotzen bada, fitxategi horretarako eraginik gabe utziko lukeela DBLO garatzen duen Erregelamendua onartzen duen abenduaren 27ko 1720/2007 Errege Dekretuaren 2.2 artikulua ematen duen aukera izan ere, artikulua horren arabera, “Erregelamendu hau ez da aplikatuko pertsona juridikoei buruzko datuak dituzten tratamenduekin, ez eta pertsona juridiko horientzat lan egiten duten pertsona fisikoen datuak baino jasotzen ez dituzten fitxategiekin, baldin eta pertsona fisiko horiei buruzko datuak izen abizenak, betetzen duten lanpostua, posta helbidea edo posta elektronikoa, eta laneko telefono-zenbakia eta faxa badira.

ONDORIOAK

1.- Gauzatu nahi den operazioa egiten bada, horrek esan nahi du adostasuna adierazten duten pertsonen gaineko beste datu pertsonal bat gehitu behar dela “EJASK - zerbitzuen erabilerari buruzko datuen fitxategian”, eta horrek hainbat betebeharrak dakartza, irizpen honetako kontu hartzekoen ataleko lehendabiziko puntuan adierazita dagoenaren arabera.

2.- Tratamendu horrek ez du datu pertsonalen babesaren arloko araudia urratsen, irizpen honetako kontu hartzekoen ataleko lehendabiziko eta bigarren puntuan adierazita dagoenaren arabera.

5. UDAL BEREKO BESTE SAIL BATEK SARBIDEA IZATEA ERROLDAKO DATUETAN

XXXXXXKO UDALAK, HERRITARREN ARTEAN EUSKARAREN EZAGUPENA ETA ERABILERA SUSTATZEKO KANPAINAK EGITEKO, UDAL ERROLDAKO DATUAK ERABIL DAITEZKEEN JAKITEKO EGIN DUEN GALDERARI BURUZKO IRIZPENA.

CN08-006

AURREKARIAK

LEHENENGOA. 2008ko otsailaren 11n Xxxxxxko Udaleko Euskara, Hezkuntza eta Gazteriako zinegotzi ordezkari Xxxxxx andreak izenpetutako idazki bat jaso genuen Datuak Babesteko Euskal Bulegoan. Idazki horren bidez, zinegotziak goian aipatzen den gaiari buruzko txostena eskatzen zuen

BIGARRENA. 2008ko otsailaren 12an Xxxxxxko Udaleko Kultura, Euskara eta Hezkuntzako teknikaria den Xxxxxx andreak bidalitako posta elektroniko bat jaso genuen Datuak Babesteko Euskal Bulegoan. Bertan adierazten zuen kontsulta ofiziala postaz bidali zutela, baina haien zatitzaile premiazkoa zela guk erantzutea ea udal erroldako datuak erabil zitzaizkion 2007an jaiotako haurren gurasoei gutunak bidaltzeko zuzenbide-landaketa ekitaldi batera gonbidatuz. Ekitaldian zuzenbidei haurren izenak jarri nahi zitzaizkien.

HIRUGARRENA. 2008ko otsailaren 13an posta elektroniko bat bidali genion Datuak Babesteko Euskal Bulegotik Xxxxxx andreari, berak egindako galderari erantzunez. Horrez gain, horrelako beste kontsulta baten gainean Datuak Babesteko Euskal Bulegoak lehenago egindako txosten bat ere bidali zitzaion mezuari erantsita.

LAUGARRENA. Otsailaren 15ean Datuak Babesteko Euskal Bulegoan Xxxxxx andreak bidalitako mezu elektroniko bat jaso genuen. Mezu horretan adierazi zuen galdera erantzunda zegoela ulertzen zutela, baina asko eskertuko zutela erantzun ofizial bat.

BOSGARRENA. Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeko buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17. artikuluko n) idatz-zatiak honako eginkizuna esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

“Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkioten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderei erantzutea.”

Beraz, goiko arau hori kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egin diguten galderari erantzuteko txostena egitea.

KONTUAN HARTZEKOAK

I

Galderak berak adierazten duen bezala, Xxxxxxko Udala kezkatzen duen gai honi erantzun ahal izateko, ezinbestekoa da udal errolda arautzen duen lege erregimena aintzat hartzea.

Udal erroldaren lege erregimenak honakoak jasotzen ditu oinarrian: Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen legearen 15., 16. eta 17. artikulua —TAOL aldatzen duen urtarilaren 10eko 4/1996 Legearen idazketaren arabera— eta Atzeritarrei buruzko azaroaren 20ko 14/2003 Legea.

Irizpen honen ondorioetarako, aipatzekoa da 16. artikulua, honakoa xedatzen baitu:

“1. Udalerriko errolda udalerriko auzotarrak jasota agertzen dituen administrazio-erregistroa da. Erroldako zehaztasunak udalerrian bizilekua izan eta bertan ohiko egoitza izatearen frogara dira.

Zehaztasun horien gainean emandako ziurtagiriak agiri publiko eta fede-emaileak izango dira administrazio-ondorio guztietarako.

Udalerriko erroldan inskribatzeak lege honetako 15. artikuluan xedatutakoaren arabera baino ez du izango eraginik, eta inskripzioa eragin duen gertaerak dirauen artekoa izango da; nolana ere, aldiro berritu beharko da, bi urtetik behin, bizileku iraunkorra izateko baimenik ez duten Europako Erkidegokoak ez diren atzeritarren inskripzioaren kasuan.

Aurreko lerroaldean aipatutako epea igarotzea, baldin eta interesatuak inskripzioa berritu ez badu, aldiro berritu behar diren inskripzioen iraungipena erabakitzeak arrazoiz izango da. Kasu horretan, interesatuari aldeztu aurretik entzun beharrik izan gabe aldarrikatuko da inskripzioaren iraungipena.

2. Udalerriko erroldako inskripzioan hauek dira nahitaez jaso beharreko zehaztasun bakarrak:

a) Izen-abizenak

b) Sexua.

c) Ohiko egoitza.

d) Naziotasuna.

e) Jaiotekua eta jaioteguna

f) Nortasun-agiri nazionalaren zenbakia; edo, atzeritarren kasuan: Espainiako agintariak emandakoa izan eta indarrean dagoen bizileku-txartelaren zenbakia, edo halakorik eduki ezean, jatorrizko herrialdeko agintariak eman eta indarrean dagoen nortasuna egiaztatzeak agiriaren edo pasaportearen zenbakia, bai Europar Batasuneko kide diren estatuetakoa herritarren kasuan, zein Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioan parte diren beste estatuetakoa herritarren kasuan, nahiz nazioarteko itunen baten indarrez aipatutako estatuetakoa herritarrentzat aurreikusitako araubide juridikoa zabalitzen zaien estatuetakoa herritarren kasuan.

Espainiako agintariak emandakoa izan eta indarrean dagoen agirian datorren atzeritar-identifikazioaren zenbakia, edo halako agirien titular ez direlako halakorik eduki ezean, jatorrizko herrialdeko agintariak eman eta indarrean dagoen pasaportearen zenbakia, paragrafo honetako aurreko puntuan jaso ez diren estatuetakoa herritarren kasuan.

g) Bakoitzak daukan eskolako ziurtagiria edo titulua, edo titulu akademikoa

h) Hautesle-errolda egiteko beharrezkoak diren beste zehaztasun guztiak, Konstituzioan onartutako oinarritzko eskubideen errespetua bermatuta beti ere.

3. Udalerriko erroldako zehaztasunak doakionaren aldeztu aurretik gabe emango zaizkie zehaztasunok eska ditzaten beste administrazio publikoei, bakoitzari bere eskumenak betetzeko beharrezkoak dituenen bakarrik, eta bizilekuari zein egoitzari dagokienez zehaztasunok esanguratsuak diren gaitetarako soil-soilik. Balio dezakete, halaber, estatistikako isilekotasunaren menpeko estatistika ofizialak egiteko, Estatistikako Funtzio Publikoaren maiatzaren 9ko 12/1989 Legean eta gai horren gainean eskumenak dituzten autonomia erkidegoetako estatistika legeetan aurreikusitako eran.

II

Udal erroldan jasotako datuen izaera dela eta, jurisprudentziak behin eta berriro adierazi du honakoa:

“Udal erroldako datuak konfidentzialak dira, erroldatuta dauden pribatutasunaren eremuko datuak jasotzen dituelako, hala ondorioztatzen baita Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 16. artikulutik. Bestalde, artikulua horretan xedatzen dira erroldan nahitaez jaso beharreko datuak. Datu horiek guztiak Datuak babesteko Lege Organikoaren menpe daude, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 16.3 paragrafoan xedatutakoa izan ezik.”

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 16. artikulua xedatzen duenarekin bat, "Udal eroldako datuak" esamoldeak Udal eroldaren helburua behar bezala betetzeko erabiltzen diren datuei egiten die aipamena. Hona hemen eroldaren helburuak: ohiko bizilekua eta egoitza zehaztea udalerrian eta auzotasuna aitortzea, udalerriko biztanleak finkatu ahal izateko. Udal eroldako datuak hori ez den beste helburu baterako erabiltzeko, Datuak Babesteko Lege Organikoak xedatutakoa hartu behar da kontuan, eta ukituen adostasunaren adierazpena beharko da.

Datu babesaren arloko kontrol erakunde guztiek ia iritzi bera dute 16.3 artikulua xedatzen duenari buruz; izan ere, alde batetik uste dute bakar-bakarrik laga daitezkeela eroldaren helburu bera duten datuak (herritarren ohiko bizilekua eta egoitza zehatzea, bertako auzotasuna aitortzea norbaiti eta, azkenik, helbidea eta egoitza egiaztatzea; azken finean identifikazio datuak eta helbideari buruzko datuak dira, eta ez beste era batekoak. Beste alde batetik, uste dute datu horiek bakar-bakarrik laga daitezkeela lagapen-hartzailearen eskumen bat erabili ahal izateko, eta baldin eta egoitza eta bizilekua horretarako datu garrantzitsuak badira. Horrelakoetan, lagapen-hartzaileak egiaztatu egin beharko du horretarako eskumena duela eta eroldako datuak garrantzia handia duela eskumen hori gauzatzeko.

Datu pertsonalak babesteko 15/1999 Lege organikoaren 4.2 artikuluko helburutasun-printzipioa ezartzeak eskumena egiaztatu beharra dakar:

"Tratatu beharreko datu pertsonalak ezin izango dira erabili datu horiek biltzeko ezarri ziren helburuekin bateraezinak diren bestelako helburuetarako. Ez dira joko helburu bateraezintzat datu horiekin gero egiten diren tratamenduak, helburu historiko, estatistiko edo zientifikoetarako badira."

III

Eskumena egiaztatu beharrari buruz esan behar da eroldari Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak ezarritako lege erregimenak ezartzeaz gain, 15/1999 Lege Organikoaren bigarren xedapen gehigarriaren bigarren paragrafoak xedatutakoa ere ezarri behar zaiola:

"Populazioaren fitxategi eta erregistroen xedea izango da Administrazio Publiko bakoitzaren organoak eta kasuan kasuko lurraldeetan bizi diren interesdunak komunikatzea, Administrazio Publiko bakoitzaren eskumenei eratorri harreman juridiko administratiboei dagokienez."

Audientzia Nazionaleko Administrazioarekiko Auzietarako Salak lege-agindu horren interpretazio bat egin zuen 21-4-2004 Epaia bosgarren oinarri juridikoan. Hona hemen:

Datuak Babesteko Lege Organikoaren lege-agindu honek xedatutakoaren arabera, badirudi biztanleriaren fitxategiak edo erregistroak, eta horien artean dago udal erolda, administrazio publikoetako organo desberdinen eta herritarren arteko komunikazioaren osagai bat dela, eta ordenamendu juridikoak esleitutako eskumenei arabera erabili ahal izango dela.

Audientzia Nazionalak honako dio epai beraren seigarren oinarri juridikoan:

(...) ezin da esan dena delako herriko alkateak DBLOren 4.2 artikulua urratu duenik udal eroldatik eskuratutako datuak halako datan jaiotako herritarrei gutunak bidaltzeko erabiltzeagatik, datu horiek ez baitira erabili datuak jaso zirenean finkatuta zeuden helburuekin bateraezinak ziren beste helburu baterako, kontrakorako baino, hau da, datuak udal eskumenei gauzatzeko erabili baitziren; izan ere, gizarteratzea udal eskumenei artean dago...

Zentzu horretan, Madrileko Autonomia Erkidegoko udalek udal eroldako datuak erabiltzeari eta tratatzeari buruz, Datuak Babesteko Madrileko Agentziaren apirilaren 14ko 1/2004 Gomendioak (2004ko apirilaren 14ko zuzendariaren ebazpen bidez onartua eta maiatzaren 3ko 104 zk.ko Madrileko Erkidegoko Aldizkari Ofizialean argitaratua) honako dio:

Hala ere, eta eroldak nahitaez jaso behar dituen datuen izaera ikusirik, izena eta helbideaz gain, adina, ikasketa maila eta abar ere jasotzen baititu, ulertu behar da egon daitezkeela beste udal

helburu batzuk, helburu nagusiekin bateragarriak izan daitezkeenak eta erroldako datuak erabiltzeko aukera eman dezaketenak.

Hain zuzen ere horixe gertatzen da TAOLen 25. eta 26. artikuluek udalei aitortzen dizkien eskumenekin. Ondorio horietarako, ulertu behar da udal eskumenak modu eraginkorrean gauzatzeko behar diren udal erroldako datuak erabiltzea bateragarria dela erroldaren helburu nagusiarekin.

Xxxxxxko Udalak egindako kontsultari oinarri juridiko horiek ezarriz gero, ondoriozta dezakegu Euskara, Hezkuntza eta Gazteria Zerbitzuak badaukala udal erroldako datuak erabiltzea, baina honakoak kontuan hartuta:

1.- Udal eskumenez baliatzean emandako egintzetarako erabiltzea (TAOLen 25. eta 26. artikuluek).

2.- Pertsonaren identifikazio datuak baino ez erabiltzea, eta helbideari buruzko datuak erabili behar izanez gero, eskumenaz baliatzeko garrantzitsuak badira bakarrik erabiltzea.

Edozelan ere, datu horiek komunikazio ekintzetarako baino ezin izango dira erabili, eta ezinezkoa izango da datu horiek beste fitxategi batzuetan jasotzea.

ONDORIOA

Udal erroldako datuak kontsultan adierazten den bezala erabiltzen badira, bete egingo da datu pertsonalak babesteari buruzko araudia, baina beti ere egiaztatzen bada udaleko zein eskumen gauzatzeko eskatzen diren datu horiek eta helbidearen datuak duen garrantzia eskumenaz baliatu ahal izateko. Bestalde, toki erakunde bakoitzeko zerbitzuen ardura izango da dagokion balioespena egitea.

6. FAMILIA UGARIAREN TITULUA DATU PERTSONALA OTE DEN

EUSKO JAURLARITZAKO XXXXXXXX-K EGINDAKO KONTSULTA HONEN GAINEKO IRIZPENA: EA FAMILIA UGARIEI ESLEITUTAKO ZENBAKIA DATU PERTSONALA DEN.

CN08-008

AURREKARIAK

LEHENENGOA. 2008ko otsailaren 15ean Eusko Jaurlaritzako Xxxxxxxk izenpetutako idazki bat jaso genuen Datuak Babesteko Euskal Bulegoan. Idazki horren bidez, goian aipatzen den gaiari buruzko txostena eskatzen zuen.

BIGARRENA. Eskaera idazkian honakoa adierazten da:

“Xxxxxx Zuzendaritzatik Datuak Babesteko Euskal Bulegora jotzen dugu honako kontsulta egiteko: familiarentzako dugun esparruan familia ugaritzat jotzen direnei familia ugarientzako titulu zenbaki bat esleitzen zaie (tituluak emateko eginkizuna foru aldundiena da, eta aldundiek guri helarazten dizkigute gero guk familiako kide bakoitzari bidaltzeko bere txartela). Kontuan izanik, zenbakia familia osoarentzat dela, zenbakia datu pertsonaltzat jo daiteke Datuen pertsonalak babesteari buruzko Lege Organikoaren ondorioetarako? Esan behar da datua ez dela pertsona batena, familia osoarena baizik.

HIRUGARRENA. Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17.1 artikuluko n) letrak honako eginkizuna esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

“Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkioten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderei erantzutea.”

Beraz, goiko arau hori kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egin diguten galderari erantzuteko txostena egitea.

KONTUAN HARTZEKOAK

I

Aztertuko dugun kontsultaren gaia da ea familia ugariei esleitutako zenbakia datu pertsonala ote den.

Kontsultaren funtsari ekin aurretik, ezinbestean aztertu behar dugu familiaren arloa arautzen duen lege esparrua.

Familia ugarien erregimena Familia ugariak babesteari buruzko azaroaren 18ko 40/2003 Legean dago jasota nagusiki. Familia ugariaren izaera egiaztatu nahi bada, lege testuaren 5.1 artikuluko honakoa xedatzen du:

Familia ugariaren izaera egiaztatzeko agiri ofizial bat ezarriko da eta horren bidez egiaztatuko da familia ugaria dela. Horretarako, lege ezarritako baldintzak bete beharko dira eta familia unitatearen edozein aurreko ahaidek, tutorek, harrera egilek, zaintza duenak edo beste edozein kidek egin dezake eskaera, baldin eta legezko gaitasunik badu.

Legearen 5.2 artikuluko ondokoa xedatzen du eskumenak direla eta:

Eskatzaileak egoitza duen autonomia erkidegoak du familia ugarien izaera aitortzeko eskumena eta familia ugarien kategoria aitortzen duen titulua emateko eta berritzeko eskumena. Lege honen

ondorio guztietarako, titulu honek lurralde nazional osoan izango du balioa, inolako balioeste egintzarik gabe. Lege hau garatzen duen erregelamenduan zehaztuko da titulua eraginkorra izan dadin ziurtatzeko gutxieneko edukia.

Familia ugariak babesteari buruzko azaroaren 18ko 40/2003 Legearen Erregelamendua onartzen duen abenduaren 30eko 1621/2005 Errege Dekretuaren 2., 4. eta 5. paragrafoek ere honako xedatzen dute:

4.- Autonomia erkidegoei dagokie titulua eskatzeko eta emateko administrazio prozedura ezartzea, eta formatu digitalean izateko aukera ere aurreikusi beharko dute, paperezkoaren balio berarekin. Horrez gain, familia ugariaren izaera aitortzeko aurkeztu beharreko dokumentu guztiak ere zehaztu beharko dituzte, azaroaren 18ko 40/2003 Legeak eskatzen dituen baldintzak betetzen direla ziurtatzeko.

5.- Autonomia erkidegoek familia ugari izaera aitortuta duten familietako kide bakoitzarentzako dokumentuak ere eman ahal izango dituzte, baldin eta familiako kide direla egiaztatzen badute eta baldin eta familia ugarien sailkapenean duten kategoria egiaztatzen badute. Horrela, dagozkien onurak eskuratu ahal izango dituzte.

Norbanakoen dokumentu horiek lurralde nazional osoan balioa izan dezaten, familia ugariaren titulu ofizialaren zenbakia eta balio epea izan beharko dituzte jasota gutxienez. Hori dena, azaroaren 18ko 40/2003 Legeak ezarritakoaren arabera.

Euskal Autonomia Erkidego barruko eskumenen banaketa dela eta, Autonomia erkidego osorako erakundeek eta bertako lurralde historikoetako foru erakundeek arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7 c) artikulua xedatzen duenez, lurralde historikoei dagokie haien eragin esparruan gauzatzea erakunde erkideen gizarte laguntza arloko legedia.

Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuetako erakundeek arteko Interneteko "Gizarte.net" atarian ezarrita dagoenez, gure autonomia erkidegoan foru aldundiek dute familia ugarien titulua emateko eskumena, eta Eusko Jaurlaritzak du, Familia Zuzendaritzaren bitartez, familia ugariaren izaera egiaztatzeko txartela ematekoa. Arabako Foru Aldundian Gizarte Ongizateko Foru Erakundeak du eskumena, Bizkaian Gizarte Ekintza Sailak du eskumena eta Gipuzkoan Giza Eskubideen Sailak.

Eusko Jaurlaritza dela eta, esan behar da Erakunde eskudunek familia ugariei buruzko datuak biltzeko erabakitako formulario bateratua argitaratzen duen Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuaren 2001eko ekainaren 7ko Aginduak honakoa xedatzen duela zioen adierazpenean:

"Jaurlaritzaren Kontseiluak, 2001eko apirilaren 3an egindako bilkuran, beste zenbait neurriren artean (...) Familia Ugariaren Tituluari loturiko Familia Ugariaren Txartelaren jaulkipena onestea erabaki zuen. Neurri horien bitartez, Familia Ugariari onartzen zaizkien onurak lortzeko bidea erraztu nahi da."

Beraz, ikusten dugu familia ugariaren tituluaren eta txartelaren artean badagoela lotura bat, nahiz eta bakoitza erakunde batek eman, lehendabizikoa aldundiek ematen baitute eta bigarrena Eusko Jaurlaritzak.

Lotura horren frogar bat dago goian aipatu dugun Aginduaren 2. artikuluan. Hona hemen xedatzen duena:

"Datu Pertsonalen babesari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoaren kaltetan izan gabe, Euskal Autonomia Erkidegoko foru aldundiek, gizarte-zerbitzuen alorrean eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari, tramitatu duten Familia ugariaren Tituluari loturik eskura dituzten datu guztiak bidaliko dizkiote."

Arauan bertan aurreikusten den datu lagatze hau DBLOren 21.1 artikuluan araututa dago.

“Administrazio Publikoek euren eginkizunak betetzeko bildu edo prestatutako izaera pertsonaleko datuak ez zaizkie komunikatuko beste Administrazio Publiko batzuei, eskumen desberdinak edo gai desberdinei buruzko eskumenak egikaritzeko.”

Aztertzen ari garen gaia dela eta, argi dago administrazioen arteko datu lagatze bat dela, eta horren arrazoia da bi administrazio desberdinek gai berari buruzko eskumenaz baliatu behar dutela.

Egoera argitzeko, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren Erregistroa kontsultatu dugu eta ikusi dugu XXXXXko Foru Aldundiak (XXXXXXko Foru Aldundia hartu dugu eredu moduan) eta Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailak izan bera duen fitxategi bana dutela aitortuta: “Familia ugariak”, eta fitxategi horien artean datuen fluxua ere badagoela, beti ere lehen aipatu dugun DBLOren 21.1 artikulua xedatutakoaren arabera.

II

Kontsulta hau ebazteko funtsezkoa elementua da “datu pertsonal” kontzeptua argitzea.

DBLOren 2.1 artikulua honakoa xedatzen du:

Lege organiko hau euskarri fisikoan jasotako datu pertsonalei ezarriko zaie, baldin eta euskarriak datu horiek tratatzea ahalbideratzen badu, bai eta datu horiekin gero egiten diren erabilerei ere.

DBLOren 3 a) artikulua xedatzen du zer joko den datu pertsonaltzat:

pertsona fisiko identifikatu edo identifikagarri buruzko edozein informazio.

DBLO garatzen duen Erregelamendua onartzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuaren 5 o) artikulua xedatzen du zer den pertsona identifikagarria. Hona hemen:

zuzenean edo zeharka, nor den jakin daitekeen pertsona fisikoa, bereziki bere nortasun fisiko, psikiko, ekonomiko, kultural edo sozialari dagozkion ezaugarri bat edo gehiago erabiliz. Pertsona fisiko bat ez da joko identifikagarritzat identifikaziorako neurriz kanpoko epeak edo jarduerak behar badira.

Eusko Jaurlaritzak ematen duen familia ugarien txartelak jasotzen duen informazioa hartzen badugu kontuan, honako datuak dituela ikusiko dugu:

- Izen-abizenak
- Balio epea.
- Titulu zenbakia.
- Katetoria.

Familia ugariaren titulu zenbakiaren datua dela eta, kontsultako gaia izanik, eta aipatu dugun araudi guztia ikusi ondoren, zera esan dezakegu, datu hori datu pertsonala dela, bere bitartez familia bera osatzen duten kide guztiak identifikatzen direlako edo identifikagarri egiten dituelako.

ONDORIOA

Familia ugariaren tituluaren zenbakia datu pertsonala da familia bereko kideak identifikatu ahal dituen edo identifikagarri egiten dituen kasu guztietan, eta identifikaziorako neurriz kanpoko epeak edo jarduerak behar ez badira.

7. KIROL FEDERAZIOETAKO FITXATEGIAK

XXXXXX-K ONDOKO GAIARI BURUZ EGINDAKO KONTSULTAREN GAINEKO IRIZPENA: "KIROL FEDERAZIOAK".

CN08-010

AURREKARIAK

LEHENENGOA: 2008ko otsailaren 28an Xxxxxx-k izenpetutako fax bat jaso genuen Datuak Babesteko Euskal Bulegoan. Idazki horren bidez, goian aipatzen den gaiari buruzko txostena eskatzen zen.

BIGARRENA: Kontsulta idazkian honakoa adierazten da:

"Datu pertsonalen babesa gaurkotasuneko gaia izanik, honako kontsulta bi hauek egin beharrean nago:

LEHENENGOA: KIROL FEDERAZIOAK

Euskadiko Kirolaren 14/1998 Legearen arabera (1998-06-25eko EHAA), kirol federazioak erakunde pribatuak izango dira, irabazi-asmorik gabekoak eta nortasun juridikodunak (15.1 art.). Baina, aldi berean, Administrazio-egiteko publikoak ere burutuko dituztenez eskuordetzan, herri-administrazioaren ordezkari laguntzaile gisa arituko direla ere dio Legeak (15.3 art.).

Administrazio-egiteko publikoak ere burutuko dituztenez eskuordetzan, administrazio-agintaritzek berrikusi egin ahal izango dituzte kirol federazioen egintzak.

Horiek horrela, hona hemen bi kontsultak:

A).- Ea federazioetan afiliatutako pertsonen zerrendak datu babesaren araudia bete behar duten ala ez, kontuan hartuta zerrenda horiek barne erabilerarako baino ez direla eta Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzak eta foru aldundiek eta oso noizean behin aseguru etxeek, halakorik egonez gero, baino ez dutela horien berri, foru aldundien kasuan estatistika ondorioetarako eta aseguru etheen kasuan kirolariaren batek izandako istripu baten berri ematen zaielako; halakoetan kirolariaren izen-abizenak eta ezbeharraren inguruko argibideak besterik ez zaizkie ematen.

B).- Federazioetako zerrendei alta eman beharra badago, fitxategi arruntak izateagatik, komeni zaigu jakitea non inskribatu behar ditugun fitxategi horiek, Datuak Babesteko Euskal Bulegoan ala Datuak Babesteko Espainiako Agentzian. Era berean, jakin nahi dugu ea erkidegoko kirol federazioak edo euskal kirol federazioak sar daitezkeen Eusko Jaurlaritzako 2/2004 Legearen 2.1 artikuluan j) atalean edo k) atalean, kontuan hartuta, lehen ikusi dugun bezala, batetik, euskal administrazioen ordezkari laguntzaile gisa aritu behar direla eta, bestetik, federazioen erabakiek erabaki administratiboen izaera bera dutela.

BIGARRENA.- 14/1998 Legeak xedatzen du kirol federazioak pertsona juridiko pribatuak direla (11. art.), eta horren frogara da Lege beraren 105.2 artikulua (kirol-klubak).

Eusko Jaurlaritzaren 29/1989 Dekretuak ere (1989-02-28ko EHAA) arau osoan zehar argi uzten du federazioek izaera guztiz pribatua dutela eta hala xedatzen du dekretuaren 64.2 artikulua.

Beraz, argi dago legearen ikuspuntutik federazioen fitxategiak ezin direla Datua Babesteko Euskal Bulegoan inskribatu.

Hala ere, zalantza egiten dugu ea kirol talde bateko bazkideen zerrendek Datuak Babesteko Espainiako Bulegoan jasota egon behar ote duten, baldin eta zerrenda horien erabilera erabat barruko bada, zerrenda horiek ez badira beste inon agertuko eta ez badira inora eramango eta klubek ez baldin badute zerrendak erakunde publiko edo pribatuei jakinarazteko obligaziorik. "

HIRUGARRENA: Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17,1 artikuluko n) letrak honako eginkizuna esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

“Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkioten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderei erantzutea.”

Beraz, goiko arau hori kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egin diguten galderari erantzuteko txostena egitea.

KONTUAN HARTZEKOAK

I

Ezer baino lehen argitu behar dugu ea Datuak Babesteko Euskal Bulegoak eskumenik duen ala ez galdera horiei erantzuteko.

Aurrekarietan jasota dagoenez, 2/2004 Legearen 17.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, Datuak Babesteko Euskal Bulegoak otsailaren 25eko 2/2004 Legearen ezarpen eremuan dauden tratamenduen eta fitxategien gaineko kontsulta baino ezin ditu erantzun.

Baina ikusi dugu kontsultako galderetako bat dela ea erkidegoko kirol federazioek edo euskal kirol federazioek egiten dituzten fitxategiak edo tratamenduak 2/2004 Legearen 2.1 artikuluan sar daitezkeen.

Galdera hori kontuan hartuta, komenigarritzat jotzen dugu beste ezeren aurretik puntu hori argitzea; izan ere, erantzuna ezezkoa bada, argi geratuko delako gainontzeko galderak erantzutea ere Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren eginkizunen esparrutik kanpo geratzen dela.

II

2/2004 Legearen 2.1 artikulua xedatzen du zein den Bulegoaren eskumen esparrua. Hona hemen hitzez hitz dioena:

“1. Datu pertsonaletarako fitxategietan aplika daiteke lege hau. Zuzenbide publikoko ahalak gauzatzeko sortu edo kudeatuak behar dute izan fitxategi horiek; honako hauek sortuak edo kudeatuak::

a) Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrak, lurralde historikoetako foru-organismoak, Euskal Autonomia Erkidego barruko toki-administrazioak eta, zuzenbide publikoko ahalak gauzatzeko sortu bazituzten, herri-administrazioen menpeko edo haietara loturiko edonolako erakunde publikoak.”

b) Eusko Legebiltzarra.

c) Herri Kontuen Euskal Epaitegiak.

d) Arartekoak.

e) Lan Harremanen Kontseiluak.

f) Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak.

g) Kooperatiben Goren Kontseiluak.

h) Datuak Babesteko Euskal Bulegoak.

i) Ebazpen Batzordeak.

j) Interes ekonomiko eta profesionalak ordezkatzeko dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko zuzenbide publikoko korporazioek.

k) Eusko Legebiltzarrak lege bidez sorturiko beste edozein organismo edo erakundek –berdin dio nortasun juridikoa duen edo ez–, lege horrek bestelakorik xedatzen ez badu.”

Goiko testu horretatik argi eta garbi ondorioztatzen da, hitzez hitz hala esaten baitu, honakoa:

a) Izenburua ikusita, kasu bietan esan behar da 2/2004 Legearen ezarpen eremuan daudela ondoren aipatzen diren ente publikoak “zuzenbide publikoko ahalak gauzatzeko” “sorturiko edo kudeaturiko fitxategiak” (edo sortu dituztenak edo kudeatzen dituztenak). Hori da gure ustez 2/2004 Legearen ezarpen eremu objektiboa (fitxategi horiei aplikatzen zaie Lege hau).

b) Ikuspuntu subjektibotik abiatuta (fitxategien titularrak diren edo fitxategiak kudeatzen dituzten subjektuak), 2/2004 Legea a) letratik k) letrara bitartean aipatzen diren ente publikoei aplikatu behar zaie, baldin eta “zuzenbide publikoko ahalak gauzatzeko” sortu badira, hau da, “herri-administrazioen menpeko edo haietara loturiko edonolako erakunde publikoak badira”.

Esandako guztia bat dator, eta horrela izan behar da nahitaez, 2/2004 Legea garatzen duen urriaren 18ko 308/2005 Dekretuaren 1.1 artikulua ezarritako ezarpen esparruarekin.

III

Hori guztia argi utzi eta gero, hurrengo urratsa da kirol federazioen izaera juridikoa aztertzea. Horretarako, Auzitegi Konstituzionalaren eta Auzitegi Gorenaren doktrina hartu beharko dugu kontuan.

Kirolari buruzko urriaren 15eko 10/1990 Legearen 30.2 artikulua xedatzen du “Espainiako kirol federazioek berez dituzten eskumenez gain, administrazio izaerako eginkizun publikoak ere izan ditzaketela eskuordetzan, eta, horrelakoetan, herri-administrazioaren ordezkari laguntzaile gisa aritzen direla”.

Bestalde, Legearen 33. artikuluan kirol federazioen eginkizunen zerrenda dago, eta besteak beste, honako eskumen hauek jasotzen ditu: “Diziplina-ahalaz baliatzea, Lege honetan eta Legea garatzen duten gainontzeko xedapenetan ezarritakoa kontuan hartuta” (f atala) eta “Kirol elkarteak edo entitateak esleitzen zaizkien diru-laguntzak kontrolatzea, erregelamendu bidez finkatzen dena kontuan hartuta” (g atala).

Euskadiko Kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legeak ere gauza bera xedatzen du erkidegoaren lurralde esparruko kirol federazioentzako.

Era berean, 10/1990 Legearen 74.2 artikulua xedatzen duenez, “Espainiako kirol federazioek kirol arloko diziplina-ahala izango dute honako hauengan: kirol federazioaren egitura organikoaren barruan dauden pertsona guztiengan, kirol-klubengan eta bertako kirolari, teknikari eta zuzendaritza taldekoengan, epaile eta arbitroengan eta, oro har, federatuta egonik kirol jarduera estatuan egiten duten pertsona eta entitate guztiengan”.

Kirol federazioen izaera juridikoa dela eta, Auzitegi Konstituzionalaren 67/1985 Epaiak zera gogorarazten digu 4 B oinarri juridikoan: “federazioak izaera pribatuko elkarteak direla izatez, nahiz eta administrazio izaerako eginkizun publikoak ere izan ditzaketen”. Baina, aurrerago dio “elkarte-eskubideak (Konstituzioaren 22. artikulua aitortu zuen elkarte eskubidea) ez diela aitortzen gizarte bizitzako arlo batekiko administrazio izaerako eginkizun publikoak dituzten elkarteak sortzeko eskubiderik”. Azkenik, epai honen arabera (gerora, apirilaren 11ko 113/1994 Epaiak berretsia) kirol federazioak “ez dira Konstituzioaren 22. artikulua babesean sortutako elkarteak, artikulua horrek ez duelako aitortzen helburutzat administrazio izaerako eginkizun publikoak dituzten elkarteak sortzeko eskubiderik”, eta, horretaz gain, dio “Konstituzioaren 22. artikulua aitortzen duen elkarte-eskubideak ez duela barne hartzen helburutzat administrazio izaerako eginkizun publikoak dituzten elkarteak sortzeko eskubidea”.

Ondorioz, Konstituzio Auzitegiak uste du kirol federazioak eratzeko aukera ez datorrela konstituzioaren 22. artikulua aitortzen duen oinarrizko elkarte-eskubidetik. Bestalde, Konstituzio Auzitegiak ez du ukatzen federazioek izaera pribatua dutenik; izan ere, Auzitegiaren arrazonomenduaren oinarrian dagoen ideia da federazioak “izaera pribatuko entitate” moduan eratzen direla, eginkizun publikoez baliatzen direla administrazio eskumendunen eskuordetzan eta ez dutela zuzenbide publikoko korporazioen izaera, aipatutako administrazioaren ordezkari laguntzaile izaera baizik. Eta guzti horrek ez du izaera juridiko pribatua urratzen inondik inora.

Auzitegi Gorenaren jurisprudentziak ere antzeko ondorioak ateratzen ditu. Adibidez, 1998ko urriaren 5eko Epaiak, 65/1985 KAEk ezarritako doktrina kontuan hartu ondoren eta doktrina hori 10/1990 Legea onartu ostean indarrean zegoen erregimenari estrapolatu ostean, zera dio (Laugarren era bosgarren zuzenbideko oinarriak):

"LAUGARRENA.- Kirolari buruzko urriaren 15eko 10/1990 Legeak ezarri zuen lege erregimenak berariaz berretsi zituen orduan egindako interpretazioaren ondorioak; izan ere, 10/1990 Legearen 30.2 artikulua honakoa xedatzen baitu: “Espainiako kirol federazioek berez dituzten eskumenez gain, administrazio izaerako eginkizun publikoak ere izan ditzaketela eskuordetzan, eta, horrelakoetan, herri-administrazioaren ordezkari laguntzaile gisa aritzen direla”. Bestalde, 33.1 artikulua zera dio: Espainiako kirol federazioek, Kirol-Kontseilu Gorenak koordinatuta eta babestuta, honako eginkizunak izango dituzte: ...f) ... diziiplina-ahala ...”. Diziiplina-ahala dela eta, 84. 5 artikulua xedatzen du “Kirol-diziplinarako Espainiako Batzordearen ebazpenek administrazioarekiko bidea agortzen dutela eta dagokion kirol federazioaren bitartez gauzatu beharko direla, kirol federazio horrek izango baitu ebazpena zehatz eta benetan betearazteko ardura”. Gerora, aurreikuspen guzti horiek Espainiako Kirol Federazioei buruzko abenduaren 20ko 1835/1991 Errege Dekretuaren 1.1 artikuluko bigarren paragrafoan eta Kirol Diziplinari buruzko abenduaren 23ko 1591/1992 Errege Dekretuaren 67. artikuluan jaso ziren.

BOSGARRENA.- Beraz, eta azaldu dugun lege-erregimena aplikatzen badugu, kirol federazioak izaera pribatuko elkarteak dira eta, Kirol-Kontseilu Gorenaren koordinazio eta babespean, eskuordetzan dituzten administrazio izaerako eginkizun publikoez baliatzen dira, adibidez kirol arloko diziiplina-ahalaz. Horrelakoetan, herri-administrazioaren ordezkari laguntzaile gisa aritzen dira...”

Horrela, Auzitegi Gorenak “zuzenbide pribatuko elkarte” lege izaera aitortzen die kirol federazioei, zuzenbide pribatuaren arabera eratzen baitira haien kideen interesak kontuan hartuta, nahiz eta beti balia daitezkeen, baina “eskuordetzan”, zuzenbide publikoko ahalez. Eskuordetzan zuzenbide publikoko ahalez baliatzen direnean eta ez bestelako egoeretan, federazioen egintzak administrazio zuzenbidearen menpe geratzen dira eta administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioak berrazter ditzake.

Auzitegi Gorenaren 2003ko uztailaren 15eko Epai batek ere doktrina hori bera gogorarazten du, nahiz eta Epaiak eskumen-arazo baten gainekoa izan, eta zera dio zuzenbideko bigarren oinarrian:

"Sala honek berak honakoaren antzekoak ziren eskumen-arazo batzuk epaitu eta gero eman zituen epaietan (aurtengo ekainaren 18ko eta uztailaren 10eko eta 11ko epaiak) adierazi zuen gatazka sortzen zuen eskumena Madrileko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salak duela, ikusi bestela Jurisdikzio horri buruzko Legearen 10.1 j) artikulua. Hiru epai horietan honakoa esaten da labur-labur: a) Kirolari buruzko urriaren 15eko 10/1990 Legearen 30. artikulua bigarren paragrafoak xedatzen du “Espainiako kirol federazioek berez dituzten eskumenez gain, administrazio izaerako eginkizun publikoak ere izan ditzaketela eskuordetzan, eta, horrelakoetan, herri-administrazioaren ordezkari laguntzaile gisa aritzen direla” eta jarduteko duten aukera bikoitz horrek (batetik, pribatua, eta, bestetik, interes publikoak kudeatzea) doktrina konstituzionalaren onespina —ikusi maiatzaren 24ko 67/1985 KAE (67/1985 KAB)— eta Sala honen jurisprudentziaren onespina ditu —1989ko ekainaren 8ko eta 1988ko ekainaren 24ko epaiak eta 1998ko urriaren 5eko Epai—.

Ondorioz, esan daiteke ia doktrina guztiak berresten duela tesi hori. Beraz, esan dezakegu kirol federazioak izaera pribatuko elkarteak direla eta ez direla zuzenbide publikoko korporazioak, ez baitira administrazio korporatiboaren parte.

Beraz, aurreko guztia kontuan hartuta esan dezakegu Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan dauden kirol federazioek egindako tratamenduak ez daudela 15/1999 Lege Organikoaren 41.1 artikuluan xedatutakoaren menpe, eta, ondorioz, ez eta 2/2004 Legearen ezarpen eremuan ere, kirol federazio horiek izaera juridiko pribatua dutelako. Nahiz eta kirol federazioek administrazio eskumendunen zenbait eskumenez baliatzeko aukera izan laguntzaile moduan, eskuordetzagatik, horrek ez du esan nahi kirol federazioak ente publikoak direnik edo zuzenbide publikoko korporazioak direnik.

IV

Euskadiko Kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legea eta Euskal Kirol Federazioei buruzko urtarilaren 31ko 16/2006 Dekretua aztertu ondoren, ondorioa bera da.

Ikusita nola definitzen duten bi arauak zer diren federazioak, esan daiteke federazioak zera direla:

“... kirol federazioak dira irabazteko asmorik gabeko eta nortasun juridiko propioa duten erakunde pribatuak, euren lurralde eremuko kirolariak, teknikariak, epaileak, klubak, kirol elkarteak, edo kirola —modalitate batean edo gehiagotan— egiten edo bultzatzen aritzen diren beste talde batzuk barne hartzen dituztenak.”

Beraz, bukatzeko, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren iritziz, ezinezkoa da kirol federazioak otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 2.1 artikuluen k) atalean inkardinatzea; artikulua horrek xedatzen duenez, Lege horren ezarpen esparruan honako hauek sortutako fitxategiak baino ez baitaude: “Eusko Legebiltzarrak lege bidez sorturiko beste edozein organismo edo erakundek –berdin dio nortasun juridikoa duen ala ez–, lege horrek bestelakorik xedatzen ez badu”.

Hori horrela izanik, argi dago kirol federazioak ez direla Legebiltzarreko lege bidez sortu. Eta hori erraz ikusten da Euskal Kirol Federazioei buruzko urtarilaren 31ko 16/2006 Dekretuaren II. Kapituluko V. titulua irakurri hutsa eginda.

V

Esandako guztiagatik, jakin badakigun arren Datuak Babesteko Euskal Bulegoak ez duela zertan eman bere sorrera-legearen ezarpen esparrutik kanpo dauden fitxategien gaineko kontuei buruzko iritzirik, baina laguntzeko asmoz, gaira argia ekarri nahian eta erantzuna ere garbi dagoelakoan (ikus besterik ez dago Datuak babesteko Espainiako Agentziaren Erregistro Nagusiari egindako kontsulta https://212.170.242.196/portalweb/ficheros_inscritos/titularidad_privada/index-ides-idphp.php), DBLOren 26. artikulua dioena gogorarazi nahi dugu. Hona hemen:

“Datu pertsonalen fitxategiak sortzen dituen pertsona edo entitate orok aurretiaz horren gaineko jakinarazpena egingo dio Datuak Babesteko Agentziari”

Era berean, ondo dator gogora ekartzea DBLOk dioela goiko paragrafoan aipatu dugun 26. artikuluan xedatutako derrigorrezko betebeharra bete ezean arau-hauste arina (44.2 artikuluen c) letra) edo arau-hauste larria (44.3 artikuluen k) letra) egiten dela.

ONDORIOA

Euskadiko kirol federazioen titulartasuneko datu pertsonalen fitxategiak ez dira sartzen Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen ezarpen esparruan.

8. UDALBATZARREKO AKTAK UDAL WEB-ORRIAN ARGITARATZEA ETA ETXEZ ETXE BANATZEA

XXXXXXKO UDALAK ONDOKO GAIARI BURUZ EGINDAKO KONTSULTAREN GAINEKO IRIZPENA: "EA UDALBATZARREKO AKTAK UDAL WEB ORRIAN ARGITARA DAITEZKEEN ETA EA ETXEZ ETXE BANA DAITEZKEEN".

CN08-011

AURREKARIAK

LEHENENGOA. 2008ko otsailaren 29an Datuak Babesteko Euskal Bulegoak XXXXXKO alkatearen idazki bat jaso zuen. Idazki horren bidez, Udalak goiburuan adierazitako gaiari buruzko txostena egiteko eskatzen zuen.

BIGARRENA. Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17.1 artikuluko n) letrak honako eginkizuna esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

"Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkioten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderei erantzutea."

Beraz, goiko arau hori kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egin diguten galderari erantzuteko txostena egitea.

KONTUAN HARTZEKOAK

I

Aztertuko dugun kontsultaren gaia da ea datu babesaren arloko legedia betetzen den udalbatzarretako aktak udal web orrian argitaratzen badira eta akta horiek udalerrian dauden etxebizitza guztietan banatzen badira.

Datu babesaren ikuspuntutik, toki administrazioen autoantolakuntza ahalmenak onartzen badu ere tokiko udalbatzarretako aktak udal web orrian argitara daitezkeela, akta horiek pertsona identifikatuen edo identifikagarrien gaineko datu pertsonalak izan ditzaketenez, datu tratamendu bat egon daitekeela esan behar da. Beraz, Datu pertsonalen babesari buruzko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoa bete beharko da.

Gauza bera esan dezakegu akten kopiak etxebizitza partikularretara bidaltzeari buruz.

Tratamendu horiei ezarri beharreko lege erregimena ondoko bi printzipioak errespetatzean datza: datuen kalitatearen printzipioa eta adostasuna.

Datuen kalitateari buruzko printzipioa DBLOren 4. artikuluan xedatzen da, han esaten delako datu pertsonalak jaso eta tratatu ahal izango direla bakar-bakarrik datu bilketaren eremuarekiko eta helburuekiko egokiak, bereizleak eta neurrikoak badira.

Beste alde batetik, adostasunaren printzipioaren arabera, datu pertsonalak tratatu ahal izateko, ukituaren adostasun garbia beharko da, baldin eta legeak besterik xedatu ez badu.

Kontsulta honetan planteatzen diren tratamenduak legezkoak diren ala ez zehazteko, lehendabizi aztertu beharko da ea administrazioaren gardentasunaren, politikan parte hartzeko eskubidearen eta datu pertsonalak babestearen artean orekarik dagoen.

II

Administrazio arloko doktrina kontuan hartzen badugu “administrazioaren gardentasuna legeetan jasota dago eta herritarren informaziorako eskubideari datzekio, eta toki entitateen lurralde esparruan egon beharko zen beste inon baino babestuago, toki administrazioak herritarrengandik oso gertu daudelako, herritarren interesei berehala eragiten dielako eta tradizio historiko handiena ere han duelako” (Jiménez Plaza, 2003).

Udalbatzarrek duten izaera publikoa administrazioaren gardentasunaren adibide bat da eta Toki Jaurbidearen Oinarriak Arautzen Legearen 7/1985 70.1 artikulua aitortu zion publikotasun izaera. Hala era, udalbatzarren izaera publikoak badu muga bat: “Konstituzioaren 18.1 artikuluan xedatutako herritarren oinarritzko eskubideei eragiten dieten gaiak eztabaidatzeko eta bozkatzeko saioak isilekoak izan daitezke, gehiengo osoak hala egitea erabakitzen badu”.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70. artikulua hondokoa xedatzen du (abenduarien 16ko 57/1985 Legean idatzitakoa):

1.- Toki erakundeetako udalbatzak publikoak dira. Hala ere, Konstituzioaren 18.1 artikuluan xedatutako herritarren oinarritzko eskubideei eragiten dieten gaiak eztabaidatzeko eta bozkatzeko saioak isilekoak izan daitezke, gehiengo osoak hala egitea erabakitzen badu.

Tokiko gobernu-batzarraren bilkurak ez dira jendaurrekoak.

2. Toki-korporazioek hartutako erabakiak legean aurreikusi bezala argitaratu edo jakinarazten dira. Ordenantzak, hirigintzako planetako arauen artikulua zatiak barne, baita hirigintzako planetako erabakiak ere horien behin betiko onarpena toki-erakundeen eskumenekoa denean, probintziako "Aldizkari Ofizialean" argitaratuko dira, eta ez dira indarrean jarriko testua osorik argitaratu eta 65.2. artikuluan aurreikusitako epea igaro arte; aurrekontuak eta ordenantza fiskalak salbuespen dira, Toki-ogasunak arautzen dituen abenduaren 28ko 39/1988 Legean ezarritako moduan argitaratu eta jarriko baitira indarrean. Hirigintza-arloan eskumenak dituzten herri-administrazioek beren lurralde-eremuan indarrean dagoen plangintzako kopia osoak izan behar dituzte eskatu nahi dituzten herritarren eskura.

3. Herritar guztiek dute toki-korporazioen erabakiak eta horien aurrekariak egiaztatzeko kopiak eta ziurtagiriak eskuratzeko eskubidea, baita artxibo eta erregistroetara jotzeko ere, Konstituzioko 105. artikuluko b) idatz-zatia garatzeko legedian xedatutako eran. Eskubide hori ukatzea edo mugatzea, Estatuaren segurtasun eta defentsari dagokienean, eta delituak ikertzeari edo pertsonen bizitza pribatuari ukitzen dienean, arrazoitutako ebazpenen bidez frogatu beharko da.

Goiko artikulua horretako bigarren atalean xedatutakori begiratuz gero, toki erakundeek hartzen dituzten erabakiak legean aurreikusitako eran argitaratzen edo jakinarazten dira. Erabakiak nola argitaratu behar diren argitzeko, Antolakuntza eta Jarduera Araudiaren (AJA) 229.2 artikulua xedatzen duena hartu behar da aintzat. Hona hemen:

Apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikulua xedatutakoa alde batera utzita, Korporazioak argitaratu egin beharko ditu, laburtuta, udalbatzarretako eta gobernu batzordeko erabaki guztiak, alkatearen ebazpen guztiak eta alkateak eskuordetuz ordezkariak ematen dituztenak.

Hirugarren atalak, gutxienez hiru hilean behin, informazio-buletin bat argitaratzeko aukera ematen du.

AJAk erabakiak “laburtuta argitaratu” behar direla esaten du, baina ez du zehazten zer den argitaratu behar den gutxienekoa. Beraz, hortik ondorioztatzen duguna da lege ez dagoela inon jasota erabaki eta ebazpen horien laburpenak izan behar duen edukia eta udalbatzarren aktena berdina izan behar denik (Akten laburpenak izan behar duen edukia AJAren 109. artikuluan dago xedatuta). Kontuan izan behar dugu Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 18.e) artikulua honako eskubideak aitortzen dizkiela herritarrei, beste hainbat betebeharrekin batera:

Udal espediente eta dokumentazio guztien gaineko informazioa izateko eskubidea, baldin eta lehendabizi eskaera arrazoitua egin badiote udal administrazioari, eta beti ere Konstituzioaren 105. artikulua xedatutakoaren arabera.

Udalbatzaren erabakien edukia web gune batean argitaratzeak esan nahi du informazio hori zabaldu egiten dela, edonork eskura dezan, kontuan hartu gabe bertako herritarra den ala ez. Beraz, gure ustez, AJAren 109. artikulua aktetarako xedatzen duenak ez du balio udal web orrian argitaratzen denaren edukiri ezartzeko. Eta uste hori berresten du AJAren 229.2 artikulua "laburtuta argitaratu" behar dela dioenean.

Beraz, artikulua horrek arautzen duen laburpenak esan nahi du kendu egin behar direla edukitik egokiak, bereizleak eta neurrikoak ez diren datu pertsonal guztiak, informazio orokorra emateko helburua ez baldin badute, eta ezin izango da inondik inora datu pertsonal sentisiblerik jaso.

Azkenik, aipatu behar ditugu Interneten egiten diren argitalpenek gure ustez bete behar dituzten gutxieneko baldintzak argitalpena datu babesaren eskubidearekiko errespetuz jokatzen duela esan ahal izateko, bertan bileren eta erabakien berri ematen delako eta datu pertsonalen tratamenduak egiten direlako.

Beraz, datu tratamenduari buruz bete behar den protokoloak honako baldintzak bete beharko ditu:

a) Fitxategiak alde formalekin bete behar dituen baldintzak:

- DBLOren 20. artikuluan eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 4. artikuluan xedatutakoak: hau da, izaera orokorreko xedapen baten bidez arautzea eta xedapena dagokion aldizkari ofizialean argitaratzea.
- Segurtasun agiria egitea, DBLOren 9. artikuluan xedatutakoaren arabera eta hura zehazten duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuaren arabera.
- Datuak Babesteko Erregistroan inskribatzea, DBLOren 39. artikulua eta otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 18. artikulua arabera.

b) Informaziorako eskubidearen aldetik bete beharrekoak:

Tratatu beharreko eta Interneten argitaratu beharreko datuak jasotzeko erabiltzen diren dokumentuetan jaso egin beharko da DBLOren 5. artikulua xedatzen duen informaziorako eskubidea. Beraz, hau guzti hau azaldu beharko da bertan:

- Biltzen diren datuak [XXXX] fitxategian jasoko direla eta fitxategiak honako helburua duela: [XXXX].
- Datu horiek ez zaizkiola inori lagako.
- Fitxategiaren kontrolatzailea honako organoa dela: [XXXX],
- Interesdunak datuak atzitzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideak baliatu nahi izanez gero, helbide honetara jo behar duela: [XXXX],
- eta erabakietan agertzen diren datu pertsonalak web orrian argitaratuta egongo direla ondoko prozesua egiteko behar adina denbora: [XXXX], bai eta egoki ikusten diren errekursoak egiteko epeak irauten duten bitartean ere

Adibidez, hona hemen informazio klausula baten eredua:

"Honen bidez biltzen diren datu pertsonalak honako fitxategian sartuko dira: [XXXX Sartu hemen fitxategiaren izena]. Fitxategiaren helburua honakoa da: [XXXX deskribatu helburua]. Datu horiek honakoari utzi ahal izango zaizkio: [XXXX esan nori], legeak aurreikusten dituen bestelako lagapenez gain. Bestalde, interesdunak datuak atzitzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka

egiteko eskubidez baliatu nahi badu, honako helbide honetara jo beharko du: [XXXX adierazi helbidea]. Horren guzti horren berri ematen da Datu pertsonalak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 5. artikulua xedatutakoa betetzeko”.

c) Web orrian jarriko den informazioa dela eta, argi eta garbi adierazita egon beharko da zeintzuk datu mota agertuko diren.

Horrez gain, beste informazio ohar bat ere jaso beharko dute honakoak adierazteko: web orrian jasotako datuak ez direla jendearen eskurako iturri eta ezin direla zati batean edo osorik erreproduzitu eta ezin direla informazioa berreskuratzeke ezelako sistemen bidez eman edo erregistratu, baldin eta ukituek ez badute adostasunik adierazi.

Horiez gain paragrafo horrek adierazi beharko luke web orrian jasotako datu pertsonalen zabalkundeak helburu bat eta bakarra duela eta zera dela: toki erregimenari buruzko legedian jasota dagoen publizitatearen printzipioa eta herritarren parte hartzearen printzipioa betetzea.

4.- Datuen kalitateari buruz esan behar da DBLOren 4. artikulua hirugarren, laugarren eta bosgarren zenbakietan xedatutakoaren arabera tratatu behar direla:

“” ...

3. Datu pertsonalak zehatzak eta eguneratuak izan beharko dira eta baliokoak interesdunaren egungo egoerarako.

4. Erregistratutako datu pertsonalak ez badira zehatza, zati batean nahiz osorik, edo datuak ez badira osoak, datuak ofizioz ezereztu eta ordeztu beharko dira, eta datu zuzenduak edo osatuak jasoko dira, 16. artikulua ukituei aitortutako ahalmenei kalterik egin gabe.

5. Datu pertsonalak ezereztu egingo dira datu-bilketa egin zenean edo erregistratu zirenean zegoen helbururako beharrezkoak eta bereizleak ez direnean. ...”

III

Udalbatzetako aktak herritarren artean banatzearen gaineko kontsulta dela eta, honakoa esan beharrean gaude:

Lehen ere esan dugu Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 18 e) artikulua honako eskubidea aitortzen diela herritarrei, haien betebeharrak eta eskubideak arautzean:

Udal espediente eta dokumentazio guztien gaineko informazioa izateko eskubidea, baldin eta lehendabizi eskaera arrazoitua egin badiote udal administrazioari, eta beti ere Konstituzioaren 105. artikulua xedatutakoaren arabera.

AJAren 207. artikulua zerbait gehiago dio eta honako baieztapena egiten du:

Herritar guztiek dute toki erakundeetako gobernu eta administrazio organoen erabakiak eta horien aurrekariak egiaztatzeke kopiak eta ziurtagiriak eskuratzeko eskubidea, baita artxibo eta erregistroetara jotzeko ere, Konstituzioko 105. artikuluko b) idatz-zatia garatzeko legedian xedatutako eran. Udalbatzetako eta Gobernu Batzordeko akordioak, erabaki izaera badute, legeak aurreikusitako eran argitaratu eta jakinarazi beharko dira. Betekizun berberak bete beharko dituzte alkatearen edo korporazioaren lehendakariaren eta hango kide izanik eskuordetzaren bat dutenen ebazpenek.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 70.3 artikulua honakoa ere xedatzen du:

3. Herritar guztiek dute toki-korporazioen erabakiak eta horien aurrekariak egiaztatzeke kopiak eta ziurtagiriak eskuratzeko eskubidea, baita artxibo eta erregistroetara jotzeko ere, Konstituzioko 105. artikuluko b) idatz-zatia garatzeko legedian xedatutako eran. Eskubide hori ukatzea edo mugatzea, Estatuaren segurtasun eta defentsari dagokienean, eta delituak ikertzeari edo pertsonen bizitza pribatuari ukitzen dienean, arrazoitutako ebazpenen bidez frogatu beharko da.

Datu babesaren ikuspuntutik eta bereziki DBLOren 3 j) artikuluan xedatutakoa kontuan hartuta, udalbatzek izaera publikoa badute ere, horrek ez du esan nahi "jendearen eskurako iturri" direnik.

Beraz, baten batek horko datuak jaso eta tratatu nahi baditu, Datu pertsonalak babesteari buruzko Lege Organikoa ezarritako betekizunak bete beharko ditu nahitaez.

Orain arte aztertu dugun udalbatzen saioen argitalpena alde batera utzita, beste kontu bat da udalbatzetatik kanpo herritarrek informatuta egoteko eskubidea dutela.

Informazioarako eskubideak, ordea, zenbait baldintza dakartza. Beraz, Toki Araubidearen Oinarriak (TAOL) arautzen dituen Legearen 18.1 artikulua informazio eskaera arrazoitu egin behar dela xedatzen du eta Konstituzioaren 105. artikulua aipamena egiten du. TAOLen 70. 3 artikulua eta AJAren 207. artikulua ere Konstituzioaren artikulua bera aipatzen dute.

Konstituzioaren 105 b) artikulua arabera, herritarrek artxiboetara eta erregistroetara sartzeko eskubidea dute. Eskubide hori gehiago garatu zuten izaera orokorrekin Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 35. eta 37. artikuluek.

Gure ustez, Udalaren asmoa udalbatzetako aktak etxebizitzetara bidaltzea bada, ulertu behar dugu Konstituzioaren 23. artikulua xedatzen duen eskubidea gauzatzeaz ari direla, hau da, gai publikoetan parte hartzeko eskubidea gauzatzeko modu batez ari direla, eta horrek ez duela zerikusirik atzipen eskubidearekin.

Informazio emate horrek udalbatzetako saioen zabalkunderako aipatu dugun erregimena bete behar duela irizten diogu, helburua ere bera delako. Beraz, udalbatzetako saioetako akta laburtuak bidali ahal izango dira etxebizitzetara. Baina, aurreko puntua aztertu dugunean aipatu dugun bezala, akta laburtuak direnez, aktetatik kendu egin beharko dira informazio orokorra emateko helbururako egokiak, garrantzitsuak eta neurrikoak ez diren datu pertsonal guztiak. Bestalde, ezingo da agertu ezelako datu sentiblerik.

Udalak bidaltzen dion informazio orokorra ikusi eta gero, herritarrek atzipen eskubideaz baliatzeko aukera izango du, baldin eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 35. eta 37. artikuluetan xedatutako baldintzak betetzen baditu.

ONDORIOA

Udalbatzen aktak udal web orrian argitaratzea eta herritarrei akten kopiak bidaltzea bat datozen datu babesaren arloko legediarekin, baina txosten honetan jasotako baldintzen arabera egiten bada.

9. GRABAKETAK ADINEKO PERTSONENTZAKO EGUNEKO ZENTROETAN

XXXXXXXXK ONDOKO GAIARI BURUZ EGINDAKO KONTSULTAREN GAINEKO IRIZPENA: "EA EGUNEKO ZENTROETAN JARRITA DAUDEN BIDEOKAMERA SISTEMAK DATU BABESAREN ARLOKO ARAUDIAREN ARABERAKOAK DIREN".

CN08-012

AURREKARIAK

LEHENENGOA. Datuak Babesteko Euskal Bulegoak XXXXXXren idazki bat jaso zuen. Idazki horren bidez, XXXXXX goiburuan adierazitako gaiari buruzko txostena egiteko eskatzen zuen.

BIGARRENA. XXXXXXXX izenpetzen du idazkia eta honakoa dio:

XXXXXX Zerbitzuak uste du ondoko gaiari buruzko kontsulta egin behar diola Datuak Babesteko Euskal Bulegoari; izan ere, zerbitzu horrek baitu XXXXXXren esparruan dauden gizarte zerbitzuetako entitateak, zerbitzuak eta zentroak ikuskatzeko eta baimentzeko eskumena. Hona hemen gaiaren azalpena:

XXXXXX Zerbitzuak antzeman du laguntza behar duten adinekoentzako zenbait eguneko zentrotako (Laguntza behar duten adinekoentzako eguneko zentroei buruzko urriaren 17ko 202/200 Dekretuak arautzen ditu zentro horiek) gune komunetan bideo/web kamerak daudela eta kamera horiek hartutako irudiak kanpotik atzitzeko moduan daudela.

Kamera horiek hartzen dituzten irudiak kanpotik atzitzeko, web orri bat erabiltzen da (ohikoena da zentroko bertako web orria izatea) eta irudiak atzitzeko kontrol neurriak daude (erabiltzaileen kodeak eta pasahitza).

Zentroek kamera sistemen berri ematen diete bertako erabiltzaileei. Alde batetik, informazioa idatziz eman zaie, kontratuetan adostasunak ere jasoz, eta bestetik, zentroetan horren gaineko txartela ere jarri dira.

Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen (2004-03-04ko EHAA) 17.1.n) artikulua xedatzen duena kontuan hartuta eta arlo horretan aplikatu beharreko araudia betetzen duten ala ez seguru jakiteko, bidezkoztat jotzen dugu kontsultatzea ea datu pertsonalen babesaren arloko legedia betetzen duten ala ez adinekoentzako eguneko zentroetan (gune komunetan) jarrita dauden bideo/web kamerek, kontuan izanik bideokamera horien bidez jasotako irudiak kanpotik atzitzeko aukera dagoela (hau da, sarbide kontrola duen web orri batetik).

HIRUGARRENA. 2008ko maiatzaren 5ean Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendariaren idazki bat bidali zitzaion organo kontsulta-egileari ondoko informazioa eskatuz, behar bezalako erantzuna eman ahal izateko:

Zeintzuk eguneko zentrotan antzeman dituzten horrelako kamera sistemak.

Kameren titularra.

Kokapena.

Azkenik, ea erakundeak egiaztatu duen sistema horiek martxan dabiltzala, ea grabatutako irudirik atzitu duten kanpotik eta ea egiaztatu den eguneko zentroen erabiltzaileek, eta hala badagokio, ea beste inork (langileek, bisitek eta abarrek) ere haien adostasun informatua adierazi duten.

Oraindik ez dugu jaso eskatutakoaren gainean ezelako erantzunik.

LAUGARRENA. Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17.1 artikuluko n) letrak honako eginkizuna esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

“Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkioten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderei erantzutea.”

Beraz, goiko arau hori kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egin diguten galderari erantzuteko txostena egitea.

KONTUAN HARTZEKOAK

I

Kontsultaren xedea da argitzea ea adinekoentzako eguneko zentroetan jarrita dauden bideo/web kamera sistemek datu pertsonalen babesaren arloko legedia betetzen duten ala ez.

Hori egin ahal izateko argi utzi behar den lehendabiziko gauza da irudia datu pertsonala dela. Horrela xedatzen du Datu pertsonalak babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoak (aurrerantzean DBLO) 3. artikuluko a) atalean; izan ere, bertan datu pertsonala zer den definitzen du: “pertsona fisiko identifikatu edo identifikagarri buruzko edozein informazio”. Horrez gain, Datu pertsonalak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa garatzen duen Erregelamendua onartzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuak ere datu pertsonaltzat jotzen du irudia; izan ere, 4. artikuluko f) letrak honakoa xedatzen du datu pertsonala zer den definitzeko: “pertsona fisiko identifikatu edo identifikagarri buruzko edozein informazio (zenbakizkoa, alfabetikoa, grafikoa, fotografikoa, akustikoa edo beste edozein motatakoa)”.

Irudia datu pertsonala dela argi utzi ondoren eta kontsulta-egilearen idazkia berreskuratu eta gero, ikusi dugu bideokamera horien bidez jasotako irudiak kanpotik atzitzeko aukera dagoela (hau da, sarbide kontrola duen web orri batetik).

Irudiak atzitzeko aukera badago, esan daiteke datu pertsonalen tratamendu bat behintzat badagoela, ikusi bestela DBLOren 3 c) artikulua xedatzen duena. Hona hemen:

Datu tratamenduak: modu automatizatuan edo ez automatizatuan egiten diren operazio edo prozedura teknikoak dira, eta datuak jaso, grabatu, gorde, landu, aldatu, blokeatu eta ezerezte ahalbideratzen dute, bai eta komunikazio, kontsulta, interkonexio eta transferentzietatik etorritako datuak lagatzea ere.

Abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuak ere gauza bera dio 5. artikuluko t) letran datu tratamendua zer den definitzen duenean:

Modu automatizatuan edo ez automatizatuan egiten diren operazio edo prozedura teknikoak dira, eta datuak jaso, grabatu, gorde, landu, aldatu, kontsultatu, erabili ezereztu, blokeatu eta ezabatzea ahalbideratzen dute, bai eta komunikazio, kontsulta, interkonexio eta transferentzietatik etorritako datu lagatzeak egitea ere.

Horiek ikusirik, ondoriozta dezakegu kontsulta egilearen kontsulta idazkian aipatzen duen irudiak ikusteko aukera hori datu pertsonalen tratamendu bat dela.

II

Tratamendu bat dagoela baieztatu eta gero, aztertu behar da ea tratamenduak betetzen ote duen datu babesaren arloan indarrean dagoen araudia.

Horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko eguneko zentroen gaineko araudia aztertu behar da. Beraz, Gizarte Zerbitzuei buruzko urriaren 18ko Eusko Legebiltzarraren Legea aztertu behar dugu.

Lege hori garatzeko, Laguntza behar duten adinekoentzako eguneko zentroei buruzko urriaren 17ko 202/2000 Dekretua onartu zen geroago. Gure ustez, aipagarriena 5. artikulua da. Artikuluaren izenburua da “Printzipio orokorrak” eta zera dio lehendabiziko atalean:

“Autonomia printzipioa: erabiltzaileen autonomia sustatu beharko da, halako moldez non zerbitzuak ez dion beste laguntzarik emango, adinekoak duen menpekotasun fisiko edo psikikoak eskatzen duena baino.”

Gutxieneko esku hartzearen printzipioa aitortzen da. Printzipio hori bat dator, bestalde, eguneko zentroan sartzerik ez duten pertsonen profilekin. Hona hemen Dekretuaren 2. artikulua horretaz dioena:

“2. artikulua- Erabiltzaileen profila.

1.– Zentroren baten arreta behar duten adinekoek talde hauetakoren batekoak izan beharko dute:

a) Senideekin bizi diren 60 urtetik gorakoak, baldin eta kausa fisiko edo psikikoengatik egunerokoak egiteko zailtasun gradu ertaina edo handia badute.

b) Senideekin edo bakarrik bizi diren 60 urtetik gorako pertsonak, baldin eta eguneroko lanetarako (oinarrizkoetarako zein gauzak erabiltzeko) ezgaitasun arina badute, eta okerrera egiteko arriskuan badaude dela adinagatik dela babes sozial faltagatik edo gaixotasunagatik.

2.– Oro har, ez dute eguneko zentroan sartzerik izango ez atentzio intentsiboa behar duten adinekoek, ez jokabidean nahasmendua dutenek, elkarbizitzan arazo larriak sortu, edo gainerako erabiltzaileak arriskuan jar ditzaketen pertsonak dira eta”.

Horiez gain, guri dagokigun ondorioetarako, Dekretuaren 6. artikulua ere aipatzekoa da, batez ere erabiltzaileen eskubideez dioena. Horretarako, 4., 5. eta hurrengo ataletan dioenari begiratu behar diogu. Hona hemen:

“4.– Beren intimitatekoak diren datu pertsonalak konfidentzialtasunez tratatzeko.

5.– Intimitatea errespetatzeko. Besteak beste, gerneru-ihesaren arazoei tratamendu egokia emango zaie,erabiltzaileak bainatzen ari direla intimitatea bermatuko zaie eta pertsonarteko harremanak edukitzeko askatasuna edukiko dute.”

Beraz, nahitaez aztertu behar dugu ea lehen aipatu dugun autonomia printzipioa eta erabiltzaileek, haien datu pertsonalak modu konfidentzialean tratatuak izan daitezen, duten eskubidea bateragarriak diren han egiten den datu tratamenduarekin; izan ere, zentro horietan bideokamerak erabiltzea azken finean datu tratamendua da. Beste era batera esanda, aztertu behar da ea lortu nahi den helburua eta horretarako erabiltzen diren bitartekoa proportzionalak diren.

Konstituzio Auzitegiaren 207/1996 Epaiak dio proportzionaltasuna:

“oinarrizko eskubideak murrizten dituen edozein neurriren konstituzionaltasunari etengabe eta beti jartzen zaion baldintza dela, esate baterako, neurri horiek integritate fisikoaren eta intimitateren eskubideetan sartzan badira, eta bereziki, zigor prozesu baten barruan oinarritzko eskubideak murrizteko hartu diren neurriak badira, bete egin behar baita proportzionaltasunaren printzipioa.

Zentzu horretan, aipatu dugu oinarritzko eskubide bat murrizten duen neurri batek proportzionaltasunaren printzipioa hausten duela egiaztatzeko, ondoko hiru eskakizun edo baldintzak betetzen diren ala ez ikusi behar da: “neurri horrekin helburua lortuko ote den (egokitasun irizpena); neurri hori ezinbestekoa ote den eta egiatan ez ote dagoen helburu bera lortzeko beste neurri moderatuagoren bat (premiazkotasunaren irizpena); eta,azkenik, neurritzkoa eta orekatua ote den, interes orokorrari onurak eta abantailak ekarriko dizkiolako, eta abantailak gehiago izango direlako gatazkan dauden beste ondasun edo baloreei ekarri diezazkioken kalteak baino (proportzionaltasun irizpena zentzu hertsian).

Kamera edo bideokamera sistemen bidez zaintza helburuarekin egiten den datu pertsonalen tratamenduari buruzko Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren azaroaren 8ko 1/2006 Jarraibideak zera dio: “Era berean, proportzionaltasuna funtsezko elementu bat da bideozaintzako sistemak jartzen diren arlo guztietan; izan ere, printzipio hori hausten duten kasu askok neurritz kanpoko egoerak ekar baititzakete, adibidez, lantokietan guztientzako dauden lekuetan edo komunitan zaintza sistemak jartzea. Hori dela eta, nonahiko zaintza saihestu nahi da, pertsonaren urrakortasuna galarazteko”.

Aipatu dugun jurisprudentzia irizpide hori eta Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren 1/2006 Jarraibidean xedatutakoa aztertu ondoren, eta kontuan hartzen badugu irudiak grabatzea dela oinarritzko eskubideari bete-betean erasotzen dion denik eta bitartekorik bortitzena, nekez esan daiteke eguneko zentroetan egin ohi diren tratamendu horiek bete egiten dutenik datu pertsonalak babestearen arloko legedia. Ondoko lerroetan azalduko dugu zergatik.

III

Edozein datu tratamendu legezkoa den ala ez aztertzeko, ezinbestean hartu behar ditugu kontuan datu pertsonalen babesaren arloko ondoko funtsezko printzipioak: datuen kalitatearen printzipioa, informazioaren printzipioa, adostasunaren printzipioa eta segurtasunaren printzipioa.

Datuen kalitatearen printzipioa DBLOren 4.1 artikuluan xedatuta dago eta honakoa eskatzen du:

Datu pertsonalak jaso eta tratatu ahal izateko ezinbesteko baldintza da datu horiek egokiak, bereizleak eta neurrikoak izatea, datu bilketaren eremuarekiko eta datu bilketaren helburu zehatz, esplizitu eta legitimoekiko.

Kontsulta idazkian ez da zehatzen zein den bertan jarritako bideokamera sistemaren helburua. Bestalde, guk egindako informazio gehigarriaren eskaerari ez diote erantzun. Beraz, gure azterketak datu garrantzitsu bat du faltan, kontsultari behar bezala erantzuteko.

Hala ere, pentsa dezakegu hasiera batean eta besterik jakin gabe ere, adineko pertsonentzako eguneko zentro batean kamerak jartzeko arrazoiak bi baino ezin direla izan: segurtasuna eta laguntza prestazio hobea ematea.

Segurtasunari buruz esan beharrean gaude ez dugula ikusten bideozaintzako sistemak jartzeko adina arrazoirik dagoenik, nahiz eta segurtasuna barruko eta kanpoko ikuspuntutik begiratu, barruko segurtasunaren xedea erabiltzaileak beste erabiltzaile batzuegandik babestea izanik eta kanpoko segurtasunaren xedea erabiltzaileak kanpotik datozen erasoetatik babestea izanik.

Barruko segurtasuna dela eta, kontuan hartzen badugu Dekretuaren 2.2 artikulua xedatzen duela “ez dute eguneko zentroan sartzerik izango ez atentzio intentsiboa behar duten adinekoak, ez jokabidean nahasmendua dutenak, elkarbizitzan arazo larriak sortu, edo gainerako erabiltzaileak arriskuan jar ditzaketen pertsonak direlako”, ezin da arrazoi horregatik kamerarik jarri.

Kanpotik erasoak jasotzeko arriskua dela eta, esan behar dugu arrazoi horregatik kamerak jarri ahal izateko, benetako arriskua egon beharko zela, arriskua zehatza eta begi bistakoa edo benetan gertatukoa izan beharko zela; eta halakorik ez da egiaztatu.

Bideozaintza sistemaren helburua laguntza prestazio hobea eskaintzea bada, ezer baino lehen esan behar da horrek autonomia printzipioa arautzen duen Dekretuko 5. artikulua urratzen duela; izan ere Dekretuak dioenez “(...) zerbitzuak ez dio beste laguntzarik emango, adinekoak duen menpekotasun fisiko edo psikikoak eskatzen duena baino.” Eta printzipio horrek ahalik eta esku hartzerik txikiena eskatzen du eta esku hartze txiki hori ez dator bat filmazioa bezalako portaera erasokorrekarekin.

Baina ez hori bakarrik, gure ustez Dekretuaren 6.5 artikulua ere urratzen da, ez delako errespetatzen erabiltzaileek duten euren arteko harremanetarako askatasuna, kontsulta idazkiak dioenez, kamerak egineko zentroetako gune komunitan jarrita baitaude.

Gertakari horiek Dekretuko hainbat artikuluko urratzen dituzte eta Gizarte Zerbitzuei buruzko urriaren 18ko 5/1996 Legearen arabera, lege hauste larriak dira. Aipamen berezia merezi dute Lege horretako 36. artikuluko a), n) eta ñ) ataletan jasotako portaerek.

“Hauek dira arau-hauste larriak:

a) Gizarte-zerbitzuetako jarduerak gauzatzerakoan, ezarritako arauak funtsean ez betetzea.

...

n) Erabiltzaileen nortasunari eta beren osasunari buruzko zehaztasunei zor zaien zuhurtzia eta isilpekotasuna ez betetzea.

ñ) Erabiltzaileek beren intimitatea gordetzeko duten eskubidea ez errespetatzea.”

Araudi sektorialeko gogoeta horiek ikusirik, begi bistakoa da tratamendua gehiegizkoa dela, eta, beraz, datuen kalitatearen printzipioa urratu egiten dela, eta, ondorioz, gerta liteke Konstituzio Auzitegiak eskatzen duen proportzionaltasun printzipioa ere ez betetzea.

Orain arteko guztiak kontuan hartuta, honako ondorio hau emateko moduan gaude:

ONDORIOA

Adineko pertsonentzako eguneko zentroetan jarrita dauden bideo/web kamera sistemek ez dute, txosten honetan jasotakoaren arabera, datu pertsonalen babesaren arloko araudia betetzen.

10. UDAL ESKUMENENKO ZERBITZUAK EMATEKO AZPIKONTRATATUTAKO ENPRESEK UDAL ERROLDAN SARBIDEA IZATEA

XXXXXXXXXKO UDALAK EGINDAKO KONTSULTA HONEN GAINEKO IRIZPENA: EA AZPIKONTRATATUTAKO ENPRESEK UDAL ERROLDAKO DATUAK ATZITZERIK DUTEN.

CN08-014

AURREKARIAK

LEHENENGOA. Datuak Babesteko Euskal Bulegoak Xxxxxxko Udaleko idazkariak izenpetutako idazki bat jaso zuen 2008ko martxoaren 6an. Idazki horren bidez, goiburuan adierazitako gaiari buruzko txostena egiteko eskatzen zuen.

BIGARRENA. Kontsulta idazkian honakoa adierazten da:

“Posta elektroniko bidez, CN07-010 erreferentziadun txosten juridikoaren kopia bat jaso genuen. Txostenaren gaia zen ea Udaleko arlo edo zerbitzuei udal erroldako datuak eman ahal zaizkien, udal eskumenez baliatuz hainbat jarduera garatzeko.

Xxxxxxko idazkari kontu-hartzailea eta Xxxxxxko Udaleko fitxategien kontrolatzailea naizen aldetik, txosten juridiko hori zabaltzea nahiko nuke, ez daukagulako argi azpikontratutako enpresen bitartez eman nahi ditugun udal eskumeneko zerbitzuen kasuan, zerbitzua ematen duten enpresa horiek jatorrizko txostenean aipatzen ziren erroldako datuak atzitu ditzaketen ala ez.

Erantzuna baiezkua bada, jakin nahi genuke ea beharrezkoa den hitzarmen bat izenpetzea egiten den eskaera bakoitzeko ala nahikoa ote den udalaren eta azpikontratutako enpresaren arteko hitzarmen orokor bakarra egitea eta bertan jasotzea ematen diren datuak eskaerako helbururako baino ez direla erabiliko”.

HIRUGARRENA. Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17.1 artikuluko n) letrak honako eginkizuna esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

“Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkioten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderei erantzutea.”

Beraz, goiko arau hori kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egin diguten galderari erantzuteko txostena egitea.

KONTUAN HARTZEKOAK

I

Kontsulta-idazkian galdetzen dena da ea Udalak kontratatutako enpresa batek Udal Erroldako daturik atzitu dezakeen.

Galdera horri erantzunez Xxxxxxko Udalari bidali genion aurreko txostenean aztertu zen Udal Erroldaren erregimena . Beraz, txosten honetan beste alderdi hau aztertuko dugu: tratamenduaren arduraduna.

Hasteko, eta kontsulta oso modu orokorrean egiten denez, esan behar dugu azterketa hau egiten dugula pentsatuz udal zerbitzuak kudeatzeko kontratatu diren zenbait enpresak erabiliko dituzten udal fitxategiez ari garela.

Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legeak tratamendu arduraduna zer den definitzen du 3 f) artikuluan:

“Bere aldetik edo beste batzuekin batera, tratamendu kontrolatzailearen kontura datu pertsonalak tratatzen dituen pertsona fisiko nahiz juridikoa, agintari publiko, zerbitzu nahiz bestelako erakundea da”.

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa garatzen duen Erregelamendua onartzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuak 5 i) artikuluan definitzen du zer den tratamendu arduraduna:

“Pertsona fisikoa nahiz juridikoa, agintari publikoa nahiz pribatua edo administrazio organoa da, bakarrik nahiz beste batzuekin batera datuak tratatzen dituen tratamendu edo fitxategiaren kontrolatzailearen kontura, harreman juridiko bat dagoelako tratamendu edo fitxategiaren kontrolatzailearekin lotzen duena eta zerbitzua emateko jardute eremua mugatzen diona.

Era berean, tratamenduaren arduradun izateko aukera izango dute nortasun juridikorik ez duten erakundeek ere, datuen trafikoan subjektu berezitu gisa baldin badihardute”.

Kontsulta-idazkia aipatzen den zalantza da ea “azpikontratutako enpresen bitartez eman nahi ditugun udal eskumeneko zerbitzuen kasuan, zerbitzua ematen duten enpresa horiek jatorrizko txostenean aipatzen ziren erroldako datuak atzitu ditzaketen ala ez”.

Beraz, argi dago udal eskumenak direla, nahiz eta hirugarren baten bidez (enpresa) eman. Enpresa horrek fitxategi publikoetan dauden datuak tratatu beharrik badu, tratamendu arduraduna dela esango da, baldin eta Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren (aurrerantzean DBLO) 12. artikuluan xedatutako betekizunak betetzen baditu.

DBLOren 12. artikulua tratamendu arduradunaren lege-erregimena finkatzen du. Hona hemen dioena:

“12. artikulua. Datuak hirugarrenen bidez atzitzea.

1.- Ez da datuen komunikaziotzat joko hirugarren batek datuak atzitzea, datuak atzitzea beharrezkoa bada tratamendu kontrolatzaileari zerbitzu bat emateko.

2.- Kontratuan arautu beharko da hirugarrenen bidez tratamenduak egiteko aukera; kontratu hori idatziz jaso beharko da, edo kontratua egin dela eta kontratu horren edukia egiaztatzen duen beste edozein forma erabilita. Esanbidez ezarri beharko da tratamendu arduradunak tratamendu-kontrolatzaileak emandako jarraibideen arabera bakarrik tratatuko dituela datuak, datu horiek ez dituela aplikatu edo erabiliko kontratu horretan jaso gabeko xedeekin eta datu horiek ez dizkiela komunikatuko beste pertsona batzuei, ezta datuok gordetzeko ere.

Kontratuan finkatuko dira, berebat, lege honen 9. artikulua aipatzen dituen segurtasun-neurriak. Tratamenduaren arduradunak nahitaez ezarri beharko ditu halakoak.

3.- Behin kontratu-prestazioa beteta, datu pertsonalak suntsitu edo tratamendu-kontrolatzaileari itzuli beharko zaizkio. Beste horrenbeste egingo da edozelako euskarri edo agirirekin ere, halakoek tratamenduaren objektu izan den datu pertsonalen bat jaso badute.

4.- Tratamendu-arduradunak datuak beste xede batekin erabiltzen baditu edo kontratuaren estipulazioak bete gabe komunikatu edo erabiltzen baditu, tratamendu-kontrolatzaileatzat joko da, eta modu pertsonalean erantzungo du egin dituen arau-hausteen gainean.

Aztertzen ari garen kasuan kontsulta-idazkiak berariaz aipatzen ditu azpikontratutako enpresen bitartez eman nahi diren udal eskumeneko zerbitzuak. Zentzu horretan, kontsulta behar bezala ebatzi ahal izateko, bi fitxategi mota bereizi behar ditugu:

Alde batetik, udal zerbitzuetakoak diren berezko fitxategiak daude, eta fitxategi horiek dira kontratatutako enpresa baten bitartez kudeatu nahi direnak (kontsulta-idazkiak azpikontratatuak direla badio ere, gure ustez kontratatuak direla esan nahi du).

Beste alde batetik, toki administrazio guztiek duten fitxategia dugu: Biztanleen Udal Errolda.

Beraz, bi fitxategi dauzkagu aurrean, bakoitza kontrolatzaile baten menpe. Lehendabiziko fitxategien kasuan kontratatutako enpresak bertako datuak atzitzeko aukera izango du, hau da, enpresa tratamendu-kontrolatzailearen kontura datuak tratatzen dituen tratamendu-arduraduna izango da. Beraz, ez dago datu-lagatzerik, Legeak baimendutako datu-atzipena baizik. Horrela dago araututa 12. artikuluko lehenengo atalean.

“12. artikulua. Datuak hirugarrenen bidez atzitzea.

1.- Ez da datuen komunikaziotzat joko hirugarren batek datuak atzitzea, datuak atzitzea beharrezkoa bada tratamendu kontrolatzaileari zerbitzu bat emateko.

Beste kontu bat Udal Erroldarekin gertatzen dena. Oso argigarria da Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 17.1 artikulua xedatzen duena:

1.- Udalak dauka udal errolda egin, mantendu, berraztertu eta gordetzeko ardura, Estatuko legediak arautzen duenarekin bat.

Horregatik, esparru horretan eskumena duten Estatuaren Administrazio Orokorreko erakundeek aldiro-aldiro jakinaraziko diete udalei zeintzuk aldaketa egon diren bertako biztanleei buruz udal erroldan jaso behar den informazioaren gainean. Eta hori egiteko modua erregelamendu bidez arautuko da.

Udalek bitarteko informatikoen bidez kudeatu behako dute errolda. Aldundiek, kabildoek eta uharteko kontseiluek hartuko dute beregain behar besteko gaitasun ekonomikorik eta kudeaketa gaitasunik ez duten udalerrien errolden kudeaketa informatizatua, baldin eta udalerrri horiek ezin badiutzte datuak modu informatizatuan mantendu.

17.1 artikulua xehetasunez irakurri eta gero, honako ondorioa ateratzen dugu: Udal Erroldaren kudeaketa pribatua ezinezkoa dela. Gainera, ez du balio baliabiderik ez dagoelako aitzakia erabiltzea erroldaren kudeaketa pribatua egiteko tratamendu arduradun baten bitartez; izan ere, horrelakori geratuz gero, legeak berariaz esleitzen dizkie eskumenak foru aldundiei, kabildoei eta uharteko kontseiluei.

Horregatik, kontratatutako enpresak udal fitxategien tratamendu arduraduna baino ezin du izan, hau da, kudeaketa pribatizatua duten fitxategien tratamendu arduraduna. Baina, inoiz ez da izango Erroldaren tratamendu arduraduna eta, beraz, ezin izango du zuzenean atzitu erroldako daturik.

Bide batez, esan behar da DBLOren 12.1 artikulua xedatzen duela hirugarrenek datuak atzitzea ez dela datu lagatsetzat joko, eta, beraz, tratamendu arduradun bat egon daitekeela datuak lagatzea “beharrezkoa bada tratamendu kontrolatzaileari zerbitzu bat emateko”.

Ikusten denez, aztertzen ari garen kasuan enpresak ez dio zerbitzua ematen atzitu nahi den fitxategiaren (Udal Errolda) tratamendu kontrolatzaileari, beste fitxategi baten tratamendu kontrolatzaileari (kanpora atera den zerbitzuarena) baizik, hau da, tratamenduaren arduradunak (enpresak) fitxategi bat (errolda) atzitu nahi du, baina enpresa kontratatu duen zerbitzua ez da fitxategi horren (erroldaren) tratamendu kontrolatzailea.

Kontratutako enpresak erroldako datuak atzitu ahal izateko, atzitu beharreko datu horiek nahitaez egon beharko dute enpresak kudeatu beharreko fitxategian jasota. Hau da, enpresa kontratatu duen udal zerbitzuak Erroldaren tratamendu kontrolatzaileari eskatu beharko dizkio behar dituen erroldako datuak. Datuak eskuratu eta gero, bere fitxategietan jaso beharko ditu, eta hori egin ondoren, datuak tratatzeko moduan egongo dira eta tratamenduaren ardura duen enpresak tratatu

egin ahal izango ditu. Udal zerbitzuak eta enpresak, biek bete beharko dute DBLOren 12. artikuluko xedatutakoa. Kasu hau baimendutako datu-atzipen bat da eta ez datu-lagatze bat.

Kontuan izan behar dugu adostasunik gabe egindako datu lagatzeak edo komunikazioak direla oinarritzko eskubidea gehien urratzen duten portaerak, eta DBLOk dio arau-hauste oso larria dela legeak onesten ez dituen datu lagatzeak edo komunikazioak egitea.

Aurrekoa kontuan hartuta, Bulego honen iritziz, pertsona juridiko-pribatu batek ezin du izan sarbide zuzenik udal erroldan, ez bada fitxategi horren tratamendu arduraduna, datu babesaren arloan indarrean dagoen legediak ez duelako horrelakorik onartzen.

II

Argi utzi ondoren kontratatutako enpresak ezin duela udal erroldako daturik zuzenean atzitu, ezinbestekotzat jotzen dugu aurreko paragrafoan aipatutako beste aukera azpimarratzea, hau da, enpresak zerbitzua ematen dion udal zerbitzuak Udal Erroldaren fitxategiaren kontrolatzaileari eskatzea erroldako datuak. Erroldako datuak laga ondoren eta udal zerbitzuko fitxategietan jaso ondoren, hala badagokio, tratamenduaren ardura duen enpresak tratatzeko moduan egongo dira, eta biek, enpresak eta udal zerbitzuak, bete beharko dituzte DBLOren 12. artikuluko xedatutako betekizunak. Hona hemen betekizun horiek labur-labur:

- Datuak atzitzea ezinbestekoa izatea tratamendu kontrolatzaileari zerbitzu bat eman ahal izateko.
- DBLOren 12. artikuluko aipatzen duen kontratua izenpetu beharko da. Kontratuaren edukia ere 12. artikuluan dago araututa.
- Kontratuan jasotako prestazioa eman ondoren, datu pertsonalak tratamendu kontrolatzaileari itzuli beharko zaizkio edo suntsitu egin beharko dira.

Betekizun horiek betetzen badira, fitxategiko datu-atzipena datu pertsonalak babestearen araudiaren araberkia izango da, eta tratamendu hori ez da lagapentzat joko, datu-atzipena delako.

Tratamendu kontrolatzailearen inguruan esandakoaz gain, datuen kalitatearen printzipioa bete behar dela ere esan behar dugu, datu babesaren eskubidearen oinarrian baitago. DBLOren 4.1 artikuluko arautzen du gai hori:

“Datu pertsonalak jaso eta tratatu ahal izateko ezinbesteko baldintza da datu horiek egokiak, bereizleak eta neurrikoak izatea, datu bilketaren eremuarekiko eta datu bilketaren helburu zehatz, esplizitu eta legitimoekiko”.

Tratamenduaren ardura duen enpresak bakar-bakarrik atzitu ahal izango ditu lortu nahi den helburuarekiko egokiak, bereizleak eta neurrikoak diren datuak.

ONDORIOA

Pertsona juridiko-pribatu batek Udal Erroldako daturik ezin du atzitu, hori datuak babesteko lagearen aurkakoa delako, eta berdin dio pertsona juridiko hori udaletxeko beste fitxategi baten tratamendu arduraduna bada.

11. ADMINISTRAZIO PUBLIKOEI ZERGA-DATUAK LAGATZEA

XXXXXXKO FORU ALDUNDIKO OGASUN ETA FINANTZA SAILEKO IDAZKARITZA TEKNIKOAK EGINDAKO KONTSULTA HONEN GAINEKO IRIZPENA: ZENBAIT ADMINISTRAZIO PUBLIKOEI EGINDAKO ZERGA ARLOKO DATUEN LAGAPENAK.

CN08-016

AURREKARIAK

LEHENENGOA: 2008ko martxoaren 25ean Xxxxxxko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Saileko Idazkaritza Teknikoaren idazki bat jaso genuen Datuak Babesteko Euskal Bulegoan. Idazki horren bidez, goian aipatzen den gaiari buruzko txostena eskatzen zen.

BIGARRENA: Kontsulta idazkian honakoa adierazten da:

“...datu pertsonalen tratamenduarekin zerikusia duten bi kontsulta egiten ditugu:

Lehendabiziko kontsulta:

Xxxxxxko Foru Aldundiak hainbat hitzarmen dauzka izenpetuta beste hainbeste administrazio publikorekin Ogasun eta Finantza Sailarekiko elkarlana arautzeko eta administrazioek esleituta dauzkaten eginkizunak gauzatzeko eskuratzen eta eskatzen dituzten zerga arloko informazioa atzitu dezaten.

Zerga arloko araudiak babesten ditu informazio eskaera horietan sartzen diren datuak, eta datuak pertsona fisikoei buruzkoak badira, datu pertsonalak babesteari buruzko araudiak ere babesten ditu.

Hitzarmen horien ondorioz, administrazio lagapen-hartzaileetako pertsona fisikoei baimenak ematen zaizkie Foru Ogasun honek dauzkan Xxxxxxko herritarren eta/edo erakundeen zerga arloko datuak eskura ditzaten.

Dakizuenek, zenbait administraziook betearazteko bidetik zergak biltzeko eta beste antzeko zerbitzuak emateko kontratuak dauzkate izenpetuta pertsona juridiko-pribatuekin.

Zerbitzu nagusia gauzatzeko, adjudikaziodunak datu pertsonalak dauzkan fitxategiak atzitzea dakarrenez, alde biek beste kontratu osagarri bat izenpetzen dute datu atzipenaren baldintzak eta helburua arautzeko, eta segurtasuna bermatzeko hartu behar diren neurri teknikoak eta antolakuntzako neurriak arautzeko. Adjudikaziodunak tratamendu arduradunaren figura bereganatzen du.

Beste zerga administrazio batzuekin lankidetzan aritzeko egiten diren datu lagatzeak baimentzen dituen Xxxxxxko Lurralde Historikoko Zergen martxoaren 8ko 2/2005 Foru Araua kontuan hartuta, jakin nahi dugu ea bidezkoa den Foru Ogasun honek dauzkan xxxxxx(t)arren zerga arloko datuak eskuratzeko baimenak ematea administrazio lagapen-hartzailearekin formalizatutako kontratuen adjudikazioduna den enpresa bateko pertsona fisikoei (tratamendu arduradunak izanda).

Bigarren kontsulta:

Goian aipatu dugun Zergen Foru Arauaren artikulua berak xedatzen duenez, Xxxxxxko Foru Aldundiak zerga arloko informazioa jasotzeko hitzarmenak dauzka izenpetuta Xxxxxxko hainbat udalekin, ondasun higiezinaren ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko aitorpenekin batera aurkeztutako eskritura publikoak eskuratzeko ahalbideratzeko, horrela, udal lagapen-hartzaileak hiri-lurren balio-gehitzearen gaineko zerga likidatu eta bildu dezan.

Modu horretan udal lagapen-hartzailearen eskura jartzen da eskritura publikoan jasotako informazioa, eta horixe da kontsulta honen funtsa.

Baimendutako udal funtzionarioek sarbide mugatuta dute dokumentu digitalizatuak kode bat dutelako. Kodea jartzeko, higiezina zein udalerritan kokatua dagoen hartzen da kontuan. Horrela, udal bateko erabiltzaileek udalerriri horretako higiezinaren eskriturak baino ezin ditzakete atzitu.

Horrez gain, higiezina kokatuta dagoen udalerrira eta kontsulta egin duen udalak zein den alde batera utzita, badago eskriturak atzitzeko beste bide bat. Beste bide hori eskritura identifikatzen duten datuetatik abiatzen da: notarioaren kodea, urtea eta protokolo zenbakia.

Sortzen zaigun zalantza da ea beste eskritura publiko batzuk eskuratzeko aukerarik eman daitekeen, adibidez, oinordetzen eta dohaintzen ondorioz aurkeztutakoak, horietan ere aurreikusita daudelako higiezinaren eskualdaketa operazioak, eta zentzu horretan horiek atzitzea udal askoren interesekoa delako eta udal askok jadanik eskatu ere egin dutelako.

Kontua da horrelako informazioa ez dutela atzitzen bakarrik datu base horietara sarbidea duten erabiltzaileek, ondare eskualdaketen eskriturekin egiten den bezala, sarritan eskritura horiek hainbat udaletan kokatua dauden zenbait higiezinari buruzkoak direlako, eta, gainera, eskritura digitalizatu horiek dauzkan fitxategiak oinordetzako beste dokumentu batzuk ere badauzkalako barruan, oinordekotzei buruzkoak eta oso pertsonalak direnak: testamenduak.

Dirudenez, dokumentu horiek digitalizatzeko prozesuak ez du aukerarik ematen ezelako kodifikaziorik ezartzeko eta udalerrira zedarritzen dela ziurtatzeko. Zenbait dokumentu alderatzeko edo eskrituretatik zenbait datu ateratzeko aukerarik ere ez du ematen, denak fitxategi bakar batean sartuta daudelako.

Bestalde, datu hauetatik abiatuta sartuz gero (notarioaren gakoa, urtea eta protokoloa), fitxategi osoan sartzeko aukera emango zen (eskriturak gehi bestelako dokumentazioa barne).

Informazio hau atzitzeko izan ditugun eskaerak ezesteko, orain arte erabili izan dugun arrazoia izan da datu basean dagoen informazioa gehiegizkoa dela eta lagapen-hartzaileak ez duela hainbeste informazio behar zenbait udal zerga likidatzeko.

HIRUGARRENA: Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17.1 artikuluko n) letrak honako eginkizuna esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

“Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkieten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkieten galderei erantzutea.”

Beraz, goiko arau hori kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egin diguten galderari erantzuteko txostena egitea.

KONTUAN HARTZEKOAK

I

Lehendabiziko galdera dela eta, datu babesaren arloko araudiaren ikuspuntutik begiratuta komeni da, gure ustez, deskribatzen diren operazio horietako hiru parte hartzaileak identifikatzea eta operazioak kalifikatzea.

Kontsulta idazkian egindako deskripzioa ikusita, azkenetatik hasita, bi operazio berezi daitezke: a) Foru Ogasunaren eta “beste administrazioetako” batzuen artean gertatzen dena eta b) bigarren horren eta zergak biltzeko eta beste antzeko zerbitzuak ematen dituzten pertsona juridiko-pribatuen artean gertatzen dena..

Datu babesaren ikuspuntutik, lehendabizikoari dagokion kalifikazioaren arabera, operazio hori datu pertsonalak lagatzea edo komunikatzea da. Eta hala dela aitortzen du kontsulta egiten duen

administrazioak berak ere martxoaren 8ko 2/2005 Zergen Foru Arau Orokorraren 92.1 b) artikulua aipatzean.

Hona hemen artikulua horrek dioena:

1. Zerga Administrazioak bere eginkizunak betetzean eskuratzen dituen datu, txosten edo aurrekariak izaera erreserbatua dute, eta berak kudeatu behar dituen zergak edo baliabideak modu eraginkorrean aplikatzeko eta zigorrek ezartzeko baino ezin dira erabili. Hortaz, ezin izango zaizkio beste inori utzi edo jakinarazi, non eta horren xedea honako hau ez den:

b) Beste zerga administrazio batzuei laguntzea beren eskumenen esparruan sartzen diren zerga obligazioak betetzeko.

Interesgarria da kalifikazio hori gogoan izatea, datuak lagatzeko edo komunikatzeko modua ("herritarren zerga arloko datuak atzitzeko baimenak ematen zaizkie administrazio lagapen-hartzaileko pertsona fisikoei...) eta "atzitzea" eta "baimendua" terminoak ikusita, uler daitekeelako ez dela datu lagatze edo datu komunikazioa bat, beste eragiketa bat baizik.

Aurrekoa esan badugu izan da kontzeptu bi horiek ez daitezen nahastu Datu pertsonalak babesteari buruzko Legea garatzen duen abenduaren 21eko Erregelamenduak jasotzen dituen beste definizio batzuekin; adibidez, Erregelamenduaren arabera, "baimendutako atzipena" da "erabiltzaile bati ematen zaion baimena hainbat baliabide erabil ditzan".

Horrela, administrazio bati datuak lagatzen bazaizkio (edo datuak atzitzen uzten bazaio), administrazio hori, eta are gutxiago administrazio horietako tratamendu arduradunak, ezin izango dira Foru Aldundiaren erantzukizunpeko fitxategien "erabiltzailetzat" jo.

Orain arte esandako guztitik atera daitekeen lehengo ondorioa da administrazio batek Foru Ogasunak dauzkan datuak atzitzen dituen datuak lagatzen edo komunikatzen direla, eta operazio horretan lehendabizikoa lagatzailea dela eta bigarrena lagapen-hartzailea.

Operazio horren gaineko eragozpenik ez badago ere, ondo dago gogoratzea operazioa "(lagapen-hartzaileak) esleituta dauzkan (eginkizunak) gauzatzeko egiten bada", bete egiten dela datu pertsonalen babesaren arloko araudian ezarritakoa; eta horrez gain, Zerga Foru Arau Orokorraren babesa izateaz gain, eta babes hori Aldundiak berak ematen dio, kontsulta egileak aipatzen duen adibidea kontuan hartuta, beharbada bide betearazleari buruzko araudiaren babesa ere baduela.

Deskribatutako bigarren operazioa baino ez zaigu falta orain, hau da, administrazio lagapen-hartzailearen eta "pertsona juridiko-pribatuaren artean" egiten den operazioa "betearazteko bidetik zergak biltzeko eta beste antzeko zerbitzuak emateko".

Aipatu beharreko lehendabiziko gauza da, datu babesaren ikuspuntutik, bigarren operazio horrek eta aurrekoak ez dutela bata bestearekin zerikusirik eta guztiz independenteak direla, eta ez diola inondik inora eragiten Aldundiari, gure ustez Aldundiak ezin duelako horren gainean ezer esan, esango balu lagapen-hartzailearen autoantolaketa esparruan sartuko litzatekeelako; izan ere, lagapen-hartzaileak diru bilketa bere kabuz edo hirugarrenen bidez egiteko erabil baititzake datuok.

Aurreko guztia kontuan hartuta, administrazio horrek eta pertsona juridiko-pribatu horrek, datu babesaren ikuspuntutik begiratuta, honako lekua hartzen dute: lagatzen diren datuen tratamendu kontrolatzailea eta tratamenduaren arduraduna hurrenez hurren.

Beraz, emandako argibideak kontuan izanda, egin diguten galdera zehatzari erantzuteko moduan gaude.

Lehendabiziko operazio hori datu lagatzea da eta datu babesaren arloko araudia betetzen du, eta hala da, Zergen Foru Arau Orokorraren 93.2 b) artikulua xedatzen duena ere kontuan hartuta, lagapen-hartzailea "zerga arloko beste administrazio bat" delako eta datu lagatzearen helburua bere eskumen esparruko zerga betebeharrak betetzea delako.

Hori guzti hori horrela izanik, eta alde batera utzita nola antolatzen den “beste administrazioa”, antolatzeke erak ez daukalako loturarik edo zer ikusirik Foru Ogasunarekin, administrazioa ez den hirugarren pertsona batek zuzenean “atzituko” balitu Foru Aldundiko fitxategietan dauden datuak, hori datu lagatze edo datu komunikazio bat izango zen, baina Foru Aginduaren eta Datu pertsonalak babesteari buruzko Lege organikoaren babesik ez luke izango.

Zentzu horretan, eta kontsulta idazkitik ondoriozta daitekeenez (“Hitzarmen horien ondorioz, administrazio lagapen-hartzaileko pertsona fisikoei baimenak ematen zaizkie datuak eskura ditzaten...”).

Beraz, ematen du egokiena izango zela “beste administrazioak”, behar dituen zerga arloko datuak “atzitu” eta gero, datu horiek bertako fitxategietan jasotzea, eta han jaso ondoren, tratamendu arduraduna den pertsona juridiko-pribatua, hala badagokio, arduratzea horiek tratatzeaz, eta, horrela, biek beteko lukete DBLOren 12. artikulua, artikulua horrek xedatzen duenez, datu horiek “atzitzeko” aukera dagoelako eta kasu honetan bezala, atzipen hori ez zelako datu lagatzetzat joko.

DBLOren 12.1 artikulutik horixe bera ondorioztatzen da, hau da, hirugarrenek egiten dituzten datu atzipenak ez direla datu lagatzetzat jotzen “...atzipena beharrezkoa bada tratamendu kontrolatzaileari zerbitzu bat emateko”. Baina ikusten denez, aztertu dugun kasuan pertsona juridiko-pribatuak ematen duen zerbitzua ez dio atzitzen den tratamendu kontrolatzaileari (Aldundiari) ematen, baizik eta tratamenduaren lagapen hartzaileari (beste administrazioa) edo, beste era batera esanda, tratamendu arduradunak atzitzen duen fitxategiaren erantzukizuna ez da tratamendu arduradunak zerbitzua ematen dion entitatearena.

Beraz, DBLOk ez duenez jasotzen datuak zuzenean lagapen-hartzaile legitimoaren tratamendu kontrolatzaileari laga ahal zaizkionik, esan behar da operazio hori ezinezkoa dela.

DBLOren erregelamendu bidezko garapenak ere berretsi egiten du ondorio hori, ez duelako aukera hori aurreikusten, nahiz eta zioen adierazpenean honako asmoak jaso: “segurtasun juridikoa bermatzea”, “...legea indarrean egon den urteotan araudi bidez gehiago garatu beharrekoak direla erakutsi duten aginduak garatzea” eta “...erregelamendu bidez araututakoak koherentzia izatea”.

Eta hori, ondo pentsatuz gero, guztiz zentzuzkoa da.

Datu lagatzea edo komunikazioa da oinarritzko eskubideari kalterik handiena egin diezaiokeen portaera (batez ere hau bezalako egoera batean, interesdunaren adostasunik behar ez denean), eta araudiak, gure ustez, ahalik eta zuhertasun eta bermerik handienarekin jantzi nahi ditu portaera horren produkzio baldintzak (Konstituzio Epaitegiaren 292/2000 Epaia argi erakusten du hori).

Aurreko guztia kontuan izanda, Bulego honek uste du pertsona juridiko-pribatu batek administrazio baten (foru administrazioa) fitxategi batean dauden zerga arloko datuak atzitzen baditu, administrazio horri zuzenean zerbitzurik ere eman gabe tratamendu arduradun bezala, eta administrazio horrekin inolako harreman juridikorik formalizatu gabe, hori ez datorrela bat goian aipatu dugun asmo babeslearekin.

II

Bigarren galderari dagokionez, kontsulta egileak hartu izan duen konponbidea, hau da, berak dioen bezala (“atzipen eskaerei ezetz esatea”) eta horretarako erabili duen argudioa (“...datu basean dagoen informazioa gehiegizkoa dela eta lagapen-hartzaileak ez duela hainbeste informazioa behar zenbait udal zerga likidatzea lortzeko”) guztiz egokiak dira Bulegoaren ustez.

Eta halaxe da, DBLOren 4.1 artikulua xedatutakoa ikustea besterik ez dago. Hona hemen:

Datu pertsonalak jaso eta tratatu ahal izateko ezinbesteko baldintza da datu horiek egokiak, garrantzitsuak eta neurrikoak izatea, datu bilketaren eremuarekiko eta datu bilketaren helburu zehatz, esplizitu eta legitimoekiko.

Kontsultan planteatzen den egoera eta kontsulta idazkian egiten den deskribapena ikusita, eta aurrekoari buruz planteatu den bezala, datu babesaren ikuspuntutik begiratuta, hemen aipatzen den datuen atzipena zera dela esan behar da: datu pertsonalak lagatzea edo komunikatzea.

Beraz, lehen aipatu dugun 4.1 artikulua xedatzen duenez, datu lagatzea egitean egiten den datu tratamenduak artikulua horretako betekizunak bete beharko ditu.

Kontsulta egin duen administrazioak azaltzen duen bezala, ezinezkoa denez laga behar diren datuak eta administrazio lagapen-hartzaileek esleituta dauzkaten eginkizunak gauzatzeko nahitaezkoak dituzten datuak bereiztea, eta kontuan izanda esleitutako eginkizun horiek egiten dutela legezko datu lagatzea, esan behar da lagapen-hartzailearen eginkizunetarako beharrezkoak ez diren datuak lagatzen badira, datu pertsonalen babesaren arloko legedia urratzen dela, datu horiek ez direlako egokiak eta garrantzitsuak, eta gehiegizkoak direlako.

ONDORIOAK

1.- Administrazio lagapen-hartzaileetako tratamendu arduradunek ezin dituzte atzitu XXXXXko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailaren erantzukizunpeko fitxategietan dauden datu pertsonalak, DBLOak ez duelako horrelakorik onartzen.

2.- Lagapen-hartzaileek ezingo dute atzitu Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailaren erantzukizunpeko fitxategietan dauden datu pertsonal guztiak DBLOak ez duelako horrelakorik onartzen, eta haien legezko eginkizunekin lotuta daudenak baino ezingo dituzte atzitu, beste datu guztiak ez direlako egokiak eta garrantzitsuak, eta gehiegizkoak direlako.

12. HILDAKO PERTSONEN DATUAK TRATATZEA

EUSKO JAURLARITZAK EGINDAKO KONTSULTA HONEN GAINEN IRIZPENA: EA ZEIN ERAGIN DUEN DBLO GARATZEN DUEN ERREGELAMENDUAK HILDAKO PERTSONEI BURUZKO DATUEZ ARI GARENEAN.

CN08-017

AURREKARIAK

LEHENENGOA: 2008ko apirilaren 11n Eusko Jaurlaritzako idazki bat jaso genuen Datuak Babesteko Euskal Bulegoan. Idazki horren bidez, goian aipatzen den gaiari buruzko txostena eskatzen zen.

BIGARRENA: Kontsulta idazkian honakoa adierazten da:

“Zuzendaritza honek Datuak Babesteko Euskal Bulegoak 2007ko abuztuaren 6an egindako txostenean (Erref.: CN07/009) jasotako irizpideen eta argudioen berri izan du oraintsu. Txosten horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Osasun Publikoko Zuzendaritzak egindako kontsultari erantzun zitzaion, eta kontsultako gaia zen ea legezoak ziren Osakidetzak Zuzendaritza horri lehendabizi eta Herrizaingo Saileko Trafiko Zuzendaritzari bigarrenik egiten zizkion datu lagapenak.

Zehatz esateko, kontsulta idazkian bi galera hauek egin ziren: a) ea datu pertsonalak babestearen arloko araudiaren arabera ziren istripua izan eta Osakidetzako ospitaletan atenditutako eta ospitaleratutako pertsonen datuak lagatzea Osakidetzak Osasun Publikoko Zuzendaritzari, helburu epidemiologikoak dituzten azterketa estatistikoetarako; b) ea istripua izan eta atenditu ondoren hildako pertsonen datuak gerora Trafiko Zuzendaritzari ere laga ahal zaizkion.

Txostena aztertu ondoren, esan dezakegu Datuak Babesteko Euskal Bulegoak, alde batetik, dioela, arau orokor moduan ezin zaiela hirugarrenei datu pertsonalik utzi azterketa epidemiologikoak egiteko, baldin eta titularren adostasunik ez badago edo era disoziatuan ez bada egiten; eta, beraz, datu lagatzeak ez du betetzen DBLOren 11.2 f) artikuluan aurreikusitakoa. Bigarren galderari buruz, —hau da, ea Trafikoko Zuzendaritzari eman ahal zaizkion trafiko istripua izateagatik hildako pertsonen datuak—, Bulegoak uste du datu lagatze horrek ez duela arazorik ematen datu pertsonalak babesteari buruzko araudiaren arabera, hildako pertsonen datuak ez zaielako araudi hori ezartzen (DBLOk pertsonen eskubideen esparruan du eragina eta heriotzak, beste batzuen artean, nortasuna desagerrarazten du.

DBLO garatzen duen Erregelamendua onartzen duen abenduaren 21eko Erregelamendua —berehala sartuko da indarrean— zera dio horri buruz 2. artikuluko 4. idatz-zatian: Erregelamendu hau ez zaie aplikatuko hildako pertsonen buruzko datuei. Dena den, hildakoarekiko loturaren bat duten pertsonen, familia-lotura edo antzeko besteren bat dela-eta, pertsona horri buruzko datuak dituzten fitxategi edo tratamenduen kontrolatzailearengana jotzeko aukera izango dute, heriotzaren berri emateko, aurkeztu beharreko agiriak aurkeztuta, eta horretarako aukera dagoen unean, datuak ezerezteko eskatuko dute.

Beraz, egia bada ere hildako pertsonen buruzko datuak DBLOren ezarpen eremutik daudela oro har, ikusten ba badagoela jarduera esparru bat hildakoaren datuak babesten dituen, eta jarduera esparru hori gauzatzen du hildakoarekin familia-loturaren bat edo antzeko beste loturaren bat duten pertsonen, bidezkoa denean, hildakoari buruzko datuak ezerezteko duten eskumenak.

Horiek horrela, Zuzendaritza honek erabaki du egokiena dela, kontsulta honen bitartez jakitea ea Bulegoak zer uste duen Erregelamenduen aurreikuspenen gainean, hau da, ea aurreikuspen horiek eraginik edo zehaztapenik dakarten iaz egindako txostenaren gainean.”

HIRUGARRENA: Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17,1 artikuluko n) letrak honako eginkizuna esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

“Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkioten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderei erantzutea.”

Beraz, goiko arau hori kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egin diguten galderari erantzuteko txostena egitea.

KONTUAN HARTZEKOAK

I

Kontsultaren edukia ikusita, eta galderari erantzun ahal izateko, lehendabizi gogora ekarri behar dugu Bulegoak 13/2006 Kontsultaren eta 1/2007 Kontsultaren gainean eman zituen irizpenetan adierazitakoa. Gure ustez, hori da orain arte Bulegoak esandako guztiaren gaineko perspektiba osoa izateko modurik egokiena eta kontsulta-idazkian aipatzen den irizpenean adierazitakoaren helmena balioztatzeko, bereziki ondoko paragrafoan adierazitakoa:

“Beraz, datua hildako pertsona bati buruzkoa bada, eta ez badauka beste pertsona identifikatu edo identifikagarri bati buruzko informaziorik eta heriotzari buruzko datua baino ez bada, hau da, ez bada beste ezeri buruzko datua, orduan datu hori lagatzeak berez ez du arazorik eman behar datu babesaren ikuspuntutik.”

Beraz, gogorarazi behar dugu aipatu ditugun irizpenetako lehendabizikoak honakoa zioela:

“Kontuan hartzen badugu DBLOk nola definitzen duen zer den datu pertsonala (“pertsona fisiko identifikatu edo identifikagarri bati buruzko edozein informazio”), Bulego honek uste du, beti ere goian adierazitako zuhurtziekin, hildako pertsonen datuak datu pertsonalak direla, eta horretaz gain, begiratzen badugu zein esparrutatik datorkigun galdera, pertsona bat hil dela dioten datua ere datu pertsonal bat dela esan behar dugu. Hala ere, datu horren titularra ez da hildako pertsona bera, hirugarren bat edo batzuk edo senitartekoa(k) baizik, beti ere gure erreferentzia esparruari begiratuta; izan ere hildako pertsonaren heriotzari buruzko datua garrantzitsua izan baitaiteke haien zatia, eskubide eta betebeharrak berriak dakartzkielako (oinordetza kontuak, Gizarte Segurantzarekikoak edo zerga arlokoak, esate baterako) edo haien esparru pertsonalean eragin handia izan dezakeelako (hildakoaren egoera soziala, osasun datuak, oihartzun mediatikoa eta abar)”.

Era berean, apur bat aurrerago beste hau zioen:

“Aztertzen ari garen kasuaren berezitasunak alde batera utzita, esan daiteke honako premisa honetatik abiatu beharra dagoela beti: hildako pertsonen datu pertsonalei eta hildakoaren heriotzari buruzko datuari berari ere datu pertsonalak babesteari buruzko araudia ezarri behar zaiela, nahiz eta hildakoa ezin den izan araudia ezartzetik sor daitezkeen eskubideen titularra. Bestalde, ez dugu uste ondorio hori garatzeko premiarik dagoenik, kontsulta-egileak ezin hobeto azaltzen baitu hura arrazoitzen duten argudioak.

Irizpen horretan adierazitako baldintzak eta zuhurtziak kontuan hartuta, hona hemen irizpeneko ondorio garrantzitsuenak:

“1.- Hildako pertsonen bati buruzko datu pertsonalak edo pertsona baten heriotzari buruzko datua ere datu pertsonaltzat jo ahal izango dira datu pertsonalen babesari buruzko araudiaren ondorioetarako.

2.- Hildako pertsonen buruzko datu pertsonalak lagatzeari buruzko erregimena DBLOren aurreikusitako erregimen orokorraren menpe dago”.

II

Bigarren irizpenari buruz esan behar da aurrekoaren jarraipena dela. Bigarren honetako ondorioak, hau da, 1/2007 Kontsultako irizpenaren ondorioak eta kontsulta-egilearenak bat zetozen arren, kontsulta-egileak jakin nahi zuen ea zuzen jotzen zuen ala ez (ez zizkiolako hilotzen sanitatari buruzko fitxategiko datuak lagatzen datu eske zebilen entitateari), eta, horretaz gain, Bulegoari eskatzen zion ondorio horiek berraztertzeke, kontsulta-egileak uste baitzuen datu eske ari zitzaien entitateak eskatzen zizkion datuak, hau da, hildako pertsonen buruzko datuak, ez zeudela DBLOren babes esparruan. Beraz, kontsulta-egilearen ustez, datuak lagatzea bidezkoa zen eta ondorio horren aldeko argudioak aurkeztu zituen.

Irizpen horrek azpimarratu zuen lehenengo gauza zen oso zaila zela hildako pertsonen datuen gaian kasu konkretuak alde batera utzi eta denek onartu eta aplikatzeko moduko irtenbide orokor bat aurkitzea. Hona hemen irizpenak zioena:

“Txostenaren hasieratik azaltzen zen irizpide hori bera azpimarratu behar dugu berriro ere (Ikusi Kontuan hartzekoen atalaren bukaera esandakoa: “(...) Bulegoak emandako erantzunen helburua kontsulta konkretuei erantzutea da eta ez da galderen inguruan izaera orokorreko adierazpenak egitea”) eta irizpide hori bera aipatzen da gehiagotan txostenean zehar (Ikusi Kontuan hartzekoen II. atalean aipatzen direnak: “gorago aipatutako zuzentzeekin” eta “kasu konkretuari dagozkion berezitasunak”). Gure ustez, irizpide hori kontuan hartuta ulertu behar ziren (eta behar dira) txosteneko ondorioak, batez ere 1. ondorioa eta 2. ondorioak, eta horiek dira orain Federazioak aipatzen dituenak.

Zentzu horretan, ezin da aipatu gabe utzi 1. ondorioan aipatzen den “datu pertsonaltzat jo daitezke” esapidea nola ulertu behar den; izan ere, Federazioaren idazkian “datu pertsonaltzat joko dira” esapidea agertzen baita, eta ez dira gauza bera. Bi aditz horiek ezin dira elkar trukatu eta agian Bulegoak eta Federazioak gaia ulertzeko duten bi modu hain desberdinen isla dira.

Beraz, saiaturako gara txosteneko ondorio horiek Bulegoak nahiko lukeen bezala azaltzen; izan ere, Bulegoaren asmoa zen adieraztea datu babesaren arloko kontrol organoek hau bezalako kasuetan emandako irizpenak gure kasu konkretuari aplikatuz gero, litekeena izango zela hildako pertsonen buruzko datu pertsonalak eta heriotzari buruzko datua bera ere DBLOren ezarpen esparruan egotea (eta kasu honetan egon daude)”.

Hori esan ostean, eta kontuan izanda kontsulta-egileak uste zuela aurreko irizpeneko ondorioak kontrajarrita zeudela Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendariak egin zituen adierazpen batzuekin, Bulegoak ondoko argudio hauek eman zituen irizpenean ondorioak eta adierazpenak ez zeudela kontraesanean azaltzeko:

“Ez hori bakarrik, Bulegoak ez dauka eragozpenik DBEBren zuzendariak esandakoak bere horretan berresteko, baina honako adierazpideetan jartzen baldin badugu arreta: “eta ez beste inori buruzko” eta “bizirik dauden pertsonak babestea”. Izan ere, gure iritziz, adierazpen horietatik ondoriozta daitekeen gauza bakarra da DBLOk ez dituela hildako pertsonak babesten, hau da, beste era batera esanda, hildako pertsonen buruzko datu pertsonalekin ari bagara eta datu horien tratamenduak hildako pertsona horiei baino ez badie eragiten eta kontuan hartzen badugu hildakoak ez direla beraien datu pertsonalen titularrak, DBLOk ez ditu babesten.

Beste kontu bat da hildako pertsona baten datu pertsonalek eta datu horien tratamenduak (edo pertsonaren heriotzari buruko datuak berak ere, esango genuke guk) hirugarren batengan eragina badute eta hirugarren hori ez badago hilik, eta, beraz, oinarritzko eskubide baten titularra bada. 13/2006 Kontsultan horrelako kasu bat planteatzen zen.

Gure ustez horixe zen kontsultan planteatzen zena, eta ez dugu eragozpenik ikusten horrelakoetan DBLO ezartzeko, batez ere, eta txostenean horrela esaten zen, datu hori

tratatzeagatik “bizirik dauden pertsonen eskubideak deuseztatzen badira edo eskubide berriak sortzen badira”.

Beraz, Bulego honek irizten dionez, ez dago kontraesanik DBEBren zuzendariaren adierazpenen eta txostenaren edukiaren artean”.

Azalpen horren ondoren, Bulegoak ahaleginak egin zituen bere iritzia sendotzeko eta bere ustez garrantzi handikoak ziren hiru elementu ekarri zituen:

Alde batetik, Konstituzio Auzitegiaren doktrina. Izan ere, honakoa adierazi baitzuen abenduaren 2ko 231/1988 Epaian eta azaroan 25eko 190/1996 Epaian:

“... esan behar da norberaren nahiz senitartekoen bizitza pribaturako eskubideak, printzipioz, norberaren bizitza eta bizitza pertsonala ukitzeaz gain, norberarekin lotura berezia eta estua (senide-lotura adibidez) duten beste pertsona batzuen bizitzako arlo jakin batzuk ere harrapatzen dituela, eta pertsonen arteko harremanaren edo lotura nolakoa izan, halakoa da arlo horiek duten eragina Konstituzioaren 18. artikuluko eskubideek babesten duten norbanakoen nortasunaren eremuan.

Ezin da ukatu gure gizartearen eredu kulturalari begiratzen badiogu, gurasoei, senar-emazteei edo seme-alabei gertatu ahal zaizkien gauzek izugarritzko eragina izan ohi dutela norbanakoarengan, eta gertakari horiek behar ez bezala argitaratzea edo zabaltzea kaltegarria izan daitekeela norbanakoaren nortasunaren eremuan (190/1996 KAEren 2. oinarri juridikoa).

Bulegoa konturatzen da epai horrek azertu zituen kasuak eta oraingoak ez direla berdinak. Hala ere, kasuak berdinak ez izan arren, Bulegoak uste du epai horretako metodologia proposamen bera erabili behar dela (kasu konkretu bakoitza azertu behar dela), 231/1988ko aipamenak Konstituzioaren 18. artikuluari egiten diolako erreferentzia, baina modu orokorrean, artikuluko horren atal zehatzik aipatu gabe; eta, beraz, horren ondorioz, ez du uste arazorik dagoenik han jasotako doktrina “zuzenean” aplikatzeko datu pertsonalak babesteko oinarritzko eskubideari.

Bigarrenik, eta aurreko paragrafoaren bukaerari helduz, esan behar da txostenean aipatzen diren hainbat lege sektorial, adibidez, osasun arlokoak edo zerga arlokoak, hildako pertsonen buruzko datuez arduratuta badaude, horrek argi eta garbi esan nahi duela datu babeserako oinarritzko eskubidea ez dela desagertzen pertsona desagertzen denean, kontrara baizik, hau da, eskubideak bere eraginkortasun guztia erakusten du zenbait ondoriotarako eta bizirik dirautenekiko”.

Hirugarrenik, egun garrantzi handiko zenbait arau proiektu daude abian eta horien artean DBLO garatzen duen Errege Dekretua dago. Errege Dekretuak berariaz aipatzen du “hildako pertsonarekin senide-loturaren bat edo izatezko loturaren bat duten pertsonen” jarduteko zein aukera dituzten, eta horrek aurreko paragrafoko ondorioa berresten du.

Beraz, hori guzti hori kontuan hartuta, ez zen ikusi Bulegoari iritziz aldarazteko moduko arrazoirik eta 13/2006 Kontsultari erantzuteko irizpenean jasotako ondorioak aldarazteko modukorik.

III

Gure ustez, aurreko guzti hori nahitaez hartu behar da kontuan, irizpeneko ondorioaren benetako helmenenaz behar bezala jabetu nahi bada. Hona hemen:

“Norbaiten heriotzari buruzko datua lagatzearen inguruan sortutako galdera Datuak babesteko Euskal Bulegoaren eskumenetik kanpo dago, txosten honen IV. oinarriaren arabera”.

Beraz, komeni zaigu une batez begirada paratzea oinarri horretan. Hona hemen zioena:

“Hori horrela izanez gero, eta datuaren izaera kontuan hartuta, ulertu beharko da datua hildako pertsona bati buruzkoa dela, eta, beraz, AEPDren doktrina aintzat hartzen bada, datuak babesteko araudia ez zen ezarri beharko, DBLOk pertsonen eskubideen esparrura mugatzen duelako bere eragin esparrua, eta heriotza delako nortasuna desagerrarazten den arrazoietako bat.

“Beraz, datua hildako pertsona bati buruzkoa bada, eta ez badauka beste pertsona identifikatu edo identifikagarri bati buruzko informaziorik eta heriotzari buruzko datua baino ez bada, hau da, ez bada beste ezeri buruzko datua, orduan datu hori lagatzeak berez ez du arazorik eman behar datu babesaren ikuspuntutik.”

Oinarri horretan esandakoa bat zetorren aipatu ditugun aurreko bi irizpen horietan esandakoarekin, eta, beraz, hainbat zuhurtzia finkatzen zituen. Zuhurtziak nahikotxo dira eta letra lodiz idatzi dugun horietatik dira:

Azken finean, arrazonamenduaren oinarrian (hori lortu nahi zen behintzat) eta Bulegoak hildakoei buruzko datu pertsonalei buruz zuen iritzia oinarrian dago datu pertsonalak babesteari buruzko araudiaren ezarpenaren esparru objektiboa eta subjektiboa behar bezala bereizi beharra.

Itxuraz banaketa egitea erraza bada ere, Bulegoak uste du beti ez dela behar bezala egin eta horregatik gertatu izan direla egoera nahasgarri asko.

Beraz, argi dago hildako pertsonak ez direla sartzen legearen ezarpen eremu subjektiboan, hildakoak ez direlako oinarrizko eskubide honen titularrak.

Bestalde, Datuak Babesteko Lege Organikoa garatzen duen Erregelamendua onartzen duen abenduaren 21eko Errege Dekretuaren 2.1 artikulua argi eta garbi xedatzen duenez, legearen ezarpen eremu objektiboa honakoa da: “...euskarri fisikoan jasotako datu pertsonalei ezarriko zaie, baldin eta euskarriak datu horiek tratatzea ahalbideratzen badu, bai eta datu horiekin gero egiten diren erabilerei ere”.

Eremu bi horiek ondo bereizita badaude ere, sarritan gertatu izan dena da, Bulegoaren ustez behintzat, bi eremuak behar ez bezala nahastu direla, behin baino gehiagotan ondorioztatu izan delako orain hilda dagoen pertsona bati buruzkoak izan ziren datu pertsonalak, pertsona hiltzean, modu automatikoak galtzen dutela datu pertsonalen izatea, pertsona bat hiltzeak berez eta ezinbestean ekarriko balu bezala datu horiek datu pertsonalak babesteari buruzko araudiaren babesetik kanpo uztea.

Inoiz gertatu ahal da horrelakorik (hain zuzen ere, datua hildako pertsona bati buruzkoa bada, eta ez badauka beste pertsona identifikatu edo identifikagarri bati buruzko informaziorik eta heriotzari buruzko datua baino ez bada), baina ez beti.

Bulegoaren iritziz, gerta daiteke hilda dagoen pertsona baten (hildako pertsona batenak izan ziren) datu pertsonalak edo pertsona horren heriotzari buruzko datua bera beste pertsona bati buruzko datu pertsonala(k) ere izatea, bate zere, kontuan hartzen badugu pertsonaren heriotzaren ondorioz eskubide eta betebeharrak berriak sor daitezkeela batzuetan (oinordetza kasuak, Gizarte Segurantzako prestazioak, zerga arloko prestazioak eta abar) edo hildakoaren esparru pertsonalean garrantzi handiko ondorio asko erator daitezkeela (hildakoaren egoera soziala, osasun arloko datuak, eragin mediatikoa eta abar).

Hori horrela bada, ezin dira modu automatikoan batu (heriotza eta datu babesa galtzea), gerta daitekeelako datuak “(...) pertsona bati buruzko informazioa” izatea eta pertsona hori ez izatea hildakoa, beste bat baizik.

Bukatzeko, eta egin diguten galdera zehatzari erantzunez, Bulegoaren iritziz, abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuak ez du aldatzen Bulegoak galderari erantzunez bi irizpen horietan eman zuen iritzia.

13. UREZTATZAILEEN ELKARTE BATI UDAL ERROLDAKO DATUAK LAGATZEA

XXXXXXKO UDALAK EGINDAKO KONTSULTA HONEN GAINEKO IRIZPENA: EA UDALAK DATURIK LAGA AHAL DION XXXXXXKO UREZTATZAILEEN ELKARTEARI

CN08-018

AURREKARIAK

LEHENENGOA. Datuak Babesteko Euskal Bulegoak XXXXXXko Udalaren idazki bat jaso zuen. Idazki horren bidez, goiburuan adierazitako gaiari buruzko txostena egiteko eskatzen zuen.

BIGARRENA. Eskaera-idazkiarekin batera XXXXXXko Ureztatzaileen Elkarteak XXXXXXko Udalari egin zion datu-eskaera aurkezten dizuegu. Hona hemen elkartearen idazkiak dioena:

- “Abenduaren 30eko 50/1998 Legearen 100. artikuluko b) letraren arabera, ‘XXXXXXko herrietako eta XXXXXX ibaiaren ezker aldeko beste zenbait herritako ureztatzeko hobetzeko eta berriztatzeko proiektua’ interes orokorrekoa da, herri onurakotzat eta premiaz okupatu beharrezkoa da jo zen”.

- Proiektu horrek udalerri horretako zenbait lursail eragiten die.

- Ureztatzaileen Elkarte honek udalerri horretako zenbait lursail desjabetu behar ditu eta lursailen zerrenda bidaltzen dizuegu. XXXXXXko Katastroak ureztatzeko ukituko dituen lursailen titularren izen-abizenak eman dizkigu, baina desjabetzea aurrera eramateko, pertsona horien helbideak behar ditugu. Hori dela eta:

- XXXXXXko Udalari eskatzen diot lehenbailehen bidaltzeko ureztatzeko proiektu honek ukitutako pertsonen helbideak, egin beharreko jakinarazpenak egin ditzagun. Helbideak helburu horretarako baino ez ditugu erabiliko.

HIRUGARRENA. Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeko buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17.1 artikuluko n) letrak honako eginkizuna esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

“Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkieten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkieten galderei erantzutea.”

Beraz, goiko arau hori kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egin diguten galderari erantzuteko txostena egitea.

KONTUAN HARTZEKOAK

I

Galderak berak adierazten duen bezala, XXXXXXko Udala kezkatzen duen gai honi erantzun ahal izateko, ezinbestekoa da udal errolda arautzen duen lege erregimena aintzat hartzea, Udalari eskatzen dizkieten datuak udal erroldan daudelako.

Udal erroldaren lege erregimena honako arau hauetan dago jasota nagusiki: Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen legearen 15., 16. eta 17. artikuluetan —TAOL aldatzen duen urtarilaren 10eko 4/1996 Legearen idazketaren arabera— eta Atzerriarrei buruzko azaroaren 20ko 14/2003 Legea.

Irizpen honen ondorioetarako, aipatzekoa da 16. artikulua, honakoa xedatzen baitu:

“1. Udalerriko errolda udalerriko auzotarrak jasota agertzen dituen administrazio-erregistroa da. Erroldako zehaztasunak udalerrian bizilekua izan eta bertan ohiko egoitza izatearen frogara dira.

Zehaztasun horien gainean emandako ziurtagiriak agiri publiko eta fede-emailleak izango dira administrazio-ondorio guztietarako.

Udalerriko erroldan inskribatzeak lege honetako 15. artikuluan xedatutakoaren arabera baino ez du izango eraginik, eta inskripzioa eragin duen gertaerak dirauen artekoa izango da; nolana ere, aldiro berritu beharko da, bi urtetik behin, bizileku iraunkorra izateko baimenik ez duten Europako Erkidegokoak ez diren atzeritarren inskripzioaren kasuan.

Aurreko lerroaldean aipatutako epea igarotzea, baldin eta interesatuak inskripzioa berritu ez badu, aldiro berritu behar diren inskripzioen iraungipena erabakitzeke arrazoiz izango da. Kasu horretan, interesatuari alde aurretik entzun beharrik izan gabe aldarrikatuko da inskripzioaren iraungipena.

2. Udalerriko erroldako inskripzioan hauek dira nahitaez jaso beharreko zehaztasun bakarrak:

a) Izen-abizenak

b) Sexua.

c) Ohiko egoitza.

d) Naziotasuna.

e) Jaiotekua eta jaioteguna

f) Nortasun-agiri nazionalaren zenbakia; edo, atzeritarren kasuan: Espainiako agintariak emandakoa izan eta indarrean dagoen bizileku-txartelaren zenbakia, edo halakorik eduki ezean, jatorrizko herrialdeko agintariak eman eta indarrean dagoen nortasuna egiaztatzeke agiriaren edo pasaportearen zenbakia, bai Europar Batasuneko kide diren estatueto herriarren kasuan, zein Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioan parte diren beste estatueto herriarren kasuan, nahiz nazioarteko itunen baten indarrez aipatutako estatueto herriarrentzat aurreikusitako araubide juridikoa zabaltzen zaien estatueto herriarren kasuan.

Espainiako agintariak emandakoa izan eta indarrean dagoen agirian datorren atzeritar-identifikazioaren zenbakia, edo halako agirien titular ez direlako halakorik eduki ezean, jatorrizko herrialdeko agintariak eman eta indarrean dagoen pasaportearen zenbakia, paragrafo honetako aurreko puntuan jaso ez diren estatueto herriarren kasuan.

g) Bakoitzak daukan eskolako ziurtagiria edo titulua, edo titulu akademikoa

h) Hautesle-errolda egiteko beharrezkoak diren beste zehaztasun guztiak, Konstituzioan onartutako oinarritzko eskubideen errespetua bermatuta beti ere.

3. Udalerriko erroldako zehaztasunak doakionaren alde aurreko baimenik gabe emango zaizkie zehaztasunok eska ditzaten beste administrazio publikoei, bakoitzari bere eskumenak betetzeko beharrezkoak dituenen bakarrik, eta bizilekuari zein egoitzari dagokienez zehaztasunok esanguratsuak diren gaitetarako soil-soilik. Balio dezakete, halaber, estatistikako isilekotasunaren menpeko estatistika ofizialak egiteko, Estatistikako Funtzio Publikoaren maiatzaren 9ko 12/1989 Legean eta gai horren gainean eskumenak dituzten autonomia erkidegoetako estatistika legeetan aurreikusitako eran.

II

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Legearen 11.1 artikulua honakoa xedatzen du:

“Tratatu beharreko datu pertsonalak hirugarren bati komunikatu ahal izateko, ezinbestekoa izango da lagatzailearen eta lagapen-hartzailearen eginkizun legitimoekin lotuta dauden helburuetarako izatea, hau da, bakar-bakarrik horretarako izatea, eta interesdunaren alde aurreko adostasuna beharko da”.

Artikulu bereko 2. paragrafoak adostasunaren printzipioaren salbuespenak arautzen ditu, eta guri dagokiguna a) letran dago jasota:

Aurreko paragrafoan aipatutako adostasuna ez da beharrezkoa izango honelako kasuetan:

a) Lege batek baimentzen badu lagapena.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 16.3 artikulua da kasu honetan DBLOren 11.2 a) artikulua aipatzen duen "legea", eta horrek ematen du, hala badagokio, interesdunaren adostasunik ez eskatzeko baimena, interesdunaren datu pertsonalak erabiltzeko.

Gainera, jurisprudentziak ere behin eta berriro adierazi du honakoa:

"Udal erroldako datuak konfidentzialak dira, erroldatuta dauden pribatutasunaren eremuko datuak jasotzen dituelako, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 16. artikulua irakurrita ondorioztatzen denez; artikulu horretan xedatzen baitira erroldan nahitaez jaso beharreko datuak. Datu horiek guztiak Datuak babesteko Lege Organikoaren menpe daude, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 16.3 paragrafoan xedatutakoa izan ezik."

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 16. artikulua xedatzen duenarekin bat, "Udal erroldako datuak" esamoldeak Udal erroldaren helburua behar bezala betetzeko erabiltzen diren datuei egiten die aipamena. Hona hemen erroldaren helburuak: pertsona jakin batek ohiko bizilekua eta egoitza zehaztea udalerrian eta bertako bizilaguna dela aitortzea pertsona horri, hartara, udalerriko biztanleak finkatzeko. Udal erroldako datuak hori ez den beste helburu baterako erabiltzeko, Datuak Babesteko Lege Organikoak xedatutako hartu behar da kontuan, eta ukituen adostasunaren adierazpena eskatzen du.

Datu babesaren arloko kontrol erakunde guztiek ia iritzi bera dute 16.3 artikulua xedatzen duenari buruz; izan ere, alde batetik uste dute bakar-bakarrik laga daitezkeela erroldaren helburu bera duten datuak (herritarren ohiko bizilekua eta egoitza zehatzea, bertako auzotasuna aitortzea norbaiti eta, azkenik, helbidea eta egiaztatzea; azken finean identifikazio datuak eta helbideari buruzko datuak dira, eta ez beste era batekoak. Beste alde batetik, uste dute datu horiek bakar-bakarrik laga daitezkeela lagapen-hartzailearen eskumena bat erabili ahal izateko, eta baldin eta egoitza eta bizilekua horretarako datu garrantzitsuak badira. Horrelakoetan, lagapen-hartzaileak egiaztatu egin beharko du horretarako eskumena duela eta erroldako datuak garrantzia handia duela eskumen hori gauzatzeko.

Udal erroldako datuak lagatzearen ondorioetarako, oso interesgarria da Audientzia Nazionalaren 2004ko apirilaren 21eko Epaia. Epai horretan, aztertu zen ea datu pertsonalak babesteari buruzko araudiaren arabera zen Sabadelleko alkateak egin nahi zuena, hau da, Lorca eta Sabadellen arteko senidetzearen berri eman herritarrei. Hona epaiak dioena:

"Epaitzen ari garen kasuan aztertzen da nola Sabadelleko alkateak gutun bat bidali zien Lorcan jaio baina Sabadellen erroldatuta zeuden herritarrei, esanez Aste Santuetan Lorcan egon zela bisitan, hango alkateak gonbidatuta, berak ere hura gonbidatu zuelako Fuensantako Amabirjinaren Erromeriaren 50. urteurrenean.

Korporazio errekurtsio-egilearen iritziz, errolda horrelako gauza baterako erabiltzea, hau da, Lorcan jaio ziren Sabadelleko herritarrekin harremanetan jartzeko, bi herriren arteko senidetzea egiteko jarduera publiko bat besterik ez da, herritar horiei parte hartzeko gonbidapena luzatu zitzaielako prozesu hartan parte har zezaten integrazio politiko eta kohesio sozialerako elementu bezala.

Sala bat dator iritzi horrekin, gizarte-zerbitzuak, gizarte-sustapeneko zerbitzuak eta gizarteratzeko zerbitzuak ematea udal eskumenak direlako (TAOLen 25.2 k artikulua).

Lege horren 69.1 artikulua xedatzen du toki-korporazioek ahalik eta informaziorik zabalena emango dutela beren jarduerari buruz eta herriko kontuetan herritar guztien partaidetza bultzatuko dutela, eta, horretarako, auzo-erkidegoaren beharrak eta nahiak betetzen lagundu dezaketen

jarduera mota guztiak bultzatu eta nahi adina zerbitzu publiko egin ditzaketela (TAOLen 25.1 artikulua) eta alkateari dagokiola udalaren ordezkaritza (TAOLen 2.1 b) artikulua).

Gauzak horrela, ezin da esan Sabadelleko alkateak DBLOren 15/1999 Lege Organikoaren 4.1 artikulua urratu duenik Lorcan jaiotako herritarrei gutunak bidaltzeagatik. Izan ere, datu horiek ez ziren erabili datu bilketako helburuarekin bateragarriak ez diren helbururen baterako, udal eskumen batez baliatzeko baizik, eta kasu honetan udal eskumen hori gizarteratzea da; izan ere, garrantzi handiko gaia da hau, lan baldintza hobeen bila, haien lurraldeetatik derrigorrean etorritako populazio kopuru handia duten tokietan.

Herrien arteko harremanak sendotzera zuzendutako udal jarduera publikoa, hau da, identitatea gal ez dezaten, eta hurrengo belaunaldien deserrotze soziala galaraztea lege-ordenamenduak udalei esleitzen dizkieten eskumenen barruan daude; beraz, hemen inputatutako jarduerak ez dute 15/1999 DBLOren 4.2 artikulua urratzen.

Beraz, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 16.3 artikulua xedatutakoa kontuan hartuta, bidezkoa da erroldako datuak lagatzea beste administrazio publiko batzuei (ez, ordea, entitate pribatuei), baldin eta administrazio publiko horiek nahitaez behar badituzte haien eskumenez baliatzeko, eta baldin eta helbidearen datua garrantzitsua den gai baterako bada.

III

Kontsulta honi behar bezala erantzuteko, nahitaezkoa da, eskatzailea erabiltzen ari den eskumena aztertzea, eta, horretarako, ureztatzaileen elkarten figura aztertu behar da lehendabizi.

Estatu Kontseiluko letratu diren García-Trevijanok eta Alonsok adierazi dute “ureztatzaileen elkarteak zuzenbideko subjektuak direla eta nortasun propioa dutela, elkarte izaera dutela eta ez fundazionala, ez dutela lurralde izaerarik, izaera juridiko publiko dutela eta adierazitako helmena duten administrazio publikotzat ere har daitezkeela, elkarte horiek sortzean lortu nahi den interes publikoa hartzen bada kontuan”.

Uren Legearen testu bateratua onartzen duen uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretuak arautzen ditu ureztatzaileen elkarteak. Hona hemen 81.1 artikulua dioena:

“1. Hartune edo emakida bereko uraren eta jabari publiko hidraulikoaren bestelako ondasunen erabiltzaileek erabiltzaile elkarteak eratu beharko dituzte. Ura batez ere ureztatzeko erabili behar bada, orduan elkarte horiek ureztatzaileen elkarteak izango dira; elkarten helburuak bestelakoak badira, orduan dena delako aprobeitxamendu kolektiboaren izaeraren arabera izango dute elkarteak.

Ureztatzaileen elkarteak izaera publikoa dutela argi geratzen da 82.1 artikulua irakurtzen badugu:

“1. Erabiltzaileen elkarteak zuzenbide publikoko korporazio izaera dute eta arroko erakundeari atxikita egongo dira. Arroko erakundeak izango du estatutuak eta ordenantzak betetzen direla eta aprobeitxamenduaren behar bezalakoa dela zaintzeko ardura. Elkarteak Lege honetan aurreikusitako prozeduren arabera, haien erregelamenduen eta estatutuen arabera eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean aurreikusitakoaren arabera jardun beharko dute.

Beraz, gertatu dena da zuzenbide publikoko korporazio batek udal erroldako datuak eskatu dizkiola XXXXXko Udalari. Kasu honetan Ureztatzaileen elkarteak nahitaezko desjabetze baten onuraduna denez, nahitaez bete behar duen obligazio bat du, eta obligazio hori da eskaeraren arrazoiak. Uren legeak onuradun izaera aitortzen die ureztatzaileen elkartei ondoko ahalmenak esleitzen dizkielako erabiltzaileen erkidegoei 83.2 artikuluan:

“Erabiltzaileen erkidegoak euren aprobeitxamenduetarako eta helburuetarako behar dituzten nahitaezko desjabetzeen eta zortasun-ezarpenen onuradunak izango dira”.

Desjabetzeen onuradunak direnez, Nahitaezko Desjabetzei buruzko Legeak finkatzen ditu elkarteen betebeharrak. Hona hemen, 17.1 artikulua horietaz dioena:

”17. artikulua.

1. 15. artikulua onorioetarako, desjabetzearen onuradunak zerrenda zehatz eta banakatu bat egin beharko du nahitaez, eta bertan deskribatu beharko ditu, alderdi materiala nahiz juridikoa kontuan hartuta, nahitaez desjabetu beharrekoak diren ondasun eta eskubide guztiak”.

Nahitaezko Desjabetzei buruzko Erregelamenduak 5.2.2 artikuluan garatzen du 17.1 artikuluan xedatutakoa:

“Espedientea izapidetzen ari den bitartean onuradunei honako eskumenak eta betebeharrak esleitzen zaizkie:

....

2. “Legearen 17. artikuluan aipatzen den zerrenda egitea”.

Nahitaezko Desjabetzeen Erregelamenduaren 16.2 artikulua xedatzen du zer jaso behar duen onuradunak zerrendan. Zerrendako edukien artean helbidea agertzen da:

“2. Zerrendan ondasun edo eskubide bakoitzaren eta horien jabeen edo jabeen ordezkarien izenen egoera materiala eta juridikoa gain, egoitza eta helbidea jasoko dira, bai eta desjabetzeak ukitutako gainontzekoenak ere, kalte-ordainen bat jasotzeko moduko eskubide edo interesen baten titularrak badira”.

Ondorioz, esan behar dugu datu-eskea Zuzenbide Publikoko Korporazio batek (Ureztatzaileen elkarteak) egin duela bere eskumen batez (ondasunen edo eskubideen zerrenda bat egitea) baliatzeko, eta helbidearen datua garrantzitsua dela eskumen hori gauzatzeko.

IV

Xxxxxxko Udalari egin dioten udal erroldako datu-eskaerari goiko oinarri juridiko horiek aplikatuz gero, esan dezakegu Xxxxxx Ureztatzaileen Elkarteak Nahitaezko Desjabetzeen arloan indarrean dagoen araudiak onuradunei aitortzen dien obligazioa betetzeko baino ezingo duela erabili helbideari buruzko datuak.

ONDORIOA

Xxxxxxko Udalak laga ahal dizkio udal erroldako datuak Xxxxxxko Ureztatzaileen Elkarteari, horrek ez duelako datu pertsonalak babesteari buruzko araudia urratzen, txosten honetan jasotakoren arabera egiten bada.

14. ZERGA-DATUAK ATZITZEKO ESKUBIDEA. HELMENA.

XXXXXXKO FORU ALDUNDIKOAK ATZIPEN ESKUBIDEARI BURUZ EGINDAKO KONTSULTAREN GAINEN IRIZPENEA.

CN08-021

AURREKARIAK

LEHENENGOA: 2008ko maiatzaren 14an XXXXXXko Foru Aldundiko idazki bat jaso genuen Datuak Babesteko Euskal Bulegoan. Idazki horren bidez, goian aipatzen den gaiari buruzko txostena eskatzen zen.

BIGARRENA: Kontsulta idazkian honakoa adierazten da:

“Aurtengo apirilaren 21ean XXXXXXko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuan zergadun batek aurkeztutako idazki bat jaso genuen. Idazki horretan zergadunak dio jakin nahi duela, eskubidea duelako, ea bere datu pertsonalak —kasu honetan Ogasun eta Finantza Departamentuak kudeatzen dituen datu-baseetan dauden zerga arloko datuak— tratatu dituzten, zein helbururekin eta zein datu komunikazio egin den. Era berean, eskatzen du 2006ko eta 2007ko informazioa bidaltzeko, legeak dioen eran, honakoei buruz: a) ea zenbat aldiz atzitu duten berari buruzko zerga informazioa; b) atzipenak egin dituzten pertsona zehatzen identifikazioa; c) atzipenen helburua; d) egin diren edo aurreikusita dauden komunikazioak.

Eskaera hori egiteko, honako araudia hartu du aintzat: Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren (aurrerantzean DBLO) 15. artikulua eta Lege hori garatzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuaren 27., 28. eta 29. artikulua eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 35 b) artikulua.

Eskaera aztertu dugu eta honako oharra egin behar ditugu:

XXXXXXko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak honako agindua argitaratu zuen 2003ko abuztuaren 18ko XXXXXXko Aldizkari Ofizialean: XXXXXXko Foru Aldundiaren Fiskalitaterako eta Finantzatarako Departamentuko fitxategiak, datu pertsonalak dituztenak, arautzeko abuztuaren 6ko 891/2003 Foru Agindua.

Foru Aginduaren bigarren eranskinean daude zerga sistemaren kudeaketarako ez diren fitxategiak. Horien artean “Mugimenduen kontrola” fitxategia dago araututa:

Mugimenduen kontrola.

- a) Helburua eta aurreikusitako erabilerak Fitxategien informazioan egiten diren sarrerak kontrolatzea.
- b) Datuak ematera behartuta dauden pertsonak edo taldeak: Sistemaren bidez sortutako datuak. Datuetan aipatzen diren pertsonak: Aplikazioen erabiltzaileak eta kontsulta gai diren zergadun eta hirugarren pertsonak.
- c) Datuak biltzeko modua: Automatikoki sortua informazio eta identifikazio sarrera bakoitzean.
- d) Fitxategiaren oinarritzko egitura: Erabiltzailearen kodea, zein zerbitzutakoa den, aukeratutako zergadunaren identifikazioa, data, terminala, eskuratutako informazio mota, transakzio bakoitzerako sarrera maila (kontsulta edo aldaketa).
- e) Datuen lagapena: Fitxategi honetako datuei dagokienez, ez da aurreikusten ohiko lagapenik.
- f) Fitxategiaren arduraduna: Idazkaritza Teknikoa.

g) Sarrera, zuzenketa, deuseztatze eta oposizio eskubideak zein zerbitzu edo unitateren aurrean baliarazi: Informatika Atalaren aurrean. Errotaburu pasealekua 2, 20018 Donostia.

h) Segurtasun-neurriei dagokien maila: Ertaina.

Departamentu honek eskaerari buruz uzte duena da, DBLOren 15. artikulua kontuan hartuta, eskatzailea ez dela ari bere datu pertsonalak atzitzeko eskubideaz baliatzen, ez duelako eskatzen Zerga Administrazioak bere eskumenpeko eginkizunetarako eskuratutako zerga arloko datuei buruzko informazioa edo datu horien jatorriari buruzko informazioa, berari buruzko zerga arloko informazioak izandako atzipenei buruzkoa baizik, eta ea gainera galdetzen du ea zergatik egin diren atzipenak, eta zein komunikazio dauden aurreikusita eta zein egin diren; Gure ustez, azken eskaera horrek bakarrik betetzen ditu atzipen eskubide izateko baldintzak.

Uste dugu, salbuespen hori kenduta, eskatzaileak jakin nahi duen beste guztia goian aipatutako fitxategi horren edukia dela, baina fitxategi horrek barne izaera du eta bertan jasotzen diren datuak ez dira, gure ustez, zergadunari buruzko datu pertsonalak.

Argudio hori sakonduz, eta 1720/2007 Errege Dekretuak datu pertsonalen tratamenduari buruz ematen duen definizioa aztertu eta gero (27.1 artikulua eta 5 a t), uste dugu eskatzailearen galdera zehatzen xedea ez dela jakitea ea bere datuak tratatu dituzten, tratamenduaren helburua zein den ala datuon jatorria zein den; izan ere, galdera horiek XXXXXko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauaren 92. artikuluan eta 891/2003 Foru Aginduan baitaude araututa. Gainera, interesdunari argibideak berariaz eman ahal zaizkio, bere datu pertsonalei buruzkoak baitira.

Gure ustez, dugu interesdunaren datuekin egindako edo aurreikusitako komunikazioak datuak babesteko araudiaren arabera dira. Ez da araudiaren arabera, ordea, interesdunaren datuei egindako atzipen jakinei buruko informazioa eta atzipenak egin dituzten pertsonen buruzkoa, ez eta egin diren atzipenei buruzko ikerketa bat egiteko eskaera ere, informazio guzti hori ez dagoelako jasota zergadunen datu pertsonalen fitxategietan.

Ezin da ukatu herritarrek eskubidea dutela administrazioak dauzkan haiei buruzko datuen gaineko zenbait xehetasunen berri izateko, baina uste dugu xehetasun horiei buruzko informazio-eskeak bideratzeko, herritarrek administrazioarekiko dituzten eskubideak arautzen dituen araudira jo behar dela, proportzionaltasunaren irizpidea kontuan hartuta. Beraz, zergadun batek susmatu izan duenean bere datuak bidegabe laga direla, Departamentu honek, ukituek hala eskatu dutenean, honela jokatu izan du: barruko espedientea irekiz eta horren emaitzaren berri Fiskaltzari emanaz edo epaitegien errekerimenduei erantzunez edo Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren jardueri lagunduz.

Aurrekariak ikusita eta gaia konplexua dela kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren txostena eskatzen dugu ondoko alderdiei buruz eta ea datu pertsonalak atzitzeari buruzko eskubidearen barruan dauden ala ez argitzeko:

a) interesdunaren zerga informazioa zenbat aldiz atzitu duten.

b) zerga informazio hori zeintzuk pertsona konkretuk atzitu duten.

c) atzipenen helburua.

Azkenik, adierazi nahi dizugu zergadunari erantzun diogula eta azaldu diogula zeintzuk urrats emango dituen Departamentuak bere eskaera dela eta. Hona hemen: bere datu pertsonalak direla eta, zeintzuk komunikazio egin diren edo zeintzuk dauden aurreikusita, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari txostena eskatzea eta, txostena jasotakoan, interesdunari baieztako ala ezeztako erantzuna ematea.

HIRUGARRENA: Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17,1 artikuluko n) letrak honako eginkizuna esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

“Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkieten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkieten galderei erantzutea.”

Beraz, goiko arau hori kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egin diguten galderari erantzuteko txostena egitea.

KONTUAN HARTZEKOAK

I

Galderei erantzun aurretik, komeni da begi bistan izatea atzipen eskubidearen edukia. Horretarako, gogora ekarriko dugu Konstituzio Auzitegiak eskubide horren helmenari buruz esandakoa.

Eskubidearen helmenaren laburpen ona da azaroaren 30eko 292/2000 Epaian esandakoa; izan ere, epai horren arabera:

“datu pertsonalak babesteko eskubidea izateak norberaren datu pertsonalen gaineko boterea izatea eta datu horien gainean erabakiak hartzeko gaitasuna izatea dakar, eta gaitasun horrek ahalmena ematen dio pertsonari honakoak erabakitzeko: ea datu horietatik zeintzuk eman nahi dizkion hirugarren bati, dela Estatu dela partikular bat, eta ea hirugarren horrek datu horietatik zeintzuk bildu ditzakeen; horrez gain, ahalmena ematen dio jakiteko ea datu pertsonal horiek nork dauzkan eta zertarako, eta bere datu pertsonalak inork edukitzearen edo inork erabiltzearen aurka agertzeko ahalmena ere ematen dio. Norberaren datu pertsonalak kontrolatzeko eta horien gaineko erabakiak hartzeko boterea datu babeserako oinarritzko zuzenbidearen edukiaren zati bat da eta botere hori honako gaitasun hauek gauzatzen dute juridikoki: datu pertsonalak biltzeko, eskuratzeko eta atzitzeko adostasuna adierazteko gaitasunak, geroago datu horiekin egiten diren biltegiatzeen eta tratamenduen gaineko adostasuna adierazteko gaitasunak eta hirugarren batek, dela Estatuak dela partikular batek, datu horiekin egin dezakeen edo ditzakeen erabileraren edo erabileren gaineko adostasuna adierazteko gaitasunak. Eta inork datu pertsonalak jakin ditzan eta datuen tratamendu informatikoa ala tratamendu ez informatikoa egin dezan baimentzeko gaitasunak ezinbestean behar ditu honako osagarriak: batetik, datu pertsonalak non dauden, nork dauzkan eta zertarako erabiltzen dituen uneoro jakiteko gaitasuna eta, bestetik, datuak hirugarrenek edukitzearen eta datu horiek erabiltzearen aurka egiteko gaitasuna.

..Beraz, eduki hori gauzatu ahal izateko, ezinbestekoa da, alde batetik, aitortzea norbere datu pertsonalak nork eta zertarako dauzkan jakiteko eskubidea egon badagoela, eta, bestetik, eskubidea izatea norbere datu pertsonalak beste batek izatearen aurka egin ahal izateko, dagokionari eskatuz aurrerantzean ez ditzala norberari buruzko datu horiek izan, ez eta erabili ere. Hau da, interesdunak eskatu ahal dio fitxategiaren titularrari esateko ea zeintzuk datu pertsonal dituen berari buruz, horretarako, erregistroak eta idazpenak atzitzuz, eta galdetu ahal dio zertarako erabili diren; eta horrek datuak izan ditzaketen lagapen-hartzaileak ere tartean hartzen ditu.

Beraz, eskubidearen subjektuei legez esleitutako eskumenak eta jardun dezaten aitortu zaizkien aukerak nahitaezkoak dira konstituzioak jasotako datuak babesteko oinarritzko eskubidea aitortzeko eta berresteko. Era berean, jarduteko gaitasun edo aukerak guztiz ezinbestekoak dira juridikoki babesgarriak diren zenbait interes guztiz, erabat eta zehatz babestuta egon daitezen, kontuan hartuta interes horiek direla hemen aztertzen ari garen oinarritzko eskubidea izateko arrazoia. Hau da, pertsonen haien datu pertsonalez baliatzeko eta datu horiek kontrolatzeko eskumena ukatuz gero, datu babeserako oinarritzko eskubidea ere ukatzen zaie; ikusi bestela, apirilaren 8ko 11/1981 KAEren 8. arrazoibideak dioena: “eskubideaz baliatzeko baino muga

handiagoak jartzen badira, gehiegizko zailtasunak jarritz gero edo behar duen babesak kenduz gero, eskubidearen funtsezko edukia albo batean uzten da edo ez da aintzat hartzen”.

Konstituzioaren doktrina ikusita, eskubide horren gaineko araubideari begiratu behar diogu. Beraz, DBLOren 15.1 artikulua xedatzen duenarekin hasiko gara:

“Interesdunak eskubidea du eskatzeko tratatzen dituzten berari buruzko datu pertsonalen gaineko informazioa, zein den datu horien jatorria eta datu horiekin zeintzuk komunikazio egin diren eta zeintzuk egitea aurreikusten den. Eta informazio hori doan jasotzeko eskubidea du”.

Abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuak aurreko hori bi artikulutan garatzen du eta honakoa xedatzen du:

27. artikulua honakoa dio lehendabiziko atalean eta bigarren atalean:

“1. Datuetan sartzeko eskubidea ukituak berari buruzko datu pertsonalen gaineko informazioa tratatzen ari diren edo ez jakiteko duen eskubidea da; tratatzen ari badira, zertarako ari diren hori egiten jakiteko eskubidea, datu horiek nondik eskuratu dituzten jakiteko eskubidea, eta horiekin egondako edo egongo diren komunikazioei buruzko informazioa jasotzeko eskubidea.

2. Datuak atzitzeko eskubideari esker, datu zehatzei buruzko informazioa, fitxategi jakin batean jasotako datu batzuei buruzko informazioa, edo berari buruz tratatzen ari diren datu guztiei buruzko informazioa eskuratzeko aukera izango du ukituak, tratamenduaren kontrolatzaileak emanda.

Dena den, konplexutasun berezia duten arazoak direla-eta hala egitea zurututa dagoenean, fitxategiaren kontrolatzaileak aukera izango du ukituari zein fitxategitara sartzeko aukera izan nahi duen galdetzeko, eta horretarako, fitxategi horien guztien zerrenda bidali beharko dio”.

1720/2007 Errege Dekretuaren 29.3 artikulua honakoa xedatzen du:

“Emango den informazioa, dena delako euskarrian ematen dela ere, erraz irakurtzeko eta ulertzeko moduan emango da, eta ez da tresna mekaniko bereziak erabili beharra eskatzen duen gako edo koderik erabiliko.

Informazio horretan, ukituari buruzko oinarritzko datu guztiak jasoko dira, edozein lanketa-modu edo prozesu informatikotik lortutako datuak, eta baita ondorengo informazioa ere: datuen jatorriari buruzko informazioa, nork emandakoak izan diren, eta zehazki zertarako biltegitatu ziren erakusten duen informazioa ere bai”.

Estatuko araudiak dioenarekin bat, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legea garatzen duen urriaren 18ko 308/2005 Dekretuaren 7 artikulua honakoa xedatzen du:

“Emango den informazioa, dena delako euskarrian ematen dela ere, erraz irakurtzeko eta ulertzeko moduan emango da, eta ez da tresna mekaniko bereziak erabili beharra eskatzen duen gako edo koderik erabiliko.

Informazio horretan, ukituari buruzko oinarritzko datu guztiak jasoko dira, edozein lanketa-modu edo prozesu informatikotik lortutako datuak, eta baita ondorengo informazioa ere: datuen jatorriari buruzko informazioa, nork emandakoak izan diren, eta zehazki zertarako biltegitatu ziren erakusten duen informazioa ere bai”.

Horrek ez du esan nahi atzipen eskubideak mugarik ez duenik.

Hain zuzen ere, atzipen eskubidea mugatuen dagoen arloa zergen esparrua da, eta kasu honetan kontsulta ere esparru horretakoa da.

Eta hori berresten dute Konstituzio Auzitegiak emandako zenbait epaik (110/1984 KAE eta 143/1994 KAE, beste batzuen artean) honako xedatzean: “gastu publikoari aurre egiteko

gastuaren bidezko banaketa eta zerga arloko kontrol-jarduerak” “Konstituzioaren 18.1 eta 18.4 artikuluko eskubideak murriztu ditzaketen ondasun eta helburu konstituzionalak” dira.

Konstituzioaren doktrina hori DBLOren 23.2 artikuluan dago islatuta:

“Herri Ogasuneko fitxategien kontrolatzaileek uka dezakete, orobat, aurreko idatz-zatiak aipatu eskubideak egikaritzea, eskubide horiek egikarituta tributu-betebeharrak betetzea ziurtatzeko administrazio-jardunak oztopatzen direnean, eta ukitua ikuskatzailetza-jardunen mende dagoenean beti.”

II

Kasu honetan ezarri beharreko lege erregimena aztertu dugunez, galderetako bakoitzari erantzuten saiatuko gara. Baina, hori egin aurretik, ohartarazpen bat egin beharrean gaude, hau da, idazkian aipatzen bada ere herritarrek duten atzipen eskubidearen oinarrian Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 35. artikulua dagoela, esan behar da bi esparru bereizi behar direla, lege erregimena ere desberdina dutelako.

Lehendabizikoak ez du zerikusirik Bulego honen berezko eskumenekin, herritarrek artxiboetara eta erregistroetara sartzeko eskubideari buruzkoa delako. Eskubide hori zuzenean dago lotuta Konstituzioaren 105 b) artikuluekin eta 30/1992 Legearen 35. artikuluekin. Bigarrenak, ordea, badu Bulegoaren eskumenekin zerikusia, datu pertsonalak atzitzeari buruzkoa delako, eta horregatik, Bulegoak eman dezakeen erantzuna horri buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 15. artikuluan dago xedatuta.

Bereizketa hori argi adierazita dago Datuak Babesteko Lege Organikoa garatzen duen Erregelamendua onartzen duen abenduaren 21eko Errege Dekretuaren 27.3 artikuluan:

“Datuak atzitzeko eskubidea eta lege bereziek, zehazki esanda, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak ukituei aitortzen dien eskubidea bi kontu ezberdin dira”.

Aurreko guztia kontuan hartuta, galderak erantzuten hasiko gara, behar bezala arrazoituz erantzuna. Lehendabiziko galdera da ea eskatzaileari buruzko zerga informazioan egindako atzipen kopuruaren berri eskatzaileari ematea eskatzailearen atzipen eskubidearen barruan dagoen ala ez, eta ea horretarako XXXXXko Foru Aldundiaren Fiskalitaterako eta Finantzatarako Departamentuko fitxategiak, datu pertsonalak dituztenak, arautzeko abuztuaren 6ko 891/2003 Foru Aginduko II. eranskinean jasotako “Mugimenduen kontrola” fitxategia aipatu behar den, kontsultan hala eskatzen baita (738/2007 Foru Aginduak ekarri duen aldaketak ez du eraginik aztertzen ari garen kasuan).

Hori horrela izanik ere, Agindu horretako 15.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, fitxategiaren helburu nagusia honakoa da: “(...) Departamentuak berak bere zereginak betetzeko dituen bitarteko materialak modu egokian kudeatzen laguntzea”. Beraz, badirudi kontsulta-egileak arrazoiak duela esaten duenean fitxategi hori “barne izaerakoa dela”.

Baina aldi berean fitxategiaren helburuen artean honakoa ere aitortuta dago: “Fitxategien informazioan egiten diren sarrerak kontrolatzea”. Eta hori garrantzitsua da aztertzen ari garen kasuan; izan ere, mugimenduen kontrolari buruzko fitxategiak, “zergadunen” datu pertsonalak ere jasotzen ditu. “Departamentuko datu-baseetako informazioa atzitzeko segurtasuna” fitxategiak, ordea, aplikazio informatikoen erabiltzaileei buruzko datu pertsonalak baino ez ditu biltzen.

Beraz, hortik atera daitekeen ondorioa da litekeena dela fitxategi horretan eskatzaileari buruzko datu pertsonalen bat egotea, eta hala bada, datuok “tratamendu” baten ondorio izango dira — DBLOren 3 c) artikulua definizioa kontuan hartuta—; beraz, hori horrela bada, eskatzaileak datu horiei buruzko informazioa eskuratzeko eskubidea du, datuok tratatuak izan direlako, informazio

hori eskatzailearen atzipen eskubidearen funtsezko edukia izanik. Datuak jasotzeko eskubidea DBLOren 15. artikulua xedatutakoaren arabera gauzatu beharko da.

Beraz, horren arabera, Bulegoaren iritziz, eskatzailearen zerga informazioak izandako atzipen kopurua eskatzaileari eman beharreko informazioaren zati bat da, informazio hori "...ukituak berari buruzko datu pertsonalen gaineko informazioa tratatzen ari diren edo ez jakiteko duen eskubidea da", hala xedatzen baitu 1720/2007 Errege Dekretuaren 27.1 artikulua.

Hirugarren galdera dela-eta, hau da, "egindako atzipenen helburua" dela-eta, ondorio bera atera daiteke. Ikusi bestela 1720/2007 Errege Dekretuaren 27.1 artikulua zer dioen aurreko paragrafoan hitzez hitz adierazitakoa eta gero, honakoa esanez segitzen du, "... tratatzen ari badira, zertarako ari diren hori egiten jakiteko eskubidea" dagoela.

2/2004 Legea garatzen duen urriaren 18ko 308/2005 Dekretuaren 7.2 artikulua ezarriz gero ere, ondorioak goiko bi paragrafoetako berberak dira; izan ere, artikulua horrek informatika-lan edo prozesuaren ondoriozko datuak, bai eta datuen jatorria, datuen emaileak eta datuak zelan eta zertarako bildu ziren ere jakin daitezkeela baitio berariaz.

Bestalde, kontuan izan informazio hori emateak ez duela zertan eraginik izan beste pertsona baten datu pertsonaletan. Ondoren aipatuko dugu zergatik.

III

Bigarren galderak dio ea atzipen eskubidearen barruan dagoen eskatzailearen zerga informazioa atzitu duten pertsona jakinen identifikazio datuak. Bulegoa bat dator Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren 167/2005 txostenean edo ekainaren 15eko 558/2007 Ebazpenean jasotakoarekin, finkatutako jurisprudentziazat jo baitaiteke hor jasotakoa.

Txostenak honakoa dio:

"Beraz, Legeak interesdunari aitortzen dio tratatutako informazioa zein den jakiteko eskubidea, ez, ordea, fitxategiaren kontrola duen erakundeko zein pertsonak atzitu duten informazio hori jakiteko eskubidea. Gauza bera esan izan du Datuak Babesteko Espainiako Agentziak orain arte honen antzeko gaiak ebaztea egokitu zion guztietan".

Ebazpenak zera dio:

"Sarbide-kontrolako zerrendak atzitzeari buruz esan behar dugu, gure ustez, Zerga Administrazioako Estatu Agentziak zuzen jokatu duela interesdunak eskatutako atzipen eskubidearen barruan ez sartzean zerrenda hori, gauza bat delako administrazio-espediente batean dauden dokumentuak eta datuak atzitzea —Administrazio Prozedurari buruzko Legeak arautzen du atzipen hori—, eta beste gauza bat delako datu pertsonalen atzipena, datu pertsonalak erabiltzea interesdunaren esku dagoelako. Ez, ordea, dena delako espedientea izapidetu duten pertsonen datuak atzitzea; hori ez dago interesdunaren esku, datu horiek ez dutelako zer ikusirik interesdunari buruzkoak izan eta tratatuak izan diren datuekin.

Hori guzti hori kontuan hartuta, honako ondoriora heldu zen ebazpen-zatiko bigarren puntua:

"Ezestea J.Z.M jaunak Zerga Administrazioako Estatu Agentziari egindako erreklamazioa. Erreklamazio horretan eskatzen zen 2006ko maiatzaren 22a eta urriaren 16a arteko epean bere datu pertsonalak atzitu zituzten pertsonen zerrenda".

ONDORIOAK

1. DBLOren 15. artikuluan aurreikusitako atzipen eskubideak bere baitan hartzen ditu honakoak ere: datu pertsonalak izan duten atzipen kopurua jakiteko eskubidea eta datuekin egiten ari diren tratamenduaren helburua zein den jakiteko eskubidea.

2. DBLOren 15. artikuluan aurreikusitako atzipen eskubideak ez du bere baitan hartzen beste eskubide hau: jakitea ea zeintzuk erabiltzailek atzitu dituzten tratamendu-gai diren datu pertsonalak.
3. DBLOren 15. artikuluan aurreikusitako atzipen eskubideak mugak izan ditzake. Muga horiek DBLOren 23.2 artikuluan daude xedatuta.
4. DBLOren 15. artikuluan aurreikusitako eskubideak ez du zerikusirik azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 35. eta 37. artikuluetan xedatutakoekin eta XXXXXko Foru Aldundiaren berezko araudian horretaz xedatuta egon daitezkeenekin.

15. UDALBATZARRETAN AZTERGAI DIREN GAI EI BURUZKO DOKUMENTAZIOA POSTA ELEKTRONIKOZ BIDALTZEA

XXXXXXKO UDALAK ONDOKO GAIARI BURUZ EGINDAKO KONTSULTAREN GAINEKO IRIZPENA: BERTAKO ZINEGOTZI BATEK EGINDAKO INFORMAZIO ESKAERA BAT.

CN08-026

AURREKARIAK

LEHENGOA: 2008ko irailaren 1ean XXXXXxen idazki bat jaso genuen Datuak Babesteko Euskal Bulegoan. Idazki horren bidez, goian aipatzen den gaiari buruzko txostena eskatzen zen.

BIGARRENA: Kontsulta idazkian honakoa adierazten da:

Ekainaren 7ko udalbatzarreko galde-eskeen puntura heldu ginenean, zinegotzi batek eskatu zuen aurrerantzean posta elektronikoz bidaltzeko bere lantokira, eta lantokia herritik eta udalerritik kanpo dago, hurrengo udalbatzarretako gai-zerrendak eta bertan aztertu beharreko gai guztien gaineko dokumentazioa.

Zinegotzia Udalerrian erroldatuta dago, baina ez da bertan bizi eta helbide bat eman zigun udalbatzarretan aztertu beharreko gaien gaineko dokumentazio guzti-guztia hara bidaltzeko. Eskatutako dokumentazioa berak emandako helbidean jaso zuen. Baina, geroago eskatu zuen dokumentazioa posta elektronikoz bidaltzeko, eta ez daukat oso garbi bide hori egokiena ote den egon daitekeen informazio pertsonala babesteko.

Horrez gain, korporazio kide horrek eskatzen du berari azaltzeko korporazioko gainontzeko kideek bileretara joateagatik kobratzen dituzten dietak, bai egiten dituzten kilometroengatik bai bertaratzeagatik kobratzen dituztenak.

Horretaz gain, zinegotzi horrek oraindik ez du izenpetu datu pertsonalen fitxategien tratamenduaren gaineko konpromisoa, hau da, korporazioko kide den bitartean eskura ditzakeen datuak inori ez jakinarazteko konpromisoa.

Aurreko guztiagatik eskatzen dizuet txosten/irizpen baten bidez azaltzeko zeintzuk urrats eman edo zein erantzun eman”.

HIRUGARRENA: Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17,1 artikuluko n) letrak honako eginkizuna esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

“Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkioten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderei erantzutea.”

Beraz, goiko arau hori kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egin diguten galderari erantzuteko txostena egitea.

KONTUAN HARTZEKOAK

I

Gutxienez hiru gai azaltzen dira idazkian, eta hirurak dira ezberdinak. Bestalde, hirurei buruzko jarraibideak eskatzen dizkio Bulegoari.

Gaiak asko eta desberdinak dira, beraz, Bulegoak eman ditzakeen erantzunen helmena ere bai. Hala ere, gaien muinera joz gero, guztiak lotzen dituen puntu bat dago eta zera da, Konstituzioan

aurreikusitako ondoko oinarrizko bi eskubide hauen arteko harremana: parte hartze politikorako eskubidea (23. artikulua) eta datu pertsonalak babesteari buruzko eskubidea (18.4 artikulua).

Bulego honek behin baino gehiagotan eman du harreman horren inguruan duen iritzia. Beraz, irizpen hau hasteko, orain arteko adierazitakoaren laburpena egin nahi da eta horrela galdera guzti horiei erantzuteko esparru orokor bat ezarri.

Bulego honek esana du bi eskubide horien arteko harremana ezin dela gatazka harremana balitz bezala ebatzi. Beraz, ez dugu joko hainbeste eskubide bat bestea baino “garrantzitsuagotzat” jotzen duen bidetik (Valentziako Auzitegi Nagusiaren 2005eko ekainaren 1eko Epaiak erabili zuen izendapena erabilita), baizik eta bide interpretatiboago batetik, hau da, aurreko hori gainditzea eta eskubide biak bateratzea edo orekatzea ahalbideratzen duen bidetik, eta eskubide bien titularrei horietaz baliatzeko duten aukerari kalterik egin gabe.

Beraz, erantzuten saiatzeko egin daitekeen lehendabiziko gauza da gogora ekartzea zinegotzien informaziorako eskubidearen edukiaren gainean Auzitegi Gorenak eman duen doktrinaren osagai garrantzitsuenak izan daitezkeenak.

Gai honetaz arduratu diren epai mordo bat dago (1998ko ekainaren 27ko, 1998ko maiatzaren 8ko, 1999ko azaroaren 9ko, 2002ko urriaren 11ko, 1989ko uztailaren 19ko, 2000ko azaroaren 17ko, 1999ko maiatzaren 5eko, 1997ko apirilaren 21eko edo 2000ko martxoaren 14ko Auzitegi Gorenaren Epaiak). Beraz, epai horietatik ondo finkatutako jurisprudentzia ondoriozta daiteke..

Zinegotzien informaziorako eskubidea dela eta, bat etor gaitezke esatean honako hauek direla doktrina horren funtsezko oinarriak:

1.- Informaziorako eskubidea funtsezkoa da zinegotziak duen ordezkaritza eginkizuna behar bezala gauzatzeko. Beraz, informazio eskubidea Konstituzioaren 23. artikuluan xedatzen den politikan parte hartzeko oinarrizko eskubidearen funtsezko edukia da, batez ere artikulua horren bigarren puntuarena; izan ere, karguetara heltzeko eskubidea era arbitrarioan kaltetu edo murriztuko balitz, beharrezko informazioa ukatuz, Konstituzioak ere eraginkortasuna galduko luke.

2.- Hainbat legetan jasota dagoen eskubidea da. Eskubide horren araubide juridikoa honako lege hauetan dago jasota: Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen (TAOL) 77. artikuluan, Toki-korporazioen Antolaketari, Funtzionamenduari eta Lege-erregimenari buruzko Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 14., 15. eta 16. artikuluetan eta udal bakoitzeko erregelamendu organikoan.

3.- Lege-erregimen horren arabera (eta batez ere TAOLen 77.1 artikulua eta AJAren 14.1 artikulua xedatutakoaren arabera), zinegotzien informaziorako eskubidea “haien eginkizuna burutu ahal izatearekin” guztiz lotuta agertzen da, batez ere, TAOLen 22. 2 a) artikulua xedatutakoa kontuan hartuz gero, hau da “gobernu organoen kontrolatzeko eta fiskalizatzeko” eginkizuna. Izan ere, eginkizun horrek “informaziorako eskubidea babesteaz gain, agintzen du datuak jakin egin behar direla, udalbatzaren osoko bilkuran ezer proposatu, eztabaidatu eta onartu aurretik” (1988ko abenduaren 7ko AGE), informazioa eskatzearen funtsa zinegotziek gobernuaren egintza kontrolatzeko duten berezko eginkizunean dagoelako (1988ko ekainaren 27ko AGE).

Beraz, zinegotzi diren aldetik, eskubidea dute udal kudeaketa behar bezala ezagutzeko beharrezkoak diren aurrekariak, datuak eta txostenak eskuratzeko, baldin eta haien eginkizunen artean dauden gaiei buruzkoak badira eta gobernuaren jardura fiskalizatzeko eta kontrolatzeko eginkizunerako badira, eta aurrekari, datu eta dokumentu horiek eskuratzeko ezinbestekoa bada haiei dagokien fiskalizazioa gauzatzeko. Gainera, “Korporazioari dagokio zinegotziak duen helburua informaziorako eskubideaz baliatzea izan beharrean, beste bat dela frogatzea (1995eko abenduaren 5eko AGE, 1997ko maiatzaren 28ko eta 1998ko maiatzaren 7ko AGren epaiak).

4.- Baina zinegotzien informaziorako eskubideak ere mugak dauzka. Muga horiek ere lehen aipatu ditugun TAOL eta AJAko artikuluetan aurreikusitako lege-erregimenean jasota daude.

Muga horietako bat da gorago esan dugunaren atzealdea edo. Hau da, informazioarako eskubidea zinegotzien eginkizunak gauzatu ahal izateko onartzen da eta ez “informazioa bildu eta hedatzeko edo jakin minagatik edo esamesaka aritzeko edo bestelako gezurrezko helbururen baterako”. (Kanaria Handietako Auzitegi Nagusiaren 2003ko apirilaren 24ko Epaia).

Modu berean, “korporazioetako kideei onartzen zaien eskubide hau arrazoitua izan beharko da, eta arrazoitua izan beharko da hori ukatzen duen ebazpena” (Andaluziako Auzitegi Nagusiko Granadako Salaren 1988ko uztailaren 30eko Epaia), eta zentzu horretan “udal gaien ingurukoa baizik ezingo da izan” (2000ko azaroaren 17ko AGE).

Bestalde, Konstituzioaren 18.1 artikulua eta 4. artikulua jasotzen dituzten oinarritzko eskubideak (intimitaterako eskubidea eta datu pertsonalen babeserako eskubidea hurrenez hurren) direla eta, horien gainean konstituzioak ezarri duen doktrina guztia birpasatu beharrik gabe, esan daiteke lehendabiziko eskubidea finkatutzat eman zuela honakoak:

“Konstituzioaren 18,1 artikulua aitortu zuen norbanakoen intimitaterako eskubidea norberaren nortasunarekin guztiz uztartuta dagoen oinarritzko eskubide moduan eratu zen, Konstituzioaren 10.1 artikulua aitortzen duen pertsonaren duintasunean du jatorria eta “norbere esparru propioaren beharra dakar, besteen jardueretatik eta ezagutzatik at dagoena, eta, gure kulturaren arauen arabera, ezinbestekoa dena gizakiaren bizitzak gutxieneko kalitatea izan dezan”. (urriaren 14ko 170/1997 KAE, 4. arrazoibidea; abenduaren 1eko 231/1988 KAE, 3. arrazoibidea; urriaren 17ko 197/1991 KAE, 3. arrazoibidea; otsailaren 28ko 57/1994 KAE, 5. arrazoibidea; maiatzaren 9ko 143/1994 KAE, 6. arrazoibidea; abenduaren 16ko 207/1996 KAE, 3. arrazoibidea; eta azaroaren 8ko 202/1999 KAE, 2. arrazoibidea, beste askorekin batera). urriaren 18ko 156/1990 KAE”.

Konstituzioaren agindu horren 4. atala dela eta, azaroaren 30eko KAEk berariaz ezartzen du honakoa:

“Datu babeserako eskubidearen bidez norbanakoei datu horietaz baliatzeko ahalmena bermatzen zaie. Berme horrek, alde batetik, debekatu egiten die botere publikoei datu horien iturri izatea, baldin eta horretarako nahikoa berme ez badute, eta bestetik, derrigortu egiten ditu arriskuei aurrea hartzera, gerta daitekeelako informazio hori behar ez bezala erabiltzeagatik informazioa bidegabe atzitzea edo zabaltzea. Baina norbera norbere datu pertsonalez baliatu ahal izateko boterea alferrik da, ukituak ez baldin badaki zeintzuk datu dauzkaten hirugarrenek, nortzuk dauzkaten eta zertarako.

...

Horrela izanik, datu babeserako oinarritzko eskubidea ez da bakar-bakarrik pertsonaren datu intimoetara mugatzen, baizik eta edozein motatako datu pertsonaletara, intimoa izan ala ez, kontuan izanik, hirugarrenek horien berri izanez gero edo horiek erabiliz gero, datuen jabearen eskubideei kalte egin diezaieketela, oinarritzko eskubideak izan ala ez, bere helburua ez delako bakar-bakarrik norbanakoaren intimitatea, norbanakoen intimitatea babesteko Konstituzioaren 18.1 artikulua baitago, baizik eta datu pertsonalen babesa. Ondorioz, datu pertsonal publikoak ere harrapatzen ditu; izan ere, edonork eskuratzeko modukoak badira ere, ukituak baino ez du haietaz baliatzeko ahalmena, ukituak datu babeserako duen eskubideak horrela izan dadin bermatzen duelako. Horregatik hain zuzen ere, datuak pertsonalak direlako, pertsonaren bizitza pribatuari edo intimoari buruzko datuez gain, pertsona identifikatzen duten edo identifikagarri egiten duten datu guztiak daude babestuta, hau da, pertsonaren arraza, profil ideologikoa, sexuala, ekonomikoa edo beste edozein profil osatzeko balio duten datuak edo egoera jakin batzuetan norbanakoentzat kaltegarriak izan daitezkeen bestelako helburuetarako erabilgarriak izan daitezkeen datuak.

Orain arteko jurisprudenzia guztia gogora ekartzeak garrantzi handia badauka, beste hainbeste du, txosten honen ondorioetarako, behin eta berriz aipatzen ari garen eskubideek zenbaitetan izan ditzaketen mugak, eta muga horiek araututa daude.

Beraz, ez dago gaizki gogora ekartzea Datu pertsonalen tratamenduaren arloan pertsona fisikoak babesteari buruzko eta datu horien zirkulazio libreari buruzko 1995eko urriaren 24ko Europako Parlamentuaren 95/46/CE Zuzentarauak eskubide horri zenbait muga jartzeko aukera aurreikusten duela. Une honetan 13.1 artikuluan aurreikusitakoa hartuko dugu kontuan. Hona:

“Estatu kideek lege aldetik hartu beharreko neurri guztiak hartu ahal izango dituzte, 6. artikuluko 1. paragrafoan, 10. artikuluan, 11. artikuluko 1. paragrafoan eta 12. eta 21. artikuluetan jasotako betekizun eta eskubideen irispena mugatzeko, baldin eta mugapen hori ezartzea beharrezkoa bada honako hauek babesteko:

6.- kontrolatzeko, ikuskatzeko edo arautzeko funtzioak, baldin eta, aldiari behingoa izanda ere, agintaritzaren publikoen zereginekin zerikusia bada, c), d) eta e) idatz-zatietan jasotako egoerei dagokienez.”

Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziara jotzen badugu berriro, han ere muga horiek definitzen aritu dira. Eta, honako hau ezarri du behin eta berriro:

“Honakoa ere Epaitegi honen doktrina da: “intimitaterako eskubidea ez da erabatekoa, oinarritzko gainontzeko eskubideak ere ez diren bezala, eta Konstituzioaren arabera garrantzi handia duten zenbait interes haien gainetik jar daiteke, eskubidea murriztea ezinbestekoa bada lortu nahi den helbururako, proportzionala bada, eta eskubidearen funtsezko edukia ez badu urratzen» (Konstituzio Epaitegiaren 57/1994 Epaia 6. arrazoiak eta 143/1994 Epaia 6. arrazoiak eta gainontzekoak).”

Lehen aipatu dugun 292/2000 KAEk ere honakoa xedatzen du:

“norbere datu pertsonalak bildu eta tratatu ditzaten adostasuna adierazteko eskubideak (DBLOren 6. artikulua) ez du esan nahi datu horiek hirugarrenei lagatzeko baimena ematen denik; izan ere, norbere datuak hirugarrenei lagatzeko baimena datu babeserako oinarritzko eskubidearen edukiaren barruko ahalmen berezietako bat baita: Beraz, datu bilketa egitean zegoen helburua ez den beste helburu bat duen tratamendu baterako laga nahi badira, nahiz eta helburuak bateragarriak izan (DBLOren 4.2 artikulua), horrek esan nahi du beste batek izango dituela datuak eta beste erabilera bat egingo dela, eta horretarako, interesdunaren adostasuna behar da. Adostasunaren ahalmenak duen muga bakarra dira konstituzioaren arabera funtsezkoak diren eskubideak eta ondasunak. Beraz, arrazoitua eta proportzionala izan behar du eta lege ezarria, datu pertsonalen babeserako oinarritzko eskubideak ez duelako bestelako mugarik onartzen”.

Horrela bada, oinarritzko eskubide bi horiek zedarritu ondoren, eta ikusirik, DBLOren 11.2 a) artikulua arabera, lagapena lege batek baimentzen badu ez dela behar interesdunaren adostasunik, ondoriozta daiteke Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 77. artikulua dela udaletako zinegotzietatik datu lagatzeko baimena ematen duen lege-araua. Beraz, oro har horrela egindako datu komunikazioak ez du 18.4 artikuluan jasotako oinarritzko eskubidea urratzen laga behar diren datuen titularren kasuan.

Hala eta guztiz ere, planteamendu orokor hau kasu bakoitzari aplikatu behar zaio eta kasu bakoitzeko baldintzak kontuan hartuta. Baldintza horiek kontuan hartuta eta goiko interpretazio hori gaitzen duen erantzun bat lortu nahian, esan behar da erantzunak zinegotzien parte hartze politikorako eskubidea ahalbideratzeaz gain, ez diola funtsezko kalterik egin behar herritarrek datu pertsonalen babeserako duten oinarritzko eskubideari.

Horrek eskatzen du, gure ustez, mahai gainera ekartzea irizpide orokor hau: datuak garrantzitsuak izan behar direla korporazioko kideei egiten zaien datu komunikazioaren helburuekiko. DBLOren 4. artikuluko 1. eta 2. paragrafoan dago jasota printzipio hori, eta horren arabera:

“1. Datu pertsonalak jaso eta tratatu ahal izateko ezinbesteko baldintza da datu horiek egokiak, garrantzitsuak eta neurrikoak izatea, datu bilketaren eremuarekiko eta datu bilketaren helburu zehatz, esplizitu eta legitimoekiko.

2. Tratatu beharreko datu pertsonalak ezin izango dira erabili datu horiek biltzeko ezarri ziren helburuekin bateraezinak diren helburuetarako.

Kontrara, ez du datu babesaren arloko araudia beteko, baldin eta datu pertsonalak korporazioko kideei komunikatzen bazaizkie eta datu pertsonalak ez badira garrantzizkoak eta neurrikoak zinegotziek esleituta dauzkaten eginkizunetarako.

Honako hau da Auzitegi Gorenak gai honen inguruan egindako jurisprudentziatik atera daitekeen konponbidea.

Hori horrela, hona hemen 1998ko otsailaren 9ko AGEk dioena:

Gaiaren muinean sartuz, parte hartzaileetako batek ere ez du zalantzan jartzen udaletako kide diren aldetik, zinegotziek dituzten erabakitze, kontrolatzeko eta fiskalizatzeko eskumenak, ez eta eskumen horietaz baliatu ahal izateko Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 77. artikulua eta Antolaketa, Funtzionamenduari eta Lege-erregimenari buruzko Erregelamenduen 14. artikulua aitortzen dieten eskubidea ere; izan ere, eskubide horren arabera, Korporazioetako kide guztiek dute korporazioko zerbitzuen esku dauden aurrekariak, datuak edo argibideak eskuratzeko eskubidea. Bestalde, hori guzti hori Konstituzioaren 23.1 artikuluen barruan dago. Horregatik guztiagatik, ebatzi beharreko gaiaren alderik larriena da Alkateak errekurso honen jatorrian zegoen eskaera ukatzeko erabilitako idazkietan eman dituen arrazoiak: Funtzio Estatistiko Publikoari buruzko maiatzaren 9ko 12/1989 Legean ezarritako irizpideak aipatzen dituelako eta irizpide horien artean sekretu estatistikoa arautzen duten 4.2 eta 13. artikulua daudelako eta sekretu horren xedea izatez da intimitaterako oinarrizko eskubidea babestea, Erroldan jasotako datu pertsonalak direla eta.

Azken finean, ikusten dugu auziaren giltzarria dela gai izatea bi eskubide hauen arteko mugak finkatzeko: batetik, Konstituzioaren 23.1 artikulua zinegotziei aitortzen dien eskubidea gai publikoetan parte hartzeko, eta bestetik, Konstituzioaren 18.1 artikulua herritar guztiei aitortzen dien intimitaterako eskubidea.

Toki Araubideak ez digu gai honi buruzko erantzun zehatzik ematen, nahiz eta Errolda dokumentu publikoa dela aldarrikatu, dokumentu publikoa izan arren Erroldako sarbidea ez delako edonolakoa eta are gutxiago Errolda osatzeko aurrekarietarako sarbidea.

Erantzunik ezean, Funtzio Estatistiko Publikoari buruzko Legeak gai honi buruz jasotzen dituen irizpideetara jo dezakegu inspirazio bila. Hortaz, Lege horretan sekretu estatistikoa bermatzea da helburua, eta sekretuaren xedea da zerbitzu estatistikoetako informatzaileengandik zuzenean jasotako datu pertsonalak helburu estatistikoak ez diren bestelako helburuetarako ez daitezela erabili (14.3 artikulua). Horretarako xedatzen du estatistika arloko langile guztiek dutela estatistika arloko sekretu gorde beharra betetzeko obligazioa (17. artikulua. Bestalde, 4.4 artikulua estatistika zerbitzuei agintzen die, espezialitatearen irizpidea kontuan hartuta, estatistikak egiteko jasotako datu pertsonalak datu horiek eskuratzeko orduan ezarrita zeuden helburuetarako baino ez erabiltzea.

Estatistika eremuko langileen izaera eta udalerri mailan zinegotziek duten herritarren ordezkari izaera ezin diren arren parekatu, egia da zinegotziek legearen babesa dutela, edo alkatearen egintzak kontrolatuz edo fiskalizatuz edo egintzok onartuz, Udal Errolda egiten parte hartzeko. Eta legearen babesa dute, batez ere, Errolda osatzen duten udalerriko egoiliarak eta pasadizokoak benetako egoera islatzen duten ala ez ziurtatzeko. Beraz, zentzu horretan, errekurso egileek Alkateari egin zioten Errolda aztertzeko eskaera guztiz bat dator zinegotzien ordezkari izaerarekin, haien asmoa zelako ziurtatzea ea han jasotakoa eta benetako egoera bat zetozen. Nahiz eta, horrek ez duen esan nahi behin haien eginkizuna burutu ondoren, aztertu diren datuen titularren intimitaterako eskubidea kaltetu dezaketen datu pertsonalen gaineko sekretu gorde beharra betetzetik salbuetsita daudenik.”

Luzea bada ere, merezi du aipamena egiteak, adierazi duguna argitzeko balio duelako eta lehendik ere erabili ditugun argudioak direlako.

Beraz, zinegotziek dituzten “erabakitzeke, kontrolatzeko eta fiskalizatzeko ahalmenetatik” abiatuta, “parte hartze politikorako eskubidearen eta intimitaterako eskubidearen artean dauden mugak ezartzeko”, datuak “zertarako erabiliko diren” hartzen da aintzat. Ondorioz, horrek esan nahi du zinegotziek aurkeztutako errekurtsioa onartu egin behar dela eta zinegotzi errekurtsio-egileei aitortu egin behar zaiela eskatu duten informazioa jasotzeko eskubidea.

Eskaerako helbururako datu garrantzitsuak zeintzuk diren behar bezala balioestea lortuz gero, horrek bera emango zuen bidea, Bulego honen ustez, halako oreka moduko bat lortzeko zinegotziek politikan parte hartzeko duten eskubidea behar bezala gauzatu dadin eta datu pertsonalen babeserako pertsonen eskubidea ere funtsean babestuta egon dadin.

Zentzu honetan, kontuan hartzekoa izango zen zinegotziek ere antzeko emaitzak lortzeko aukera izan dezaketela pertsonak izenetik identifikatzeko beharrik gabe, horretarako, DBLOren 11.6 artikulua ezarritako “disoziazio prozedura” erabiliz, hau da, datu pertsonalak tratatzea datu disoziatuak lortzeko moduan. Datu disoziatutzat ulertuko da interesduna edo ukitua identifikatzen uzten ez duen datua.

Edozelan ere, eta bukatzeko asmoz, gogoratu behar dugu, DBLOren 10. artikulua xedatzen duenez, zinegotziek gorde egin behar dutela sekretua eta, ez badute betetzen, zuzenean egotzi ahal izango zaiela bete ez izana.

II

Hona hemen aurreko garapenaren haritik Bulegoak atera dituen ondorioak, laburtuta:

1. Zinegotziei datu pertsonalak komunikatu ahal zaizkie, haien kontrol eta fiskalizazio eginkizunak nahiz lege dituzten bestelakoak gauzatzeko eskubideaz baliatu daitezten, hala xedatzen baitute Toki Araubidearen Oinarriak ezartzen dituen Legearen 77. artikulua eta Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 11.2 a) artikulua.
2. Zinegotziei bakar-bakarrik komunikatu ahal izango zaizkie, esleituta dituzten helburu jakinetarako egokiak, beharrezkoak eta neurrikoak diren datu pertsonalak.
3. Datu horiek zeintzuk diren zehaztea eta eskaeraren betekizunak betetzen diren ala ez erabakitzea Udaleko dena delako organoaren zeregina da eta ez beste inorena.
4. Dena delako datu komunikazioa egiten bada, komunikazioak bete egin beharko ditu Udalak segurtasun arloan ezarrita daukan protokoloak.
5. Edozelan ere, komunikatzen diren datu pertsonalen lagapen-hartzaileak edo lagapen-hartzaileak DBLOren 10. artikuluan xedatutako sekretu gorde beharra bete beharko dute.

III

Aurreko guzti hori kontsulta idazkian egiten diren galderei erantzuteko erabili beharreko funtsezko esparrua da. Lehendabiziko galdera da ea zinegotziak eskatutako informazioa bidali ahal zaion berak eskatutako “bidetik”, beti ere kontuan izanik, goiko baldintza horiek kontuan hartuta, korporazioak daukala zinegotziari zein informazio bidali erabakitzeke eskumena. Beraz, badirudi erakunde kontsulta-egileak erabaki behar duela zein informazio bidali, eta kontsulta-idazkia ikusita, ematen du “hurrengo udalbatzarretan aztertu beharreko dokumentazio guztia...” bidali behar diola.

Zentzu horretan, eta erakunde kontsulta-egileak hartu duen erabakia zalantzan jarri gabe, badago gauza bat Bulegoak adierazi nahi duena, beti ere erakunde kontsulta-egileak duen eskumenari zor zaion errespetuarekin jokatzeko eta laguntzeko asmoz besterik ez, eta zera da, begiratzea ea eskatu dioten informazioak eta jakinaraztea erabakitzen den informazioak aurreko ataletan azaldu diren irizpideak betetzen dituzten.

Aztertzen ari ginen gaira itzulita, hau da, informazioa bidaltzeko moduari helduz berriro, argi baino argiago dago teknologia berriek itxaropen eta aukera berriak dakartzatela, eta jadanik ikusten dela horien isla bai lege baliorik gabeko dokumentuetan (Esate baterako, Europako Batzordeak Kontseiluari, Europako Parlamentuari, Ekonomia eta Gizarte Lantaldeari eta Eskualdeetako Lantaldeari egin zien 2003ko irailaren 26ko Komunikazioa edo Datu babesaren arloko Lan Taldeak lineako administrazioari buruz egin zuen 2003ko maiatzaren 8ko laneko dokumentua edo Europako Batzordeak Europako Parlamentuari eta Kontseiluari egin zien Komunikazioa datuen babesa sustatzeko, intimitaterako eskubidea babesteko teknologien bidez.) bai lege balioa duten dokumentuetan. Lege balioa duten dokumentuak hainbat arlotakoak dira: Komunikazio elektronikoen arloan datu pertsonalen tratamenduari eta intimitatea babesteari buruzko 2002ko uztailaren 12ko EBren 2002/58 Zuzentaraua; Hiritarrak elektronikaren bidez Zerbitzu Publikoetara heltzeari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Legea; administrazio prozesuetan baliabide elektronikoen, informatikoen eta elektronikoen nola erabili arautzen duen abenduaren 18ko 232/2007 Dekretua eta Euskadiko Udalen Legearen aurreproiektua. Hori hemen aurreproiektuaren 30.2 artikulua xedatzen duena: “Euskadiko erakunde guztiak erabat antolatzeke, euskal administrazio publiko guztien lankidetzak sustatuko da, zerbitzuen kalitatea modernizatu eta hobetu ahal izateko, administrazio elektronikoen eta herritarrenganako zerbitzuen alorrean neurriak hartuz, horrela informazioa elkar trukatu ahal izateko, eta, hala egokituz gero, pixkanaka espazio eta zerbitzu erkideak ezarri ahal izateko, segurtasuna, informazioaren normalizazioa eta zerbitzuen kalitatea bermatuz.”

Hori guzti hori horrela izanik ere, ezin da ukatu arau horietan ere sumatzen dela teknologia berri horiek izan dezaketen eraginaren inguruko kezka, eta kezka horrek zerikusia du Bulego honi dagokion gaiarekin, hau da, datu pertsonalen babeserako oinarritzko eskubidearekin. Eta zerikusia handiagoa izango da eskatutako datu pertsonalak ematea erabakitzen bada, datuak emanez gero, datuak kudeatu egingo direlako (datuak “garraiatu” edo egingo direlako) eta hori kontrolatzea ez delako bat ere erraza izango horien ardura duenarentzat.

Horren ildokoa da 2002/58 Zuzentaraua, eta seigarren kontuan hartzekoen atalak honakoa xedatzen du: “Interneten edonorentzat eskuragarri dauden komunikazio elektronikoen bidezko zerbitzuek aukera berriak ematen dizkiete erabiltzaileei, baina aldi berean arrisku berriak dakartzkie haien datu pertsonalen eta intimitatearen babesari”. Beraz, ez da harritzekoa 4. artikulua “segurtasunari” buruzkoa izatea eta 5. artikulua “komunikazioen konfidentzialtasunari” buruzkoa izatea.

Zentzu berean eta 11/2007 Legearen zioen adierazpena kontuan hartuta, “Komunikazioen eta Informazioaren Teknologia (IKT) gizartearen eta administrazioaren jartzeak daukan arronkarik handiena da teknologia horiek erabiltzeak berez dakartzan arriskuak desagerrarazteko edo gutxitzeko adinako konfiantza sortzea”.

11/2007 Legearen zenbait artikulutan daude garatuago arronka horiek. Adibidez, hasteko, Legearen helburuak direla eta, hona hemen 3.3 artikulua xedatzen duena: “Bitarteko elektronikoen konfiantzarekin erabiltzeko egoera sortu behar da, oinarritzko eskubideen integritatea babesteko behar diren neurriak ezarri, batez ere, intimitatearekin eta datu pertsonalen babesarekin zerikusia duten eskubideak babesteko. Eta horretarako, bermatu behar da sistemak, datuak, komunikazioak eta zerbitzu elektronikoen seguruak direla”.

Bestalde, legearen printzipio orokorreari buruzkoa den 4. artikulua gutxienez lau aldiz aipatzen ditu guri orain interesatzen zaizkigun zenbait alderdi, alde batera utzita datu pertsonalak babesteko eskubidea (horiek a) eta g) letran azaltzen dira). Hona hemen beste laurak: c) letrak sistema seguruari buruzko printzipioa aipatzen du; d) letrak aipatzen du administrazio publikoen aurrean herritarren berme juridikoen integritatea mantendu behar dela dioen printzipioa; f) letrak aipatzen du administrazio publikoek bitarteko elektronikoa segurtasunez ezarri behar dituztela eta, azkenik, h) letrak aipatzen duen printzipioa da eskaintzen diren informazioak eta zerbitzuak egiazkoak eta benetakoak direla ziurtatzeko erantzukizunari eta kalitateari buruzkoa.

Amministrazione elektronikoa buruzko lege erregimena dela eta, eta guk eman nahi diogun ikuspuntuarekin jarraituz, II. tituluko II. kapitulua hartu behar ditugu aintzat, identifikazioa eta autentifikazioa xedatzen dituelako. Kapitulu horretako 13.1 artikulua honakoa xedatzen du: “Amministrazione publikoek firma elektronikoko sistemak onartu beharko dituzte bitarteko elektronikoen egindako harremanetan eta sistema horiek 59/2003 Legean xedatutakoaren arabera izan beharko dute eta identitatea bermatzeko egokiak.

Herritarrek identifikatzeari eta haien jardura autentifikatzea dela eta, Legearen 14. artikulua xedatzen Nortasun Agiri Nazionalak dauzkan sinadura elektriko sistemak “izaera unibertsala” dutela; 15. artikulua xedatzen du sinadura elektronikoa aurreratua ere erabil daitekeela identifikatzeko eta dokumentuak autentifikatzeko; eta 16. artikulua xedatzen administrazio publikoek onartu ahal izango dutela, ukitutako datuak eta interesak kontuan hartuta eta ondo arrazoitutako egoeretan, herritarrek sinadura elektronikoko beste sistema batzuk erabiltzea, esate baterako, beste erregistro batean hitzartutako pasahitzak erabiltzea, alde biek adostutako informazioa aurkeztea edo kriptografikoak ez diren beste sistema batzuk.

Ondorioz, legedia berria izateak zuhurtziaz jokatzeko agintzen badu ere, baina jakinik administrazio publikoetan ezarri egin beharko dela, ematen du esan daitekeela Legeak aurreikusten duela Nortasun Agiri Nazionalak dauzkan sinadura elektronikoko sistemak beti erabil daitezkeela.

Horrez gain, Legeak orokorrean aurreikusten du administrazio publikoek onartutako sinadura elektronikoa aurreratutako sistemak egokiak izan behar direla administrazioekin harremanak bitarteko elektronikoz izan daitezen, eta hori lortzeko, publikoak izateaz gain, bitarte elektronikoz eskuratzeko modukoak izan beharko dute. Baldintza horiek bete beharko dituzte onartzen diren ziurtagiriek, ziurtagiriak ematen dituztenek eta ziurtagiri horiekin egin daitezkeen sinadura elektronikoen bestelakoek ere.

Hirugarrenik sinadura elektronikoko beste sistema batzuk ere egokitzat jotzen ditu Legeak. Baina sistema horiek erabili ahal izateko, ezinbestekoa izango da administrazio publikoek ondo arrazoituta finkatzea noiz eta zeintzuk baldintzen arabera erabili ahal izango dituzten herritarrek.

Azkenik, Legeak aurreikusten du aurreko paragrafoetan aipatutako tresnarik ez duten herritarrek identifikatzeko edo autentifikatzeko gaitasuna izango dutela horretarako izendatzen diren funtzionarioek, eurek dauzkaten sinadura elektronikoko sistemak erabilita horretarako.

Administrazio-prozeduretan bitarteko elektronikoa, informatikoa eta telematikoen erabilera arautzen duen abenduaren 18ko Dekretuak ere jasotzen ditu kezka horiek, eta Dekretuaren zioen azalpenak ere honakoa jasotzen du: “Bestalde, administrazioaren jarduran bitarteko elektronikoa, informatikoa eta telematikoa erabiltzeko, beharrezkoa da teknologia eta berme juridikoen arteko koordinazio egokia. Horrela, teknika modernoek ezartzearekin batera administrazio prozeduraren berezko bermeak zainduko dira”. Gainera, Dekretuaren 6. artikulua honakoa xedatzen du: “...neurriak hartuko ditu bitarteko elektronikoa, informatikoa eta telematikoa erabiliz izapidetutako informazioa eta agiriaren egiazkotasuna, osotasuna, eskuragarritasuna, konfidentzialtasuna eta kontserbazioa bermatzeko”. Eta VII. Kapitulu Segurtasun Agiriari eta abarri buruzkoa da.

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak badaki aurreko araudi guztiak ez duela zerikusi zuzena kontsulta egileak egin digun galderarekin (araudi horren helburua batez ere herritarrei bermeak ematea delako administrazio prozeduretan), baina, hala ere, uste dugu informazioa eskatzen duenak eta ematen duenak bete behar dituzten segurtasun, identifikazio eta autentifikazio neurriak, indarrean dagoen legedi horretan finkatzen diren neurrien antzekoak izan beharko direla gutxienez. Esan, behintzat, egin nahi dugu, zeren ez baita zentzugabea pentsatzea, toki administrazioen eskumenak ikusita, noiz edo noiz egokitu dela korporazioen kideei bereziki babestutako datuak jakinarazi behar izatea (gizarte laguntzako gaietan adibidez).

Bestalde, Datu pertsonalak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa garatzeko abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuaren VIII. Tituluko ("Datu pertsonalak tratatzeko orduan bete beharreko segurtasun-neurriak") hainbat ataletan ere zehatz jasota daude betekizun horiek.

Adibidez, identifikazioari eta autentifikazioari dagokienez, 93. eta 98. artikuluek oinarritzko mailako eta maila ertaineko segurtasun neurriak xedatzen dituzte hurrenez hurren, datu motetatik abiatuta.

Dokumentuen eta euskarrien kudeaketari buruz ere Errege Dekretuak badauzka zenbait xedapen, eskatu beharreko segurtasun mailaren arabera.

Adibidez, Errege Dekretuaren 92.2 artikulua honakoa xedatzen du oinarritzko segurtasun maila dela eta: "Euskarririk edo agiririk tratamendu kontrolatzailearen kontrolpeko lokaletatik kanpora atera beharra egokitzen bada -mezu elektroniko baten baitakoak eta/edo hari erantsikotakoak barne- eta datu pertsonalak baldin badauzkate, aurretiaz, tratamendu kontrolatzailearen baimena beharko da, edo segurtasun agirian behar bezala baimendurik egon beharko du".

Ido beretik jotzen du 97.2 artikulua, eta honakoa xedatzen du maila ertaineko segurtasun neurriari buruz: "Euskarri informatikoen irteera erregistroa osatzeko sistema bat ezarri beharko da, zuzenean zein zeharka, honako hauen berri izateko: euskarri mota, eguna eta ordua, hartzailea, euskarri kopurua, bertan jasotako informazio mota, bidalketa mota eta euskarria emateko ardura duen pertsona, behar bezala baimenduta egon beharko dena."

Azkenik, eta goi-mailako segurtasun neurriak direla eta, 101.2 artikulua honako xedatzen du: "Datu pertsonalen euskarriak banatzeko, datu horiek enkriptatu egin beharko dira, edo, bestela, beste edozein mekanismo erabili beharko da, informazio hori beste inork ulertzeko edo manipulatzeko modurik izan ez dezan. Eta, tratamendu kontrolatzailearen kontrolpeko instalazioetatik kanpora egon behar baldin badira, gailu eramangarrietan dauden datuak ere enkriptatu egin beharko dira".

Ondorioz, eta kontsulta idazkian ere ez denez ezer esaten zinegotziaren posta elektronikoaren ezaugarri teknikoari buruz, eta korporazioak kideei ematea erabakitzen den dokumentazioa posta elektronikoz bidaltzeko aukera baztertu gabe, esan behar dugu korporazio horren betebeharra dela ziurtatzea, informazioa bidali aurretik, informazio hori jasoko duen sistema behar bezain segurua dela eta informazioaren konfidentzialtasuna ez dela arriskuan egongo, eta behar bezala bermatuta egongo dela legezko hartzaileak baino ez duela jasotzen eta erabiltzen informazio hori. Bulego honen iritziz, ezin badira gutxienezko horiek bermatu, informazioa bidaltzeko beste moduren bat aurkitu beharko da.

IV

Bigarren galderari dagokionez, eta kontsulta idazkian aipatzen den informazioa eman dezaketen ala ez galdetzen diguzuela ulertuz, orain arte esandako guztia kontuan hartuta atera daitekeen ondorioa da korporazioak berak erabaki behar duela hori, eta horretarako, aurreko paragrafoetan adierazitako irizpideak eta informazio eskaeraren inguruko baldintzak kontuan hartuta (kontsulta idazkian ez da horretaz ezer aipatzen). Hau da, ezin dugu jakin informazio orokorra bidaltzeko eskatzen ote duen. Horrela bada, eta ez bada pertsona jakin bati buruzko informazio eskea, ez dira datu pertsonaltzat joko. Bestetik, ez dakigu zer galdetzen duen, ea kilometroko eta udalbatzarretara joategatik zenbat ordaintzen den ala zenbat kilometro egin diren eta zenbat bileretara joan diren, eta abar.

Beraz, informazio eskaeraren gaineko zehaztasunak jakin gabe, arriskutsua da horren gaineko iritzia ematea.

Beraz, behin eta berriz esan behar dugu korporazioari dagokiola horren gaineko erabakia hartzea, eta, gainera, korporazioak eskaera arrazoitzeko eskatu ahal izango dio eskatzaileari. Bestalde, horretaz gain, zentzuzkoa ematen du pentsatzea alde biek adostu dezaketela moduren bat

zinegotzi horrek egin nahi duen eta egin behar duen kontrola behar bezala egin dezan, baina datu babeserako oinarritzko eskubidea kaltetu gabe.

Edozelan ere, antzeko egoerak ebazten dituen jurisprudentziara jotzeko aukera ere badago, adibidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salaren 2000ko urtarrilaren 30eko Epaia (geroago Auzitegi Gorenak berretsi egin zuen) edo Valentziako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salaren 2005eko ekainaren 1eko Epaia.

V

Hirugarren galderari buruz esateko gutxi dago.

Baina esan behar dugu “konpromisoa” izenpetzea oso jardunbide egokia iruditzen zaigula, horrek lagundu egin ahal dielako korporazioko kideei hobeto irudikatzen gaur egun gizartean gero eta indar handiagoa hartzen ari den datu babeserako eskubidea, eta modu bat izan daitekeelako korporazioko kideek ikus dezaten oinarritzko eskubide hau bermatu egin behar dela eta sensibilizatu daitezen.

Baina “konpromisoa” baliagarria izan badaiteke ere behar hori bistartzeko eta/edo haiek sensibilizatzeko, “konpromisoa” sinatu (edo ez sinatu), horrek ez dauka berez legezko ondoriorik sinatzen ez duten korporazioko kideekiko, edo korporazioarekiko, sinatzen badute. Hau da, konpromisoa, sinatzeak ez du esan nahi korporazioak egokiak ez diren tratamenduak egiten baditu, erantzukizunik ez duenik. Eta konpromisoa ez sinatzeak ez du esan nahi korporazioko kide jakin bat ala beste izango denik erantzukizun guztia hartzen duena.

Bukatzeko, esan behar da konpromisoa sinatu ala ez sinatu, ez dela aldatzen datu pertsonalen babeserako oinarritzko eskubidearen ikuspuntutik egon daitezkeen erantzukizunen erregimena, hau da, ez dela aldatzen korporazioko kide bakoitzari edo korporazioari berari dagozkion erantzukizunen erregimena, eta kasu bakoitzean kasu horretako inguruabarren arabera jokatu beharko da.

ONDORIOAK

- 1.- Korporazioko kideei dokumentazioa posta elektronikoz bidali ahal zaie, nahiz eta dokumentazioak datu pertsonalak ere izan.
- 2.- Dokumentazioa posta elektronikoz bidali aurretik, Korporazioak ziur jakin behar du dokumentazio horren helmugak betetzen dituela 1720/2007 Errege Dekretuaren zenbait artikuluk xedatzen dituzten gutxieneko segurtasun neurri batzuk, jakinarazten diren datu pertsonalen konfidentzialtasuna bermatuta egon dadin. Segurtasun neurri horiek irizpen honetako kontuan hartzekoen III. atalean ere aipatu ditugu.
- 3.- Egindako kilometroei buruzko eta bileretara etortzeagatik egindako gastuei buruzko dokumentazioa eman ala ez erabakitzea korporazioari berari dagokio, irizpen honetan jasota dauden irizpideak kontuan hartuta..
- 4.- Konfidentzialtasun konpromisoa sinatu ala ez, horrek ez du berez aldatzen datu pertsonalen babesaren arloko arauditik ondorioztatzen den erantzukizunen erregimena.

16. ADMINISTRAZIO BATEAN FITXATEGI BAKARRA SORTZEA

XXXXXXKO FORU ALDUNDIKO XXXXXXEKO XXXXXXKO ZUZENDARIAK HONAKO GAIARI BURUZ EGINDAKO KONTSULTAREN GAINEKO IRIZPENA: "FITXATEGIAK SORTZEA".

CN08-027

AURREKARIAK

LEHENENGOA: 2008ko uztailaren 8an XXXXXXko Foru Aldundiaren XXXXXXeko XXXXXXko zuzendari jaunaren idazki bat jaso genuen Datuak Babesteko Euskal Bulegoan. Idazki horren bidez, goian aipatzen den gaiari buruzko txostena eskatzen zen.

BIGARRENA: Kontsulta idazkian honakoa adierazten da:

Honekin batera bidaltzen dizut XXXXXXko Foru Aldundiaren Segurtasuneko arduradunak egiten duen galdera, Bulegoaren iritzia eman diezaguzun:"

Hona hemen Segurtasuneko arduradunak egin duen kontsulta:

"XXXXXXko Foru Aldundiko Segurtasuneko arduraduna naizen aldetik, honako galdera egin nahi dut: ea aldundi honekin edozein motatako harremana duten administratuen gaineko oinarritzko datu identifikatzaileak eta lokalizaziorako datuak biltzea helburu duen fitxategi bakar bat sor daitekeen Aldundi osorako.

Horretaz gain, fitxategiak badu beste helburu bat: foru aldundiko beste informazio sistema batzuk interesdun berari buruz kudeatzen duten informazioa biltzeko (identifikazio datu horien bidez) baliagarria izatea, hartara, kalitate handiagoko zerbitzu proaktibo bat eman ahal izateko interesdunari.

Fitxategi honek daukan berezitasuna da ez duela izapide edo espediente zehatzei buruzko daturik jasoko. Fitxategiak administrazio zentralizatu bat izango du hainbat erabiltzaile-profilekin, eta, beraz, sarbide murriztua izango du, baimenen arabera.

Eskabide, espediente edo administrazio-ekintza bakoitzeko eduki zehatza fitxategian ukituari dagokion erregistroarekin lotuko da, eta, horrela, ez du bilduko datu pertsonalik fitxategi fisikoan; eta Aldundi osoko administratuen fitxategi orokor honetan kokatuta dauden datu identifikagarrien erreferentzia egingo du.

1. kontsulta: esandako prozedura disoziazioztat jo daiteke?

Pentsatzen ari gara, batetik, administrazio zentralizatua izango duen eta administrazioen identifikazioak izango dituen fitxategi hori sortzea eta, bestetik, egun Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren Erregistroan jasota dauden Aldundiaren titulartasunpeko gainontzeko fitxategiak ezabatzea, lehen deskribatutako prozesuak datu pertsonalik gabe utziko dituelako.

2. kontsulta: ba al dago Aldundi osorako den eta aldi berean helburu zabala eta zehatza duen fitxategi bakar hori sortzerik eta deklaraturako gainontzeko fitxategiak ezabatzerik?

Eta, azkenik, nahiz eta egungo fitxategi logikoak bere horretan utzi beharra egon, informazioa zentralizatuta egotean erabilerrazagoa da Aldundiko eta foru erakundeetako edozein arlorentzat.

3. kontsulta: Datuak fitxategi bakar batean jasoko direla eta fitxategiaren helburua zein izango den esateaz gain, ba al dago inprimaketan laukitxo bat jartzerik datuen jabeek baimena eman dezaten beraiei buruzko informazio identifikagarria eta lokalizaziorako informazioa Aldundiaren eta bertako foru erakundeen eskumenekoak diren bestelako gestioetarako erabiltzeko?

HIRUGARRENA: Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeko buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17,1 artikuluko n) letrak honako eginkizuna esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

“Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkieten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkieten galderei erantzutea.”

Beraz, goiko arau hori kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egin diguten galderari erantzuteko txostena egitea.

KONTUAN HARTZEKOAK

I

Xxxxxxko Foru Aldundiko Segurtasuneko arduradunaren kontsulta-idazkian hiru galdera zehatz aipatzen badira ere, esan behar dugu komenigarria dela, beste ezeren aurretik, helmen orokorragoa duten hainbat gogoeta egitea, Segurtasuneko arduradunak egindako hiru galderak kokatzeko eta erantzunak ondo arrazoitu ahal izateko.

Lehendabiziko gogoeta ezinbestean izan behar da galdera edo kontsulten jatorria den proiektua itxuraz txertatzen den eskumen esparruari buruzkoa da.

Eskumen esparruaz ari garela, esan behar da erakunde kontsulta-egilearen eskumen esparrua esatean foru aldundiaren auto antolaketaren esparruaz ari garela eta esparru horren gainean erabakiak hartzea aldundiari berari baino ez dagokiola. Beraz, Bulego honek errespetu osoa sor die erakunde kontsulta-egilearen erabakiei.

Aurreko gogoetaren asmoa da argi uztea Bulegoak irizpen honetan egin ditzakeen oharren asmoa dela -bai eta bertan eman ditzakeen bestelako aukerena ere, halakorik emanez gero)- laguntzea eraginkortasun administratiboaren arteko -herritarrari behar bezalako arreta ematea barne-eta datu pertsonalen babeserako oinarritzko eskubidearen arteko ezinbesteko oreka eskuratzen.

Ildo horretan, esan behar da bigarren gogoeta kontsultan planteatzen den proiektuaren helburuekin lotuta dagoela, ikustea baino ez dago DBLOren 4. artikuluan jasotzen den helburuaren printzipioak zein garrantzi handia hartzen duen datu pertsonalen edozein tratamendutan.

Zentzu horretan, kontsulta-egileak deklaratu duen helburua honakoa da: “(...) aldundi honekin edozein motatako harremana duten administratuen gaineko oinarritzko datu identifikatzaileak eta lokalizazio datuak biltzea”. Horretaz gain, fitxategi honen beste helburu bat da “foru aldundiko beste informazio sistema batzuk interesdun berari buruz kudeatzen duten informazioa biltzeko (gorago aipatutako identifikazio datuak erabilia) baliagarria izatea, hartara, kalitate handiagoko zerbitzu proaktibo bat eman ahal izateko interesdunari”.

Beraz, (kontuan hartuta datu-bilketa ezin dela berez jomuga bat izan, helburu jakin bat lortzeko bitarteko bat baino, eta kontuan hartuta benetako helburua “administratuen erregistro edo errolda bat” sortzea izan daitekeela), Bulego honek ondorioztatzen du fitxategia bi helburu hauekin sortu nahi dela: batetik, administratuekiko harremanetarako, eta bestetik, sortu nahi den fitxategiak dituen datu pertsonalen jabeen beste datu gehiago dituzten gainontzeko fitxategien erreferentziazko elementu izatea.

Bigarren helburu horrekin lotutako oharrek geroago egingo ditugu.

Lehenengo helburua dela eta, ordea, esan behar da, benetako asmoa errolda edo erregistro bat sortzea bada, horrek eskatzen duela Aldundiarekin harremana duten herritarren identifikazio eta lokalizazio datuak nahitaez “ateratzea” lehendik jasota dauden fitxategi guzti-guztietatik, eta hori egin ondoren, sortu nahi den fitxategian jasotzea.

Hori hala balitz, kontuan izan, datu-babesaren ikuspuntutik, operazio hori datu lagatzea edo datu komunikazioa izango litzatekeela.

Hau da, hori horrela bada, esan daiteke hor egiten dena dela interesduna ez den beste bati datuak erakutsi, zehatzago esanda, fitxategi berriaren arduradunari datuak erakusten zaizkio.

DBLOren 11.1 artikulua honakoa xedatzen du: “tratatu beharreko datu pertsonalak hirugarren bati komunikatu ahal izateko, ezinbestekoa izango da lagatzailearen eta lagapen-hartzailearen eginkizun legitimoekin lotuta dauden helburuetarako izatea, hau da, bakar-bakarrik horretarako izatea, eta interesdunaren alde aurreko adostasuna beharko da”.

Bestalde, kontsultako zehaztasunak ikusita, ez da ikusten kasu honetan 11. artikuluko 2. idatz-zatiko baldintzarik betetzen denik. Beraz, esan daiteke herritarren identifikazio eta lokalizazio datuak jasotzen dituzten fitxategietatik ateratzeko eta berrian jaso ahal izateko, datu horien titularren adostasuna behar dela.

Orain arteko guztiari erreparatuz eta Aldundiaren eskumen-esparruaren gainean esandakoa berretsiz, eta horren inguruan Bulego honek izan behar duen begiruneaz esandakoa ere kontuan izanez, eta laguntzeko asmo hutez, ezinbestean ekarri behar dugu hona Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen bigarren xedapen gehigarria; izan ere, xedapen gehigarri horrek fitxategi jakin baten gaineko berariazko aurreikuspen bat egiten du, eta zati batean bada ere (hau da, administrazioaren eta herritarren arteko komunikazioa), berariazko fitxategi horrek eta sortu nahi denak antzeko ezaugarriak dituen helburu bat dute.

Bigarren xedapen gehigarriaren lehenengo idatz-zatiak zera dio:

“Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoko bigarren xedapen gehigarrian eta Toki Jaurbidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 17.3 artikuluan zehazturik dagoen moduan, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrak eta foru-administrazioek, biztanleen fitxategiak edo erregistroak sortze aldera, Euskal Estatistika Erakundeari aginpideak dauzkaten lurraldeetako biztanleen udal-erroldeetan dauden fitxategien kopia eguneratu bat eska diezaiokete, interesdunaren oniritziaren beharrik gabe, honako datu hauek eskuratzeko: izena, abizenak, helbidea, sexua eta jaiotze eguna. Komunikaziorako balioko dute biztanleen fitxategi edo erregistro horiek, hau da, herri-administrazio bakoitzeko organoen eta dagokien lurraldean bizi diren interesdunen arteko komunikaziorako, herri-administrazio bakoitzaren aginpideetatik datozen harreman juridiko-administratiboei dagokionez.”

Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren ustez, 2/2004 Legearen bigarren xedapen gehigarriari Espainiako Datuak Babesteko Agentziak DBLOren bigarren xedapen gehigarriaren gainean egin duen doktrina aplikatu behar zaio. Datuak Babesteko Euskal Bulegoa bat datorrenez doktrina horrekin, esan daiteke, doktrina horrek behar bezala egokituta, honakoa dioela:

Xedapen horretan ezarritakoaren arabera, eskatutako datu lagatzea bidezkoa izango da honako baldintzak betetzen badira:

- 1.- Datuak lagatzeko eskabidea Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorrean edo foru administrazioetan txertatuta dauden organoek egitea.
- 2.-Biztanleen erroldan jasota dauden honako datuak baino ez lagatzea: izena, abizenak, helbidea, sexua eta jaiotze data.
- 3.-Lurraldearen ikuspuntutik begiratuta, eskatzaileak dauzkan eskumen esparruaren barrukoak izatea datuak.
- 4.-Lagapen hartzaileak helburu bakarrarekin erabiltzea datuak, hau da, fitxategiak edo populazio erregistroak sortzeko. Fitxategi horiek administrazio publikoen organoen eta organo horien eskumeneneko lurraldean egoitza duten herritarren arteko komunikazioa ahalbideratuko dute eta

komunikazioa administrazio horien eskumenen ondorioz sortutako harreman juridiko-administratiboen gainekoa izan beharko da.

5.-Bidezkoa den unean eta egiaztatzen denean EUSTATEk datuak laga dituela, populazio erregistroa sortu aurretik nahitaezkoa izango da erregistro horren kontrolatzailea den administrazio publikoak fitxategia sortzeko xedapena onartzea eta fitxategia sortu dela jakinaraztea Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren Erregistroari.

Erakunde kontsulta-egileak egin duen kontsultak badu, gure ustez, antzekotasunik goian eskatzen diren betekizunekin, zati batean behintzat. Hori dela eta, Bulegoak uste du, alde batetik, komenigarria dela aukera hori badela gogoraraztea, eta, bestetik, gomendatzen du mekanismo horrek kontsultan aipatzen den helburuarekiko (edo helburuetako batekiko) eskaintzen dituen aukeren gainean hausnarketa egitea, hain zuzen ere, egon badagoelako berariazko lege-aurreikuspen bat herritarrak atenditzeko helburua bezalakoak kontuan hartzen dituen.

Aurreko guztiaz gain, izaera orokorreaz aipatu beharra dagoen hirugarren puntu bat ere badago: zenbait kontzepturen gainean legeek ematen dituzten definizioak; izan ere, ematen baitu garrantzia izan dezaketela proiektatu den fitxategia ikusirik. Hasteko, datu pertsonala zer den ikusiko dugu eta nola definitzen duten DBLOK eta 1720/2007 EDk.

Bi lege-xedapen horien arabera, datu pertsonala da pertsona fisiko identifikatu edo identifikagarri buruzko edozein informazio (zenbakizkoa, alfabetikoa, grafikoa, fotografikoa, akustikoa edo beste edozein motatakoa).

Pertsona identifikagarria da zuzenean edo zeharka, nor den jakin daitekeen pertsona fisikoa, bereziki bere nortasun fisiko, psikiko, ekonomiko, kultural edo sozialari dagozkion ezaugarri bat edo gehiago erabiliz. Pertsona fisiko bat ez da joko identifikagarritzat identifikaziorako neurriz kanpoko epeak edo jarduerak behar badira.

Bestalde, fitxategia da datu pertsonalen multzo antolatu oro, irizpide jakin batzuk erabilita datuak atzitzen uzten duena, edozein dela ere datu multzo hori sortzeko, biltegitartzeko, antolatzeko eta atzitzeko era edo modalitatea.

Tratamendu kontrolatzailea da pertsona fisikoa nahiz juridikoa, publikoa nahiz pribatua edo administrazio organoa da, bakarrik edo beste batzuekin batera erabakitzen duena zein den tratamenduaren helburua, edukia eta erabilera, nahiz eta berak ez gauzatu tratamendua.

Disoziazio prozeduratzat jotzen da datu pertsonalen tratamendu oro, baldin eta lortzen den informazioa ezin bada lotu pertsona fisiko identifikatu edo identifikagarri batekin, eta datu disoziatua da ukitua edo interesduna identifikatzen uzten ez duen datua.

Azkenik, eta kontuan hartzekoen lehengo atal honek duen izaera orokorrari erreparatzen badiogu, esan beharrekoa da kontsultak ere ez duela egiten proiektuaren deskribapen oso zehatza eta asmoen aurrerapen hutsa baino ez dela; izan ere, proiektua gehiago zehaztu beharko da exekututako bada.

Horregatik guztiagatik, Bulegoak eman ditzakeen erantzunak ere aurrerapentzat hartu beharko dira, hau da, erantzunek ere izaera orokorra dute, ez baitauek proiektuari buruzko xehetasunen berri.

II

Goian finkatu dugun esparrua kontuan hartuta, eta lehenengo kontsulta zehatzari erreparatzen badiogu, badirudi kontsultak berak baieztatu erantzuna ematen duela, premisa honetatik abiatuz: "Aldundiaren titulartasunpeko gainontzeko fitxategietatik" kentzea lehen deskribatutako prozesuan aipatutako datu pertsonalak.

Hala ere, Bulegoak ez du argi ikusten premisa hori zuzena ote den.

Hain zuzen ere, eta jakinik ez dugula zehatz ezagutzen datuak kentzeko erabiliko den prozedura, ez eta "fitxategi bakarraren" eta gainontzeko fitxategien arteko harremana zein den ere, zuhurtziarekin bada ere, esan daiteke ezinezkoa dirudiela fitxategi horiek denak datu pertsonalik gabe gera daitezkeenik. Ondoko lerroetan azalduko dugu zergatik.

Goian azaldu ditugun definizioez gain (datu pertsonalarena, disoziazio prozesuarena eta datu disoziatuarena), 29. artikuluko Lan Taldeak 2007ko ekainaren 20an datu pertsonalen kontzeptuari buruz hartutako erabakiaren gaineko 4/2007 Irizpenak ezarritakoa ere hartu beharko da kontuan.

Irizpen horretan honakoa esan zen: "Oro har pertsona fisiko bat identifikatuta dagoela esan daiteke, baldin eta pertsona hori talde baten barruan badago, eta multzoko gainontzeko pertsonengandik bereizten bada. Beraz, pertsona fisikoa identifikagarria izango da bera identifikatzea posiblea bada, nahiz eta artean identifikatu gabe egon".

Horretaz gain, Irizpenak honakoa dio: "Identifikatzea lortzeko, zenbait datu zehatz behar dira -datu zehatz horiei identifikatzaile izena jarri ahal diogu- eta datu horiek harreman pribilegiatua eta hurbilekoa duta dena delako pertsona jakinarekin".

Beraz, "Horrela, edozein pertsona identifikatu daiteke zuzenean izenaren eta abizenen bidez, edo, zeharka, telefono zenbakiaren, kotxeko matrikularen, gizarte segurantzako zenbaki baten edo pasaporteko zenbaki baten bidez edo zenbait irizpide esanguratsuren konbinaketaren bidez".

Zuzenean identifikatzen diren pertsonen edo identifikagarrien diren pertsonen ari garela, esan behar da pertsonaren izena eta abizena direla identifikatzailerik arruntenak, eta praktikan pertsona identifikatuaren kontzeptua pertsona horren abizenei guztiz lotuta egon ohi da.

Ez badugu gaizki ulertu kontsulta-egilearen proposamena, proiektatutako operazioak esan nahi du, gehienez ere pertsonak "zuzenean" identifikagarri egiten dituzten datu pertsonalak ezabatuko direla asko jota.

Baina horrek ez du esan nahi "() ez denik datu pertsonalik biltegiatutako fitxategi fisikoan, hau da, ez du esan nahi operazio hori egin eta gero, ezin izango direnik pertsonak identifikatu "zeharka". Aitzitik, Bulegoaren iritziz, ondorioztatu beharrean gaude artean datu pertsonalak han segituko dutela, nahiz eta datuak pertsona identifikagarriak buruzkoak izan, eta ez dugu ahaztu behar datu pertsonalaren kontzeptuak bere baitan biltzen duela pertsona identifikagarriaren kontzeptua.

Hona hemen hainbeste aldiz aipatu dugun Irizpenak dioena:

"Honaino helduta, komeni da aipatzea ohikoena izen eta abizenen bidez egiten den identifikazioa bada ere, gerta daitekeela informazio hori ez izatea beti ezinbestekoa pertsona bat identifikatzeko. Eta hala gerta daiteke baten bat identifikatzeko beste identifikatzaile batzuk erabiltzen badira. Hain zuzen ere, datu pertsonalen fitxategi informatizatuek berariazko identifikatzaile bat esleitzen diete erregistratuta dauden pertsonen, fitxategi berean sartuta dauden bi pertsonen arteko nahasketarik egon ez dadin". Beraz, horren arabera, zeharka identifikatutako edo zeharka identifikagarriak diren pertsonen ari garenean, konbinazio bakarrei buruzko fenomeno orokorrari buruz ari gara, eta txikiak nahiz handiak izan daitezke. Zenbaitetan gerta daiteke pentsatzea eskuragarri dauden identifikatzaileak ez direla nahikoa pertsonak bereizteko. Baina, hala ere, pertsonak identifikagarriak dira; izan ere, eskuragarri dagoen informazio hori beste datu batzuekin konbinatuz gero (eta berdin dio datu horien tratamendu-kontrolatzaileak horren berri duen ala ez), pertsona bat beste batzuegandik bereiztea ekar dezakeelako.

Eta kontsultan adierazten den proiektuaren deskribapena ikusita, horrelako zeharkako identifikazioa egon daitekeela ematen du aditzera. Hona kontsultak dioena:

Eskabide, espediente edo administrazio-ekintza bakoitzeko eduki zehatza fitxategian ukituari dagokion erregistroarekin lotuko da, eta, horrela, ez du bilduko datu pertsonalik fitxategi fisikoan; eta Aldundi osoko administratuen fitxategi orokor honetan kokatuta dauden datu identifikagarrien erreferentzia egingo du.

Goiko paragrafoko azpimarrak Bulegoak jarri ditu eta hortik abiatuta ikus daiteke badagoela moduren bat fitxategi bakar batean jasota dauden herritar bakoitzaren datu identifikatzaileak eta gainontzeko fitxategietan herritar bakoitzari buruz dauden datuak lotzeko, hau da, “kode enkriptatu” antzeko bat.

Hori hala balitz, eta nahiz eta kodea deszifratzeko gakoa, hau da, kodearen eta pertsonaren ohiko identifikatzaileen arteko korrespondentzia ezartzeko gakoa, aparteko toki batean gordeta egon, Irizpenak uste du “(...) ondoriozta daitekeela dena delako pertsona horiek identifikatzeko interesa dutenenentzat pertsona fisiko identifikagarriari buruzko informazioa direla datu enkriptatu horiek, eta horrexegatik beragatik datu babesaren araudiaren menpe egon behar dutela”.

Beraz, fitxategi horietako bakoitzean kode, zenbaki, erreferentzia edo antzekoren bat badago, eta horren bitartez lotu ahal badira fitxategiotako informazioa eta fitxategi orokorrean dauden datu identifikatzaileak, horrek esan nahiko du ez dela egin benetako disoziaziorik, ez behintzat gorago adierazi dugun definizioak dioten bezala; izan ere, kode, zenbaki edo erreferentzia horiei esker erraz eta ahalegin berezirik gabe izango delako identifikagarria informazioaren titularra.

Azkenik, ezin ditugu alde batera utzi gure jarduera esparru zehatza eta lortu nahi den helburua, zentzuzkoa baitirudi “Eskabide, espediente edo administrazio-ekintza bakoitzeko eduki zehatza” —kontsultan erabilitako adierazpideak errepikatuz—bertako datuen jabea den herritar jakinari atxikita egongo direla nola edo hala.

Zentzu horretan, behin eta berriz aipatu dugun irizpena ekarri behar dugu berriz ere. Irizpenaren arabera, ezin da ahaztu:

“Pertsonak identifikatzeko erabil daitezkeen bitartekoak ebaluatzeko alderdi garrantzitsu bat da tratamenduaren arduradunak duen helburua hori egiten duenean. Datuak babesteko agintaritzak nazionalak behin baino gehiagotan egin dute topo informazio sakabanatua, hau da, izenei edo bestelako zuzeneko identifikatzaileei erreferentziarik egiten ez dion informazioa baino tratatu ez dutela dioten tratamendu arduradunekin. Gainera, tratamendu arduradun horien jomuga izan ohi da datu horiek datu pertsonaltzat ez jotzea eta datu babesaren araudiaren menpe ere ez egotea. Baina, esan beharra dago informazio horren tratamendua bakar-bakarrik dela baliokoa norbanako jakinak identifikatzeko balio badu eta tratamendua era jakin batean egin badaiteke. Horrelakoetan, hau da, datuen tratamenduaren helburua pertsonak identifikatzea denean, pentsatzekoa da tratamenduaren arduradunak edo tartean dagoen beste edonork interesduna identifikatzeko erabil daitezkeen bitartekoak dituela edo eduki ditzakeela. Hain zuzen ere, tratamenduaren helburua pertsonak identifikatzea izanik, pertsona fisikoak ez direla identifikagarriak esatea kontraesan oso larria izango litzateke”.

Hori guzti hori aipatu badut, planteatutako lehenengo galderari erantzuteko izan da. Beraz, zentzuzkoa dirudi ondorioztatzea kontsulta deskribatzen den prozedura ezin dela disoziaziotzat jo, ez behintzat DBLOk eta lege organiko hori garatzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 EDk xedatzen dutenaren arabera.

III

Bigarren galderari begiratzen badiogu, ezeren aurretik berriro gogora ekarri behar dugu eta kontuan hartu erakunde kontsulta-egileak erabateko eskumena duela antolaketaren aldetik eta Bulegoak begirune osoa zor diola horri.

Edozelan ere, esan behar da galdera horren erantzuna eta aurreko galderari emandakoa hertsiki lotuta daudela.

Beraz, eta “fitxategi bakar” hori sortzeko aukera hor dagoela kontuan hartuta, esan beharra dago fitxategia sortzeko orduan zailtasun ugariarekin egin daitekeela topo (esate baterako fitxategia sortzen duen arauak zelan adierazi behar dituen fitxategiaren helburuak, kontuan izanik, DBLOren arabera, helburuak zehatzak eta esplizituak izan behar dutela), beti ere aurreko atalean egin den irakurketa hartzen bada aitzat, eta batez ere Bulego honek uste duelako deskribatutako proiektuak

ez dituela betetzen disoziazioa egin dela pentsatzeko baldintzak. Beraz, disoziaziorik egin ezean, ulertu behar da fitxategiek datu pertsonalak jasotzen segitzen dutela, eta, beraz, guztiz daudela datuak babesteko araudiaren menpe, eta horrek ezinezkoa egiten du fitxategiak ezabatzea.

IV

Planteatutako azken galderak, itxura batean erraza ematen badu ere, bete-betean eramaten gaitu datu pertsonalak babesteko oinarritzko eskubidearen funtsezko edukia osatzen duten bi printzipioetara. Hona hemen: informazioaren printzipioa eta adostasunaren printzipioa, biak bata besteari eta aldi berean hirugarren bati hertsiki lotuak. Hirugarren hori helburuaren printzipioa da.

Hain zuzen ere, Konstituzio Auzitegiaren iritziz datu babeserako eskubideak honako esan nahi du: “datuen gaineko boterea izatea eta datu horien gainean erabakiak hartzeko gaitasuna izatea, eta gaitasun horrek ahalmena ematen dio pertsonari honakoak erabakitzeko: ea datu horietatik zeintzuk eman nahi dizkion hirugarren bati, dela Estatu dela partikular bat, eta ea hirugarren horrek datu horietatik zeintzuk bildu ditzakeen; horrez gain, ahalmena ematen dio jakiteko ea datu pertsonal horiek nork dauzkan eta zertarako, eta bere datu pertsonalak inork edukitzearen edo inork erabiltzearen aurka agertzeko ahalmena ere ematen dio. Norberaren datu pertsonalak kontrolatzeko eta horien gaineko erabakiak hartzeko boterea datu babeserako oinarritzko zuzenbidearen edukiaren zati bat da eta botere hori honako gaitasun hauek gauzatzen dute juridikoki: datu pertsonalak biltzeko, eskuratzeko eta atzitzeko adostasuna adierazteko gaitasunak, geroago datu horiekin egiten diren biltegiatzeen eta tratamenduen gaineko adostasuna adierazteko gaitasunak eta hirugarren batek, dela Estatuak dela partikular batek, datu horiekin egin dezakeen edo ditzakeen erabileraren edo erabileren gaineko adostasuna adierazteko gaitasunak”. Beraz, ukituak berari buruzko datuak bildu eta erabiltzeko adostasuna emateko eta datu horien berri izateko eskubideak ditu, eta badirudi eskubide horiek datu babeserako oinarritzko eskubidearen berezko osagaiak direla.

15/1999 Lege Organikoaren 3 h) artikulua honela definitzen du interesdunaren adostasuna: “interesdunaren borondate-adierazpen askea, argia, berariazkoa eta informatua da, berari buruzko datu pertsonalak tratatzeko adostasuna adierazteko”. Hori horrela izanik, adostasunak, zuzenbidearen arabera izan nahi badu, artikulua horretan aipatzen diren lau betekizunak izan behar ditu.

Era berean, puntu hau sakontzeko eta kontzeptu honen gaineko azterketa egokia egin ahal izateko, nahitaez jarri behar da agerian zein den adostasunaren lau ezaugarri berezi horien gainean egin beharreko interpretazioa. Horretarako, Europako Kontseiluaren Ministroen Batzordeak gai honetaz eman dituen gomendioetan ezarritako irizpideak hartuko ditugu kontuan. Irizpide horiek aintzat hartuz gero, adostasuna honelako izan beharko da:

a) Askea, hau da, adostasuna jasotzean ez dela egon behar adostasunaren akatsik. Adostasunaren akatsak Kode Zibilean daude araututa.

b) Berariazkoa, hau da, tratamendu operazio jakin bakar baterako eta tratamendu kontrolatzailearen berariazko eta legezko helburu jakin bakar baterako izan behar da, hala xedatzen baitu 15/1999 Lege Organikoaren 4.2 artikulua.

c) Argia, hau da, ezin da besterik gabe ondorioztatu ukituak adostasuna adierazi duenik (ustezko adostasuna). Beraz, ukituak adostasuna eman duela agerian uzten duen berariazko egite edo ez-egiteren bat egon beharko du nahitaez.

d) Informatua, hau da, ukituak tratamendua egin aurretik izan behar du tratamenduaren berri eta tratamenduaren helburuen berri. Hain zuzen ere, Datu Babesari buruzko Lege Organikoaren 5.1 artikulua horregatik ezartzen du tratamenduaren edo fitxategiaren inguruko puntu batzuei buruzko informazioa emateko beharra.

Adostasunak dituen ezaugarrien artetik bat nabarmendu nahi dugu: informatua izatea (eta hemen ikusten da adostasunaren eta informatua izatearen arteko lotura). Izan ere, informatua izan ezik,

nekez izango zelako argia edo berariazkoa. Gainera, kontsulta-egilea jabetzen da horretaz, galdera zehatza egin aurretik, berariaz aipatzen duelako informazioa.

DBLOk 5.1 artikuluan zehazten du gehiago adostasuna emateko orduan eman beharreko informazioa. Zehatzago esanda, a) letran agertzen da bi printzipio horien arteko harremana eta horien eta helburuaren printzipioaren artekoa. Izan ere, xedapen horrek xedatzen duenez, “interesdun bati datu pertsonalen bat eskatzen bazaio, aldez aurretik berariaz, zehatz eta argi azaldu behar zaizkio honakoak: datu pertsonalen fitxategi edo tratamendu bat dagoela, datuak zertarako bilduko diren eta zein izango diren informazioaren hartzaileak”.

Beraz, aipatu ditugun hiru printzipio horiek konbinatuta ondoriozta daiteke baten batek adierazi duen adostasuna baliokoa izateko, nahitaezkoa dela aurretiaz datu pertsonalek jasan behar duten tratamenduaren helburu “zehatz eta esplizituari” buruzko informazioa ematea.

Eta arazo gehienak hemen ikusten dira; izan ere, galderaren planteamenduari erreparatzen badiogu, ematen baitu datuen jabeek baimena edo adostasuna eman dezaten lortu nahi dela “beraiei buruzko informazio identifikagarria eta lokalizaziorako informazioa Aldundiaren eta bertako foru erakundeen eskumenekoak diren bestelako gestioetarako erabiltzeko”

Esan daiteke goiko paragrafoan azpimarratutako esamoldea ez datorrela bat datu pertsonalen babesaren funtsezko hiru printzipioetatik datozen betekizunekin, eta printzipio horiek azalduta daude irizpenean.

Aurreko guztiari gehitu behar zaio Irizpen honetako kontuan hartzekoen II. atalean esandakoa. Hau da, fitxategi batetik beste batera informazioa “pasatzen” denenean, kontuan izan beharko dela batzuetan ez dela nahikoa informazioa ematea, eta titularren adostasuna ere nahitaezkoa dela.

ONDORIOAK

1.- Kontsultan deskribatutako prozedura ezin da disoziazioztat jo, ez behintzat DBLOk eta lege organiko hori garatzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 EDk xedatzen dutenaren arabera.

2.- Disoziaziorik egin ezean, fitxategiek datu pertsonalak izaten segitzen dute. Beraz, fitxategiak bete-betean geratzen dira datu babesaren araudiaren menpe, eta nahitaezkoa da fitxategi horiek sortu, argitaratu eta erregistratzea.

3.- Adostasuna behar bezala eman dela ulertzeko, Irizpen honetako IV. puntuan ezarritako betekizunak bete beharko dira.

17. UDALERRIKO ARLO BATEN GARAPENAZ ARDURATZEN DEN SUSTATZAILEARI UDAL ERROLDAKO DATUAK LAGATZEA

XXXXXXKO UDALEKO XXXXXXK HONAKO GAIARI BURUZ EGINDAKO KONTSULTAREN GAINEKO IRIZPENA: UDAL ERROLDAKO ZENBAIT DATU ESKATUZ JASOTAKO ESKABIDE BAT.

CN08-030

AURREKARIAK

LEHENENGOA: 2008ko uztailaren 24an XXXXXKO Udaleko XXXXXEN idazki bat jaso genuen Datuak Babesteko Euskal Bulegoan. Idazki horren bidez, goian aipatzen den gaiari buruzko txostena eskatzen zen.

BIGARRENA: Kontsulta idazkian honakoa adierazten da:

“Udalerriko eremu bateko hirigintza garapenaz arduratzen den sustatzaileak unitate horretako zenbait higiezinetan erroldatuta dauden pertsonen zerrenda eskatu du.

Sustatzaileak eskabidea egin du hirigintzako araudiak dioelako lehenengo eta behin hango legezko bizilagunei beste etxe bat eskaintzeko programa bat aurkeztu behar dela, eta geroago, haiekin adostutako hitzarmenak eta akordioak ere bai. Esan behar da legezko bizilaguntzat jotzen dela hiri-antolamenduarekin bateraezinak diren higiezinetan bizitzeaz gain, bertan erroldatuta dagoen pertsona.

Arazoa sortu da Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak dioena kontuan hartuz gero, ezinezkoa delako Udal Erroldako datuak partikularrei lagatzea.

Horren aurrean, guretzat garrantzi handia du Bulegoaren iritzia, eta honekin batera bidaltzen dizuegu udal honetako Idazkaritza Orokorrek egindako txostena. Bertan azaltzen da gaia zehaztasun gehiagorekin”.

Idazkiari atxikita doakizue Idazkaritza orokorrak egindako idazkia.

HIRUGARRENA: Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17.1 artikuluko n) letrak honako eginkizuna esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

“Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkieten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkieten galderei erantzutea.”

Beraz, goiko arau hori kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egin diguten galderari erantzuteko txostena egitea.

KONTUAN HARTZEKOAK

I

Galderak berak adierazten duen bezala, XXXXXKO Udala kezkatzen duen gai honi erantzun ahal izateko, ezinbestekoa da udal errolda arautzen duen lege erregimenari erreparatzea, udalari eskatzen dizkieten datuak udal erroldan daudelako.

Udal erroldaren lege erregimena honako arau hauetan dago jasota nagusiki: Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen legearen 15., 16. eta 17. artikuluetan —TAOL aldatzen duen urtarilaren

10eko 4/1996 Legearen idazketaren arabera— eta Atzeritarrei buruzko azaroaren 20ko 14/2003 Legean.

Irizpen honen ondorioetarako, aipatzekoa da 16. artikulua, honakoa xedatzen baitu:

“1. Udalerriko errolda udalerriko auzotarrak jasota agertzen dituen administrazio-erregistroa da. Erroldako zehaztasunak udalerrian bizilekua izan eta bertan ohiko egoitza izatearen froga dira. Zehaztasun horien gainean emandako ziurtagiriak agiri publiko eta fede-emaileak izango dira administrazio-ondorio guztietarako.

Udalerriko erroldan inskribatzeak lege honetako 15. artikuluan xedatutakoaren arabera baino ez du izango eraginik, eta inskripzioa eragin duen gertaerak dirauen artekoa izango da; nolana ere, aldiro berriro beharko da, bi urtetik behin, bizileku iraunkorra izateko baimenik ez duten Europako Erkidegokoak ez diren atzeritarren inskripzioaren kasuan.

Aurreko lerroaldean aipatutako epea igarotzea, baldin eta interesatuak inskripzioa berriro ez badu, aldiro berriro behar diren inskripzioen iraungipena erabakitzeak arrazoi izango da. Kasu horretan, interesatuari alde aurretik entzun beharrik izan gabe aldarrikatuko da inskripzioaren iraungipena.

2. Udalerriko erroldako inskripzioan hauek dira nahitaez jaso beharreko zehaztasun bakarrak:

a) Izen-abizenak

b) Sexua.

c) Ohiko egoitza.

d) Naziotasuna.

e) Jaiolekua eta jaioteguna

f) Nortasun-agiri nazionalaren zenbakia; edo, atzeritarren kasuan: Espainiako agintariak emandakoa izan eta indarrean dagoen bizileku-txartelaren zenbakia, edo halakorik eduki ezean, jatorrizko herrialdeko agintariak eman eta indarrean dagoen nortasuna egiaztatzeak agiriaren edo pasaportearen zenbakia, bai Europar Batasuneko kide diren estatuetakoa herritarren kasuan, zein Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioan parte diren beste estatuetakoa herritarren kasuan, nahiz nazioarteko itunen baten indarrez aipatutako estatuetakoa herritarrentzat aurreikusitako araubide juridikoa zabaltzen zaien estatuetakoa herritarren kasuan.

Espainiako agintariak emandakoa izan eta indarrean dagoen agirian datorren atzeritar-identifikazioaren zenbakia, edo halako agirien titular ez direlako halakorik eduki ezean, jatorrizko herrialdeko agintariak eman eta indarrean dagoen pasaportearen zenbakia, paragrafo honetako aurreko puntuan jaso ez diren estatuetakoa herritarren kasuan.

g) Bakoitzak daukan eskolako ziurtagiria edo titulua, edo titulu akademikoa

h) Hautesle-errolda egiteko beharrezkoak diren beste zehaztasun guztiak, Konstituzioan onartutako oinarriko eskubideen errespetua bermatuta beti ere.

3. Udalerriko erroldako zehaztasunak doakionaren alde aurreko baimenik gabe emango zaizkie zehaztasunok eska ditzaten beste administrazio publikoei, bakoitzari bere eskumenak betetzeko beharrezkoak dituenen bakarrik, eta bizilekuari zein egoitzari dagokienez zehaztasunok esanguratsuak diren gaietarako soil-soilik. Balio dezakete, halaber, estatistikako isilekotasunaren menpeko estatistika ofizialak egiteko, Estatistikako Funtzio Publikoaren maiatzaren 9ko 12/1989 Legean eta gai horren gainean eskumenak dituzten autonomia erkidegoetako estatistika legeetan aurreikusitako eran.

Horretaz gain, gai honi buruzko doktrina jurisprudenziala ekarri beharra dago hona. Horren adibide ona da Audientzia Nazionaleko Administrazioarekiko Auzietarako Salaren 2006ko apirilaren 6ko Epaia. Hona hemen:

“Hara bada, egindako galdera argitzeko, udal erroldaren izaera juridikoa aztertu behar da lehenbiziz, honakoa aipatuz: udal erroldaren lege erregimena Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 15. artikuluan eta hurrengoetan dago araututa, baina urtarilaren 10eko 4/1996 Legeak emandako idazkera aintzat hartuta. Hori da “Udal errolda” fitxategia arautzen duen araudia, eta hori betetzeko, udalerriek legeak dioenaren arabera antolatu eta mantendu behar dute fitxategia.

Udalerriko errolda udalerriko biztanleak jasota agertzen dituen administrazio-erregistroa da. Erroldako zehaztasunak udalerrian bizilekua izan eta bertan ohiko egoitza izatearen froga dira. Zehaztasun horien gainean emandako ziurtagiriak agiri publiko eta fede-emaleak izango dira administrazio-ondorio guztietarako (7/1985 Legearen 16.1 artikulua, gerora 4/1996 Legeak aldatua).

Bestalde, lege horren 16.2 artikuluan daude zehaztuta zeintzuk datu inskribatu behar diren uda erroldan (eta horien artean daude izen-abizenak, sexua, helbidea, jaiotze lekua eta data, NAN eta titulu akademikoa).

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 16. artikuluko 3. artikulua baimena ematen du udal erroldako datuak lagatzeko beste administrazio publiko batzuei, halakorik eskatzen badute, eta ukituaren baimenik gabe gainera, baldin eta datu horiek beharrezkoa badira administrazio horiek beraien eskumenez balia daitezen, kontuan izanik beti ere egoitzaren edo helbidearen datua oso garrantzitsua izan behar dela. Era berean, estatistikako isilekotasunaren menpeko estatistika ofizialak egiteko lagatzeko baimena ere ematen du, maiatzaren 9ko 12/1989 Legearen eta arlo horretan eskumena duten autonomia erkidegoetako estatistika legeetan ezarritako baldintzekin.

Bestalde, 15/1999 Lege Organikoaren bigarren xedapen gehigarriaren bigarren atalaren arabera: “Populazioaren fitxategi eta erregistroen xedea izango da administrazio publiko bakoitzaren organoak eta kasuan kasuko lurraldeetan bizi diren interesdunak komunikatzea, Administrazio Publiko bakoitzaren eskumenek eratorri harreman juridiko administratiboak dagokienez”.

Datuak Babesteko Lege Organikoaren lege-agindu honek xedatutakoaren arabera, badirudi biztanleriaren fitxategiak edo erregistroak, eta horien artean dago udal errolda, administrazio publikoetako organo desberdinen eta herritarren arteko komunikazioaren osagaiak direla, eta ordenamendu juridikoak esleitutako eskumenen arabera erabili ahal izango direla ala ez.

Legezko arau horrekin bat, Sala eta Sekzio honen beraren 2001eko otsailaren 2ko eta 2001-11-9ko epaiak ezarri dute ezin dela onartu udal erroldako datuak jendearen eskurako iturri direla dioen tesia. Izan ere, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 legearen 16.3 artikulua aurreikusitako kasuak alde batera utzita, erroldako datuak konfidentzialak baitira. Urriaren 9ko 5/1992 Legeak (egungo DBLO) eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak arautzen dute datu horien atzipena. Gauza bera dioela ematen du Biztanleriaren eta Lurralde Mugapenaren Araudiaren 52. artikulua abenduaren 20ko 2612/1996 EDk emandako idazkeraren arabera.

2001eko otsailaren 2ko Epaiak honakoa xedatzen du (bosgarren oinarri juridikoan): Udal erroldako datuak konfidentzialak dira, erroldatuta dauden pribatutasunaren eremuko datuak jasotzen dituelako, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 16.2 artikulua irakurrita ondorioztatzen denez; artikulua horretan xedatzen baitira erroldan nahitaez jaso beharreko datuak. Datu horiek guztiak 5/1992 Legearen menpe daude, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 16.3 paragrafoan xedatutako salbuespen bakarrarekin, eta gorago idatzi dugu zein den. Ondorioz, eta 5/1992 Lege Organikoaren 11.1 artikulutik ondorioztatzen denez, erroldako datuak “laga ahal izateko, ezinbestekoa izango da lagatzailearen eta lagapen-hartzailearen eginkizun legitimoekin lotuta dauden helburuetarako izatea, eta interesdunaren alde aurreko adostasuna beharko da”. Eta azpimarratu behar da 5/1992 Legeak xedatutakoaren arabera, fitxategi bat kontsultatu ondoko datu eskuratzea datu-lagapentzat jo behar dela.

II

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 16. artikulua xedatzen duenarekin bat, "udal erroldako datuak" esamoldeak Udal erroldaren helburua behar bezala betetzeko erabiltzen diren datuei egiten die aipamena. Hona hemen erroldaren helburuak: pertsona jakin baten ohiko bizilekua eta egoitza zehaztea udalerrian eta bertako bizilaguna dela aitortzea pertsona horri, hartara, udalerriko biztanleak finkatzeko. Udal erroldako datuak hori ez den beste helburu baterako erabiltzeko, Datuak Babesteko Lege Organikoak xedatutakoa hartu behar da kontuan, eta ukituen adostasunaren adierazpena eskatzen du.

Datu babesaren arloko kontrol erakunde guztiek ia iritzi bera dute 16.3 artikulua xedatzen duenari buruz; izan ere, alde batetik uste dute bakar-bakarrik laga daitezkeela erroldaren helburu bera duten datuak (herritarren ohiko bizilekua eta egoitza zehatzea, bertako auzotasuna aitortzea norbaiti eta, azkenik, helbidea eta egoitza egiaztatzea; azken finean identifikazio datuak eta helbideari buruzko datuak dira, eta ez beste era batekoak). Beste alde batetik, uste dute datu horiek bakar-bakarrik laga daitezkeela lagapen-hartzailearen eskumen bat erabili ahal izateko, eta baldin eta egoitza eta bizilekua horretarako datu garrantzitsuak badira. Horrelakoetan, lagapen-hartzaileak egiaztatu egin beharko du horretarako eskumena duela eta erroldako datuak garrantzi handia duela eskumen hori gauzatzeko.

Beraz, datu-babesa kontrolatzen duten erakundeek biztanleen udal erroldaren lege erregimenetik eta aipatu dugun jurisprudentziatik atera duten ondorio garrantzitsuena da udal errolda datu-base bat dela eta lege-araubide propioa duela; eta, beraz, udal erroldaren gaineko berariazko legedi horrek finkatu dituela udal erroldaren egituraketaren ezaugarri funtsezkoenak, bertan dauden datuen komunikazioarenak barne (TAOLen 16.3 artikulua). Horren ondorioz, oro har erroldako datuak beste administrazio publiko batzuei lagako zaizkie, baldin eta datu horiek beharrezkoa badira administrazio horiek beraien eskumenez balia daitezen, kontuan izanik beti ere egoitzaren edo helbidearen datua oso garrantzitsua izan behar dela.

Azpiarratutakoari erreparatzen badiogu, esan behar da kontsulta-idazkia eta udaleko Idazkaritza Orokorraren txostena ondo ari direla kasu honetan TAOLen 16.3 artikulua xedatzen duela ezartzeko orduan zalantza agertzean.

Horago aipatu dugun interpretazioaren ildo beretik esan behar dugu Datuak Babesteko Euskal Bulegoak honakoa ondorioztatu duela:

"Beraz, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 16.3 artikulua xedatutakoa kontuan hartuta, bidezkoa da erroldako datuak lagatzeko beste administrazio publiko batzuei (ez, ordea, entitate pribatuei), baldin eta administrazio publiko horiek nahitaez behar badituzte haien eskumenez baliaitzeko, eta baldin eta helbidearen datua garrantzitsua den gai baterako bada".

Gainontzeko kontrol erakundeak ere bat datoz ondorio horrekin. Hona hemen Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren 0379/2007 Txostenak dioena:

"Era berean, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 16.3 artikulutik ondorioztatzen da udal erroldako datuak administrazio publikoei baino ezin izango zaizkiela komunikatu, eta orain arte aipatutako helmenarekin eta helburuetarako bakarrik; eta lege horrek ez duela ezelako baimenik ematen erroldako datuak pertsona edo erakunde pribatuei lagatzeko, kontsultan aipatzen den moduko erakundeei hain zuzen ere".

Ildo berekoa da Datuak Babesteko Madrileko Erkidegoko Agentziak 2008ko martxoko 32. zenbakiko "Datospersonales.org" aldizkari digitalean argitaratutako txostena. Txostenak ondokoa dio alokatutako etxebizitza bat eta erroldako datuen atzipenari buruzko kasu batean:

"Ondorioz, udal erroldako datuak ezin izango zaizkie laga partikularrei".

Orain arteko guztiarekin bat, eta egindako galdera zehatzari erantzunez, esan daiteke udal erroldako datuak dena delako sustatzaileari lagatzea ez dela TAOLen 16.3 artikularen arabera.

III

Edozelan ere, ez da pentsatu behar (hobeto esanda, ezin da pentsatu) goiko ondorio horrek hirigintza araudia betetzea oztopatuko duen traba gaindiezina denik, batez ere hirigintza-exekuzioaren esparruaz ari garela; ikusi bestela Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen zioen adierazpena eta bertan azpimarratzen den eraginkortasunaren printzipioa.

Zentzu horretan, ematen du ulertzen zaila litzatekeela lege bat aplikatzeagatik (TAOLen 16.3 artikulua) ezinezkoa izatea beste lege batean (Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea) jasotako lege aurreikuspenak betetzea.

Hori horrela izanik ere, Datuak Babesteko Euskal Bulegoak ez luke bere eginbeharra beteko, udal erroldako datuak sustatzaileari ezin zaizkiola laga esan eta kontua horrela utziko balu. Aitzitik, badirudi ahalegin berezia egin behar duela, interpretaziozkoa batez ere, konponbide egoki bat topatzeko eta lege mailako arauetan jasotako aurreikuspenak bete ahal izateko, oinarritzko eskubideari kalterik egin gabe.

Interpretaziozko ahalegina eginda, Bulegoa gaiari buruzko iritzia emateko moduan dago, nahiz eta bere eskumenetik eta jakintza esparrutik kanpo dauden gaiak izan. Beraz, udalaren erabakiei sor zaien begiruneaz eta dagokigun zuhurtziaz, esan behar dugu ondoko paragrafoetan aipatuko ditugun iritzien asmoa konponbide bat topatzen laguntzea baino ez dela, hirigintza-araudia oinarritzko eskubidea kaltetu gabe bete dadin.

Gure ustez, konponbidea topatzeko, bete nahi den legera jo behar dugu zuzenean, eta kontsultaren abiapuntua ere horixe bera da. Izan ere, Bulegoaren iritziz udal administrazioak modu aktiboan har dezake parte legezko bizidunen zerrenda egiteko zereginetan, sustatzaileari zuzenean datu lagapenik edo datu komunikaziorik egin beharrik gabe. Eta hori egin dezake, nahiz eta 2/2006 legearen 154.1 f) artikulua honakoa esan: “urbanizatzeko jarduketa-programen legezko eta hirigintzako edukietako bat dela jendea beste etxe batzuetara eramateko programa, halakorik behar izatekotan”, eta Legearen bigarren xedapen gehigarriko 3 a) puntuak beste hau esan: “legezko okupatzaileak dituzten etxebizitzak edo funtzionamenduan diren jarduera ekonomikoak daudenean, okupatzaile edo jarduera horiek plangintzarekin erabat bateraezinak baldin badira eta, dagokion plangintza xehatua edo urbanizatzeko jarduketa-programa egitean zerrenda batean jasoko dira okupatzaile eta jarduera horiek guztiak”.

Arlo honetan adituak ez garenez, zuhurtzia guztiekin esan behar dugu nahiko argi ikusten dela zein garrantzi handia duten kontsulta azaltzen den bezalako hirigintza jardueretan pertsona pribatuak, edo kasu honetan bezala, sustatzaileak.

Baina hori bezain argi ikusten da administrazioa ez dela jarduera horretatik kanpo dagoen edozein hirugarren, kontrara baizik, ikusi bestela legearen zioen adierazpenak dioena: “Plangintza egikaritzeko ardura, aurrerantzean, erakunde publikoena izango da erabat; (...)”. Horretaz gain, Legearen 2. artikularen arabera, “hirigintza eginkizun publikoa da” eta 4. artikulua “interes publikoaren nagusitasunaren printzipioa” ezartzen du.

Horrekin guztiarekin adierazi nahi da udaleko idazkaritzaren txostenak zera badio ere: “sustatzaileak edo hitzarmen-batzarrak ezinbestean jakin behar du zeintzuk diren beste bizileku bat jasotzeko eskubidearen titularrak, eta horretarako, jakin behar du unitatearen garapenarekin bateraezinak diren etxebizitzetan erroldatuta dauden pertsonak zeintzuk diren”, horrek ez duela esan nahi datu horiek jakiteko modu bakarra denik erroldatik zuzenean sustatzaileari datuak ematea; izan ere, operazio hori da, hain zuzen ere, TAOLen 16.3 artikulua dioenarekin bat ez da datorrena.

Bulego honen aburuz, badago gutxienez beste modu bat datuen berri izateko, baina artikulua horretan xedatutakoa urratu gabe.

Ondo ulertu badugu, alde batek eskatuta izapidetzen badira 153. artikulua aipatzen duen "Jendea beste etxe batzuetara eramateko programa" eta bigarren xedapen gehigarriak aipatzen duen "zerrenda", ulertu behar da eskatzaileak egindako eskabide bat egonez gero, nahikoa izango zela programa-proposamen bat izateko, eta horrek berak programa onartu aurreko espedientea izapidetzea ekarriko zuela.

Hori horrela bada, ez da eragozpenik ikusten udalak berak eraman dezan espedientera unitatearen garapenarekin bateraezinak diren etxebizitzetan erroldatutako pertsonen zerrenda. Horrela, zerrenda espedientean jasota egongo da eta sustatzailea interesdun legitimoa izango denez 30/1992 Legearen 37. artikulua arabera, datu-babesaren ikuspuntutik ez da oztoporik egongo sustatzaileak espediente osoa eskuratu dezan eta jakin dezan zeintzuk diren beste bizileku bat eskuratzeko eskubidea duten pertsonak; eta horrela, pertsona horiekin harremanetan jartzeko aukera izango du, dagozkion ondorioetarako. .

2/2006 Legearen 157 artikulua e) letrak dioena hartzen badugu kontuan -urbanizatzeko jarduketaren programa baten proposamena egin nahi duen edonork dituen eskumenak aipatzen dira hor-, eta hitzez hitz irakurtzen badugu dioena, ematen du hortik atera daitekeen ondorioa bat datorrela goiko paragrafoan adierazitako ikuspuntuarekin, hau da, zerikusi handiagoa duela herri administrazioen araubide juridikoarekin eta administrazio prozedurarekin, datu babesarekin baino.

Aurrekoari gehitu behar zaio datu babesaren ikuspuntutik eta TAOLen 16.3 artikulua ikuspuntutik ez dela eragozpenik ikusten udalak erroldako datuen tratamendu bat egin dezan, baldin eta hirigintza prozedura baterako bada, eta kontuan izanik udalak tratamendu hori bere eskumenen esparruan egiten duela argi eta garbi.

Azkenik, esan behar da 2/2006 Legearen 153. eta 154. artikuluek eduki tekniko eta hirigintzako edukia eta legezko eta hirigintzako edukia finkatzen duten arren, eduki hori programatik bertatik ere ondorioztagarria da -hau da, onartutakotik, nahiz eta hasieran onartua izan- eta ez aurkeztutako proposamenetik. Beraz, hori horrela bada, argi dago ez dagoela arazorik beste bizileku baterako eskubidea duten pertsonen zerrendaren berri izateko programa egiteko prozeduran zehar, eta ez da beharrezkoa ikusten programaren hasieran jakin behar izatea nahitaez. Hain zuzen ere, 155. artikulua xedatzen du zein dokumentu eduki behar duten programok, eta dokumentu horietako bat da "Partzelen planoa, eta jarduketaren xede diren ondasunen eta eskubideen titularren zerrenda", baina ez du inon zehazten nork aurkeztu behar duen dokumentazio hori, eta guztiz bidezkoa ematen du administrazioa bera izatea dokumentazio hori aurkeztu duena.

Beraz, formula hori erabiliz gero, bai administrazioak bai sustatzaileak, biek izango dute haien eskubideez eta betebeharez baliatzeko aukera DBLOk eta TAOLek xedatutakoa urratu gabe, aztertu dugun puntuan behintzat.

IV

Planteatu diguten galderaren gainean eman dugun interpretazioa ixteko, kontu handia izan behar da datuen kalitatearen eta helburuaren printzipioekin eta sekretu gorde behararekin.

Lehen printzipioa dela eta, DBLOren 4.1 artikulua zera dio:

"Datu pertsonalak jaso eta tratatu ahal izateko ezinbesteko baldintza da datu horiek egokiak, bereizleak eta neurrikoak izatea, datu bilketaren eremuarekiko eta datu bilketaren helburu zehatz, esplizitu eta legitimoekiko".

Operazio honek jomuga duen helburuari erreparatzen badiogu, eta kontsultari atxikitako txostenean aipatzen den hirigintza arloko araudia kontuan hartuta, eta erroldan zein datu pertsonal dauden ikusita, udalak bakar-bakarrik tratatu ahal izango ditu, arlo honetako araudiaren arabera,

beste bizileku baterako eskubidea duten pertsonak identifikatzeko eta lokalizatzeko balio duten datuak, ez besterik.

Era berean hona DBLOren 4.2 artikulua helburuaren printzipioari buruz dioena:

“Tratatu beharreko datu pertsonalak ezin izango dira erabili datu horiek biltzeko ezarri ziren helburuekin bateraezinak diren bestelako helburuetarako. Ez dira joko helburu bateraezintzat datu horiekin gero egiten diren tratamenduak, helburu historiko, estatistiko edo zientifikoetarako badira.”

Printzipio hori eta aipatutako hirigintza arloko araudia kontuan hartuta, sustatzaileak datu-tratamendu aukera bakarra du eta da 2/2006 Legeak aurreikusitakoa betetzea.

Horretaz gain, printzipio horrek eskatzen du datu-komunikazioaren oinarrian dagoen helburua benetan eta zehatz bete nahi bada, datu horien komunikazioa eten egin beharko dela, bestelako izaera juridikodun erakunderen batek erabili ez ditzan eta hirigintza arloko araudiak sustatzaileari esleitzen dizkion jarduerak ez diren beste batzuetarako erabil ez ditzaten.

Azkenik, DBLOren 10. artikulua dioena ekarri behar dugu gogora. Hona hemen sekretu gorde beharraz dioena:

“Fitxategiaren arduradunak eta izaera pertsonaleko datuen tratamenduaren edozein fasetan parte hartzen dutenek lanbide-sekretua izan behar dute nahitaez datu horien gainean, eta datu horiek gordetzeko egin beharra ere izango dute. Betebehar horiek bere horretan iraungo dute, nahiz eta fitxategiaren titularrekin edo, hala denean, arduradunarekin dituzten harremanak amaituta izan.”

Printzipio horietatik zein betebehar eratortzen diren ikusita, Bulegoaren iritziz komenigarria izango zen betebehar horiek berariaz finkatzen dituen dokumentu bat sinatzea udalaren eta sustatzailearen artean. Bi aukera egon daitezke horretarako: bata da berariaz horretarako idatzitako dokumentu bat izenpetzea. Eta bestea da, udalaren eta sustatzailearen arteko harremanak arautzen dituen dokumenturik baldin badago, operazioaren baldintzak zehazteko beste klausula batzuk eranstea lehendik dagoen dokumentu horri.

ONDORIOA

Xxxxxxko udalak egiten duen datu-tratamenduak datu-babesaren arloko legediaren arabera izango da, txosten honetan jasotako baldintzen arabera egiten bada.

18. ERIZAINEN ELKARGO OFIZIAL BATEK OSASUN ERAKUNDEETAKO PLANTILLETAKO ERIZAINEN ZERRENDETAN SARBIDEA IZATEA

XXXXXXKO ERIZAINEN ELKARGO OFIZIALEKO LEHENDAKARIAK HONAKO GAIARI BURUZ EGINDAKO KONTSULTAREN GAINEKO IRIZPENA: ERIZAINEN ZERRENDAK LAGATZEKO ESKABIDEAK.

CN08-038

AURREKARIAK

LEHENENGOA: 2008ko azaroaren 4an Xxxxxxko Erizainen Elkargo Ofizialeko lehendakariaren idazki bat jaso genuen Datuak Babesteko Euskal Bulegoan. Idazki horren bidez, goian aipatzen den gaiari buruzko txostena eskatzen zen.

BIGARRENA: Kontsulta idazkian honakoa adierazten da:

“Elkargo honek ondoko eginkizunak ditu, hala xedatzen baitute otsailaren 3ko 2/1974 Legeak (5. artikulua) eta profesionalen elkargoei buruzko Euskal Autonomia Erkidegoko legeak (24. artikulua), besteak beste:

- Elkargokideek lanbidean nola jardun arautzea, dagokion esparruan, etika profesionala eta duintasun profesionala zainduz eta partikularren eskubideei zor zaien begirunearekin jokatzuz, eta diziiplina-ahalmena erabiltzea lanbidearen eta elkargoaren esparruan.
- Administrazio publikoei denon interesak lortzen laguntzea.

Profesionalen elkargoei:

- Administrazio-organoetan parte hartzea, partaidetza hori organoen arauetan erabakita baldin badago, eta, betiere, arau horietan zehazten den moduan.

-Dagozkion organo eta erakundeek eskatzen dizkieten txostenak eta beren ekimenez egin nahi dituztenak egitea.

- Lege orokorrak nahiz bereziak, estatutu profesionalak nahiz barne araubideri buruzko erregelamenduak eta elkargoko organoek, haien eskumeneko gaien gainean hartutako arau nahiz erabakiak betetzea eta betearaztea elkargokideei.

Xxxxxxko Erizaintzako Diplomatuen Elkargo Ofizial honek behin baino gehiagotan jasan behar izan du osasun arloko erakunde publikoek nahiz pribatuak erakunde horietako plantilletan dauden erizainen zerrendak ukatu izana. Zerrendak ukatzeko erabili ohi den arrazoi orokorra da “Datu Pertsonalak Babesteko 15/1999 Lege Organikoak xedatutakoa kontuan hartuta” ezinezkoa dela guri informazio hori ematea.

Eskabide hori egiten dugu elkargokideen interes profesionalak babesteko betebeharra dugulako. Zehatzago esateko, zerrendak eskatzen ditugu ondo kontrolatu behar dugulako Gipuzkoan erizain lanetan ari diren guztiek titulua dutela (eta/edo beste herrialde batzuetakoak badira, haien titulazioak behar bezala homologatuta daudela), eta horrela, intrusismo profesionalaren aurka egin. Bestalde, uste dugu erakunde publiko nahiz pribatuak bat datozela helburu horrekin.

Arreta handiz irakurri dugu DBEBk egindako CN06-002 Irizpena eta uste dugu bertan Xxxxxxko Abokatuen Elkargo Ofizialak egindako kontsultaren gainean ematen diren arrazoiak guztiz ezargarriak direla gure aldarrikapenetan. Hona hemen gure aldarrikapenak:

...

Datuak Babesteko Euskal Bulegoari eskatzen diogu irizpen bat egin dezan, eta bertan elkargo honek duen eginkizun publikoa argi uzteaz gain, elkargoaren eskaera ere legezkoa eta legitiinoa

dela ere aitortzea; eta horren ondorioz, erakunde pribatuek nahiz publikoek nahitaez helarazi behar izatea Elkargoari aipatutako helburuetarako eskatzen diegun informazioa.”

HIRUGARRENA: Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17,1 artikuluko n) letrak honako eginkizuna esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

“Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkieten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkieten galderei erantzutea.”

Beraz, goiko arau hori kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egin diguten galderari erantzuteko txostena egitea.

KONTUAN HARTZEKOAK

I

Planteatutako kontsultaren edukia eta helburua ikusita, eta goiko lege-aurreikuspenak Bulegoari esleitzen dion eskumena kontuan hartuta, komenigarritzat jotzen da beste ezeren aurretik, Bulegoak eman dezakeen erantzunak izan dezakeen helmenaren gaineko ohar bat egitea.

Hain zuzen ere, jaso dugun idazkiaren azken paragrafoari erreparatzen badiogu, ikusten da bertan eskatzen dela Bulegoak irizpen bat eman dezan, besteak beste, argi uzteko elkargoak eskatzen duen informazioa bidaltzea “nahitaezkoa” dela; horren aurrean Bulegoak esan behar du ezin duela iritzirik eman, elkargoak eskatu duen informazioaren bidalketa dela-eta, tartean dauden erakundeek informazioa bidaltzeko duten “obligazioaz”.

Planteatu diguten kasuan Bulegoak bakar-bakarrik esan dezake kontsulta-egileak egindako eskaerari erantzuteagatik egiten diren edo egin daitezkeen datu lagatzeak datu pertsonalak babesteari buruzko araudiaren arabera diren ala ez. Aitzitik, Bulegoak ezin du esan informazio hori lagatzea nahitaezkoa den ala ez; halako obligaziorik egonez gero, beste araudi batean bilatu beharko delako.

Izan ere, BDLOra jotzen badugu, beste gauza batzuen artean eta guri interesatzen zaiguna kontuan hartuta, datu pertsonalen lagapenari buruzko lege-araubidea ikus dezakegu bertan. Han dago jasota lagapenak noiz egin daitezkeen eta zein printzipio eta arau bete behar dituzten. Baina arau horretan ezin da topatu derrigorrezko datu-lagapenei buruzko araubiderik.

DBLOren 11. artikulua xedatutakoa ikusi behar da lagapen horien printzipio nagusiaz jabetzeko; artikulua xedatzen duenez, lagapenak egitea aukerakoa da, ez da obligazioa: “datu pertsonalak hirugarren bati komunika dakizkioke soil-soilik ...”.

Beraz, Bulego honek ezin du esan informazio eskea jaso duten erakundeek elkargoak eskatutako informazioa emateko obligaziorik duten ala ez. Hori eginez gero, erakunde horiek duten erabakitze ahalmenetan sartzen egongo litzatekeelako eta erabakia hartzeko ahalmena erakunde horiena delako, ez beste inorena; eta kontuan izan behar da gainera, erabakiak hartzeko eskumenaz baliatzeko araudiak ez duela zerikusirik datu pertsonalak babesteko araudiarekin, beste arlo bateko legediarekin baizik. Bulego hau, ordea, ez da beste, araudi horretan aditua.

II

Planteatutako gainontzeko gaiei buruz antzeko zerbait esan beharrean gaude (“elkargo honek duen eginkizun publikoa argi uzteaz gain, elkargoaren eskaera ere legezkoa eta legitimoa dela ere aitortzea”).

Kontsultak Elkargoaren “funtzio publikoa” ere aipatzen du. Bulegoak horretaz gehienez egin dezakeena da jurisprudentziak eta doktrinak horren gainean esandakoa biltzea. Eta eskabidearen legezkotasunari eta legitimotasunari buruz esan behar da datuak nahitaez emateari buruzko gai bera dela, baina beste alderdi batetik ikusita.

Edozelan ere, Bulegoak uste du ez lukeela bere eginkizuna beteko, aurreko guztia azaldu eta kontua bere horretan utziko balu, besterik gabe.

Arrazoi horregatik, baina zuhurtziaz eta kontu handiz jardunda -gaian aditua ez izateaz gain, ez dakigulako zehatz zer gertatu den eta zergatik ukatu dituzten behin baino gehiagotan eskatutako zerrendak-, Bulegoak badauka jarraibide orokor batzuk ematea (argi utzi nahi dugu zuhurtziaz eta kontu handiz egiten dugula hori), baina beti ere kontuan izanda Bulegoari dagokion ikuspuntutik ematen dituela, hau da, datu pertsonalen babesaren ikuspuntutik.

Zentzu horretan, kontsultaren planteamenduan aipatzen den txosteneko doktrinatik abia gaitezke, gai berari buruz beste kontrol-erakunde batzuk egindako txostenek ere eduki bera dutela eta jurisprudentzia bera berresten dutela ikusirik.

Korporazio publikoek duten izaera da doktrina horren abiapuntua, berezia baita.

Hona Auzitegi Nazionalaren 2007ko ekainaren 12ko Epaiak dioena:

Profesionalen elkargoak administrazio korporatibo izenez ezagutzen den administrazioaren baitan daude; hau da, izaera mistoko administrazioak dira, batetik, profil publiko garbia dutelako, eta bestetik, interes pribatuak ere badituztelako oinarrian. Horregatik, administrazio korporatiboak erakunde pribatu eta publikoen arteko muga daude. Administrazio korporatiboak duen izaera bereziak lege-araubide mistoa dakar, zuzenbide publikoko arauekin eta esparru pribatukotzat jo beharreko arauekin.

Konstituzio Auzitegiak ere hainbat aldiz eman du entitate horien izaera bereziari buruzko irizpena. Adibidez, 1988ko otsailaren 18ko KAEK honako dio:

«Auzitegiak behin baino gehiagotan adierazi duenez (abuztuaren 5eko 76/1983, otsailaren 20ko 23/1984 eta uztailaren 15eko 123/1987 Konstituzio Auzitegiaren epaiak), profesionalen elkargoak korporazio sektorialak dira, eta korporazioko kideen interes pribatuak defendatzeko eratzen dira batez ere. Baina interes publikoko helburuak ere badituztenez, pertsona juridiko-publiko edo zuzenbide publikoko korporazio gisa eratzen dira legez. Bestalde, korporazio horien jatorria, antolaketa eta eginkizunak ez daude bakarrik korporazioko kideen esku, batez ere legegileak emandako nahitaezko izendapenetan daudelako. Legegileak oro har lurralde-administrazioen berezko betekizun berak esleitzen dizkie, edo lurralde-administrazioei korporazio horien lankidetzak eskuratzen uzten die, administrazio-eskumenen eskuordetzen bidez. Horren ondorioz, korporazioak lurralde-administrazioen mendearen edo babespean jartzen ditu, lurralde-administrazioak direlako korporazioek baliatzen dituzten eginkizun edo eskumenen titularrak».

Argi dago elkargo profesionalen helbururik behinena bertako kideen interes pribatuen alde egitea dela. Hala ere, korporazioek badute osagai publikoren bat. Osagai horiek bi tokitatik datoz: batetik, korporazioen sorreratik, hau da, korporazioen egitura organikoa arautzen duen Estatuaren botere ekintza batetik; eta bestetik, korporazioei helburu edo eginkizun publikoak esleitzetik; Izan ere, Konstituzio Auzitegiak dioenez, helburu edo eginkizun publiko horiez baliatzea lurralde-administrazioen eginkizunez baliatzea bezala da, edo, bestela, korporazioek egiten dutena da lurralde-administrazioekin lankidetzan aritu lurralde-administrazioenak diren eginkizunetan.

Beraz, ondoko paragrafoan jaso dugu, oro har, datu babesaren ikuspuntutik ateratzen den ondorioa. Kontsulta-idazkian aipatzen den irizpenean ere gauza bera esan zen.

Beraz, oro har esan daiteke datu pertsonalen fitxategi / tratamendu batzuk elkargoek duten izaera publikoarekin lotutako eginkizunekin zerikusia dutela eta elkargoen zuzenbide publiko

eskumenekin lotuta daudenez, administrazioaren lege erregimenaren menpe daudela. Horrelako fitxategien artean dago, izaera orokorrarekin, honako hau:

- Elkargokideen/profesionalen fitxategia. Lanbidean nola jardun arautzeko funtzio publikoaz baliatzea.

Zehatz esanda, erakunde kontsulta-egileak Datuak Babesteko Euskal Bulegoan erregistratu zuen ondoko fitxategi hau sortu eta argitaratu zuen: "Elkargoko Erroldaren Fitxategia". Fitxategiaren helburua honako da: "legeek eta estatutuek elkargoari esleitutako helburuak eta eginkizunak betetzea". Bestalde, Erizaintzako Diplomatuaren XXXXXXko Elkargo Ofizialaren estatutuen 39. artikulua xedatzen du fitxategi hori sortzea nahitaezkoa dela (2004ko apirilaren 20ko 73. zk.ko EHAA; 2005eko urtarrilaren 18ko 11. zk.ko EHAA, hutsen zuzenketena).

Datu babesaren ikuspuntutik abiatuta, fitxategi horren ganean esan behar da Elkargoak benetako administrazio publikoa balitz bezala jarduten duela, eta, beraz, bertako datuen tratamendua ere gauzatu egin behar duela, esleituta dauzkan interes publikoko helburuak bete nahi baditu (batez ere, elkargoko lanbidearen antolamendua), horretarako, indarrean dagoen legediak esleitzen dizkion administrazio-ahalez baliatuz edo dagokion lurralde-administrazioak eskuordetzan emandakoez baliatuz.

Hori horrela izanik, fitxategian dauden datuen jatorria hartu behar da kontuan, eta hori ikusita esan behar da DBLOren 6.2 artikulua ezarri behar dela, guri interesatzen zaiguna kontuan hartuta, honakoa xedatzen duelako: "Ukituaren adostasunik ez da behar izango izaera pertsonaleko datuak Administrazio Publikoek euren eskumenen esparruan dagozkien eginkizunak gauzatzeko biltzen direnean".

Ondorioz, eta erakunde kontsulta-egilearen ikuspuntutik begiratuta, fitxategi horretan dauden datu pertsonalak "biltzeko", ez da beharko datuen titularren adostasunik.

Balizko datu-lagatzaileen ikuspuntutik begiratuta, ordea, datuen lagapenak honako legeen babesa izango du: Elkargo Profesionalak arautzen dituen otsailaren 13ko 2/1974 Legea eta Tituludun Lanbideei eta Profesionalen Elkargo eta Kontseiluei buruzko azaroaren 21eko Eusko Legebiltzarraren 18/1997 Legea.

Azken ondorio hori berretsita geratzen da, gure ustez, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa garatzen duen Erregelamendua onartzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuaren 10.2 artikulua dioenari erreparatuz gero. Hona hemen:

"Dena den, aukera egongo da datuak tratatu eta besteri uzteko ere, nahiz eta interesatuak horretarako baimenik eman ez, ondorengo kasuetan:

- a) Lege mailako arau batek edo zuzenbide komunitarioko batek hori egitea baimentzen badu, eta bereziki ondorengo egoeretakoren bat gertatzen bada:

Datuak tratatzearen edo besteri uztearen helburua tratamenduaren erantzulearen edo datuak hartu dituenaren legezko interesa betetzea bada, hain zuzen ere goian aipatutako arau horiek babestutako legezko interesa, baina baldin eta interesatuen interesa edo oinarritzko eskubide eta betebeharrak gailentzen ez badira, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 1. artikuluan esaten denaz bat"

Horretaz aparte, Bulegoak ez du ikusten (berriro adierazi nahi dugu, gure ustea guri dagokigun esparrutik ematen dugula) aurreko ondorioak alda daitezkeenik, nahiz eta balizko lagatzaileak izaera publikoa ala pribatua izan, eta nahiz eta behin eta berriz aipatu dugun fitxategian administrazio publikoetatik datozen datuak edo interesdunak berak edo bere legezko ordezkariak emandakoak baino ezin diren jaso.

III

Planeatu diguten kasu konkretuan, eta erizaintzako diplomatuen lanbideak dituen berezitasuna kontuan hartuta, kontuan hartzekoen ataletan aipatu diren arauz gain, Lanbide Sanitarioak Antolatzen dituen azaroaren 21eko 44/2003 Legea ere hartu behar da kontuan.

Lege horren 5. artikuluko 2. atalean profesional sanitarioen eta pertsonal sanitarioak atenditzen dituzten pertsonen arteko harremanei buruzko printzipio orokorrak daude jasota:

Aurreko paragrafoan aipatutako eskubideak benetan gauzatu eta erabil daitezzen ziurtatzeko, elkargo profesionalak, batzorde autonomikoak eta batzorde orokorrek profesionalen erregistro publikoak eratu beharko dituzte, bakoitzak berari dagokion lurralde esparruan. Eta lege honen arabera, erregistro horiek herritarren eskura egongo dira eta osasun arloko administrazioek ere eskuragarri izango dituzte. Erregistro horiek ezargarria den araudian finkatutako konfidentzialtasun printzipioak bete beharko dituzte bertako datu pertsonalekiko eta aukera eman beharko dute honako datuak jakin daitezzen: izena, titulazioa, espezialitatea, non aritzen den lanbidean eta legearen arabera publikoak diren bestelako datu guztiak.

Lege-agindu horrek berretsi egiten du lehenago aipatu dugun ondorioa, hau da, gure ustez zentzuzkoa ematen duela legearen aurreikuspen horrek (azpimarratu nahi dugu lege batek xedatu duela) behar bezalako babesa ematen diola, datu pertsonalak babestearen ikuspuntutik, hain zuzen ere, lege-aurreikuspen hori betetzeko behar den datu-lagatzeari.

Irizpenaren hasiera-hasieratik ahalegindu gara argi uzten beste kontu bat dela zein mekanismo edo bitarteko erabiliko den zehatz-mehatz legean aurreikusitakoa betetzeko behar diren datu komunikazioetarako.

Ildo horretan, Giza Baliabideen eta Ekonomia eta Aurrekontu Zerbitzuetarako Zuzendaritza Orokorraren Ebazpen baten bidez argitaratu zen Profesional Sanitarioen Erregistroei buruzko Osasun Sistema Nazionaleko Lurralde arteko Batzordearen Erabakiak dioena ekarri behar dugu hona:

Batzorde orokorrak badira, Estatuak finkatuko ditu bertako profesionalen erregistro publikoen gutxieneko irizpide eta betekizunak. Profesionalen elkargoak edo batzorde autonomikoak badira, ordea, autonomia erkidegoek finkatuko dituzte. Era berean, autonomia erkidegoek finkatu beharko dituzte hitzartutako osasun zentroen eta osasun zentro pribatuen erregistro publikoen gutxienezko irizpideak eta betekizunak, bai eta gaixotasunen esparruan ari diren aseguru entitateenak ere. Eta horretarako ondoko printzipio orokorrak bete beharko dituzte.

Bulegoak dakiela gutxieneko irizpide eta betekizun horiek ez daude finkatuta, eta Bulegoa ez da horretan sartu behar. Gehienez ere, Erabakiarekin bat datorrela esan dezake eta han xedatutakoaren arabera “datu pertsonalak babesteari buruzko araudia bete beharko dutela”, eta, ondorioz, datu babesaren arloko araudian jasota dauden printzipioak eta erregelak bete beharko dituztela.

ONDORIOAK

Erizaintzan diplomatutako profesionalen datuak profesionalen elkargoari komunikatzea datu pertsonalak babesteari buruzko araudiaren arabera da, hala xedatzen baitu Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 11.2a) artikulua.

19. URAREN KANONA. ENPRESA HORNITZAILEEK DATUAK LAGATZEA

XXXXXX ERAKUNDE PUBLIKOAK EGINDAKO KONTSULTA HONEN GAINEKO IRIZPENA: EA LEGEZKOA DEN ENPRESA HORNITZAILEEK XXXXXI DATUAK LAGATZEA.

CN08-042

AURREKARIAK

LEHENGOA: 2008ko azaroaren 7an XXXXXk aurkeztutako idazki bat jaso genuen Datuak Babesteko Euskal Bulegoan. Hona hemen idazkiak zioena:

“Urari buruzko ekainaren 23ko 1/2006 Legeak dioena betez, Uraren Kanonaren Araubide Ekonomiko-finantzarioaren Araudia onartzen duen Dekretua izapidetu da eta aurreikusi da 2009ko urtarrilaren 1ean sarduko dela indarrean.

Uraren kanona Euskal Autonomia Erkidegoko zerga bat da eta Euskal Autonomia Erkidegoan eginiko uraren kontsumo erreal edo potentziala kargatzen du, ur hori erabiltzeak ingurunean izan dezakeen eraginagatik. Proiektua 2008ko azaroaren 4ko Gobernu Batzordean onartuko dute, eta honekin batera doakizue kopia bat. Dekretu hau bi sail hauen artekoa da: Ogasun eta Herri Administrazio Saila eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila.

Dekretuaren ondorioz, hirugarrenen bidez egingo den kudeaketa sistema bat eratuko da, eta horren eraginez, erakunde hornitzaileek kanona kobratzeko behar dituzten datu guzti-guztiak jaso beharko dituzte fakturretan. Faktura horiek autolikidazio izaera izango dute.

Kanona kobratzeko kudeaketa-agindu honen ondorioz, erakundeek uraren kanonari buruzko datuak—kobratutakoenak eta ordain gabeenak— bidali beharko dizkiete Agentziari, sei hileroko eta urteroko aitortpenen bidez, kontuan izanik premiamendu bidez kobratzea Ur Agentziari dagokiola. Premiamendu bidezko kobraketa Finantza Zuzendaritzarekin hitzartu da, eta, horretarako behar diren datuak Ur Agentziatik bidaltzen zaizkio SIPCA sistemara konektatutako zenbait aplikatiboren bidez.

Dekretuak dioenez, erakunde hornitzaileek honako datu haiek bidali behar dituzten Ur Agentziara: subjektu pasiboa identifikatzeko datuak, kontsumitutako kopurua edo metro kubikoak, salbuetsitako metro kubikoen kontzeptua eta kopurua, ezarritako hobarien kopurua eta portzentajea eta karga mota, eurotan eta metro kubikotan adierazita.

Dekretua izapidetzen ari zela zenbait erakunde hornitzailek hainbat alegazio aurkeztu zituzten. Alegazio horietan Ur Agentziari datuak lagatzearen inguruko zalantzak adierazi zituzten. Zalantza horiei honako erantzuna eman zitzaion:

Zergei buruzko abenduaren 17ko Lege Orokorraren 95.4 artikulua honakoa xedatzen du: “Aurreko artikuluan xedatutakoa (93. artikuluan dago xedatuta informazioa emateko obligazioa), artikulua bereko aurreko ataletan xedatutakoa (informazioa emateko eta laguntzeko betebeharra duten agintaritzak) edo lege mailako beste arauen batek dioena betez, Zerga Administrazioari egin beharreko datu lagatzeak ez dutela behar ukituaren adostasunik. Esparru honetan ez da ezarriko Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Legearen 21. artikuluko 1. paragrafoan xedatutakoa.

Informazioa eskuratu arren, erakunde hornitzaileek ez dute argi Dekretuak agintzen dien datu-lagatzea zilegi ote den. Beraz, horregatik eskatzen diogu Datuak Babesteko Euskal Bulegoari irizpen bat eman dezan erakunde horiek eginbeharreko jarduerak Datuak Babesteko Legearen araberrakoa direla esanez.”

BIGARRENA: Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17.1 artikuluko n) letrak honako eginkizuna esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

“Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkieten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkieten galderei erantzutea.”

Beraz, goiko arau hori kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egin diguten galderari erantzuteko txostena egitea.

GOGOETA JURIDIKOAK

I

Lehenengo eta behin uste dugu erakunde kontsulta-egilearen izaera juridikoa aztertu behar dela: Uraren Euskal Agentzia Eusko Legebiltzarren ekainaren 23ko 1/2006 Legearen bidez sortu zen. Hona Legearen 5. artikulua xedatutakoa:

“Uraren Euskal Agentzia sortzen da. Zuzenbide pribatuko erakunde publikoa izango da, nortasun juridiko propioa izango du, eta jarduteko erabateko gaitasuna bere eginkizunak betetzeko. Eusko Jaurlaritzan ingurumenaren arloko eskumenak dituen sailari atxikirik egongo da, eta lege honetan eta bere estatutuan xedatutakoaren arabera jardungo du; estatutu hori Eusko Jaurlaritzaren dekretu baten bidez onartuko da, ingurumenaren arloko eskumenak dituen sailak proposaturik”.

Uraren Euskal Agentziaren eginkizunak Legearen 7. artikuluan daude xedatuta. Guri dagokigunerako, j) letran finkatutakoa da azpimarragarriena:

“Indarrean dagoen araudiaren arabera ezarri beharreko kanon eta zergei buruzko azterketa eta txostena egitea.”

Bestalde, Legearen 42. artikuluan finkatzen da kanona; eta artikulua beraren arabera, Uraren Euskal Agentzia izango da kanonaren subjektu aktiboa.

“Uraren kanona sortzen da, honako helburu hauekin: ur-ingurunea babestea, lehengoratzeta eta hobetzea; administrazio eskudunen arteko lankidetzeta sortzea, horniketa- eta saneamendu-zerbitzu eraginkorrak lortzeko; eta lurraldeen arteko elkartasuna erdiestea. Uraren Euskal Agentziak kudeatuko du kanon hau.”

Legearen 48.3 artikulua zerga hori kudeatzeko ardura emateko aukera jasotzen du:

“3. Erabiltzaileak urez hornitzen dituzten erakundeen ardura izango da uraren kanona kudeatzea eta biltzea, lege honetan eta berau garatzen duen erregelamenduan ezarritako baldintzetan. Orobat, modu solidarioan erantzungo diote uraren behe-horniketa erabiltzen duten pertsona edo erakundeei uraren kanona dela-eta exijitu behar izan dizkieten kopuruak sartu beharriari”.

Uraren Euskal Agentziaren izaera juridikoa aztertu eta gero, ikusi da, irizpen honen ondorioetarako, Agentziaren eginkizunik behinena, bai eta uraren kanona lege sortzea ere; beraz, ezinbestekoa da ekainaren 23ko 2/2006 legearen 52. artikulura jotzea, uraren kanona fakturatzeta eta kobratzeari buruzkoa baita.

“1. Erakunde hornitzaileek Uraren Euskal Agentziaren izenean eta horren kontu kobratu behar diete beren abonatuak uraren kanonari dagokion zenbatekoa, eta, horretarako, zenbateko hori fakturan bertan sartuko dute. Eta, sei hilean behin, kanon hori Uraren Euskal Agentziari aitortu eta kitapena egin beharko dute, nahitaez.

2. Uraren Euskal Agentziak, egoki jotzen bada, zuzenean kita diezaieke kanona erabiltzaileei.

3. Dagokion agirian uraren kanon gisa sartuta egonda erabiltzaileek ordaindu ez dituzten zenbatekoak Uraren Euskal Agentziari jakinarazi eta agiri bidez frogatu behar dizkiote erakunde hornitzaileek, erregelamenduz ezartzen diren moduan eta epeetan. Zenbatekook zuzenean exijitu behar dizkie Uraren Euskal Agentziak erabiltzaileei, zergei buruzko legeriarekin bat etorriz".

Horretaz gain, Uraren Kanonaren Araubide Ekonomiko-finantzarioaren Araudia onartzen duen Dekretuaren 18. artikulua Legearen 48.3 artikuluan xedatutakoa zehatzen du. 18. artikulua komunikazioaren betebeharrari buruzkoa da.

"Ura hornitzen duten erakundeek Uraren Euskal Agentziari komunikatu beharko diote ez dela uraren kanona ordaindu, ordaindu ez denetik hiru hilabeteko epean.

Komunikazio horretan, ezartzen den ereduaren arabera, subjektu pasiboak eta beren helbideak identifikatuko dira jakinarazpenak egiteko, eta uraren kanona ezartzeko aurreikusitako datuak ere bai:

- a) Dagokion denboraldian fakturatutako metro kubikoen kopurua.
- b) Salbuetsitako metro kubikoen kontzeptua eta kopurua.
- c) Hobaria eman zaien metro kubikoen kontzeptua, ehunekoa eta kopurua."

Beraz, badago datuak lagatzeko legezko gaikuntza bat, eta azaroaren 4ko 181/2008 dekretuak finkatzen du gainera. Ondorioz, datuen titularren adostasuna eman behar dutela dioen betekizuna ez da nahitaezkoa izango, badagoelako Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege organikoak eskatzen duen salbuespeneko lege-aurreikuspen bat. Hona hemen 15/1999 Lege Organikoaren 11. artikuluko 1. idatz-zatiak eta 2. idatz-zatiko a) letrak diotena:

"1. Tratatu beharreko datu pertsonalak hirugarren bati komunikatu ahal izateko, ezinbestekoa izango da lagatzailearen eta lagapen-hartzailearen eginkizun legitimoekin lotuta dauden helburuetarako izatea, hau da, bakar-bakarrik horretarako izatea, eta interesdunaren alde aurreko adostasuna beharko da.

2. Aurreko paragrafoan aipatutako adostasuna ez da beharrezkoa izango honelako kasuetan:
Lege batek baimentzen badu lagapena".

II

Lagapena egiteko baimena ematen duen legen bat dagoen arren, berdin-berdin hartu behar dira kontuan datu babesaren arloko gainontzeko printzipioak. Printzipio horietako bat datuen kalitatearen printzipioa da, eta segidan azalduko dugu zertan datzan.

Datu pertsonalen tratamendu guztiek bete behar dute datuen kalitatearen printzipioa. Printzipio hori DBLOren 4. artikuluan dago jasota eta artikulua horren lehenengo idatz-zatia nahitaez aipatu beharra dago:

"1. Datu pertsonalak jaso eta tratatu ahal izateko ezinbesteko baldintza da datu horiek egokiak, bereizleak eta neurrikoak izatea, datu bilketaren eremuarekiko eta datu bilketaren helburu zehatz, esplizitu eta legitimoekiko".

Zeintzuk datu laga behar diren aztertzen badugu —datuak azaroaren 4ko 181/2008 Dekretuaren 18. artikuluan daude finkatuta—, honakoak direla ikusiko dugu:

Ordaindu behar duenaren identifikazio datuak, helbidea, fakturatutako metro kubikoen kopurua, salbuetsitako metro kubikoen kontzeptua eta kopurua, eta hobaria eman zaien metro kubikoen kontzeptua, ehunekoa eta kopurua.

Kontuan hartzen badugu datu-lagapenaren helburua premiamenduzko bideari ekitea dela, ematen du lagatako informazioak betetzen duela kalitatearen printzipioa, lagatako datuak egokiak, garrantzitsuak eta neurrikoak direlako datu-bilketaren helbururako.

ONDORIOA

Erakunde hornitzaileek datu pertsonalak babestearen arloko araudia betetzen dute Uraren Euskal Agentziari datuak lagatzean, beti ere irizpen honetan ezarritakoaren arabera egiten badute.